



ttipi-ttapa

TOIKOM

2012ko irailaren 20a | XXXII. urtea | 574. zenbakia

www.ttipi.net

euskaraz
bizi
nahi dut

Kontseiluak antolatuta
larunbatean lasterketak
Leitza, Bera eta Elizondon

Herriko bestak

Igantzin eta Urrozen

HEZKUNTZA → 14

5.109 ikaslek ikasturtea
hasi dute eskualdean

BESTA TTIKIAK

Doneztebe, Amaiur eta
Erratzun asteburuan

BAZTAN → 39

Herrietako eskolen
besta irailaren 30ean

TXINGAK → 49

Maika Ariztegi 12. aldiz
Euskal Herriko txapelkun

Bixente IGARTZABAL | Kirolari lesakarra

Lehenbiziko Ironbask probaren irabazlea



09:56:21

Irailaren 8an jokatu zen Donibane Lohizunen Euskal Herriko lehen Ironmana. 107 kirolariren artean, Bixente Igartzabal izan zen garaile. Ia 10 ordu behar izan zituen probaren 3 zatiak egiteko: 3,8 kilometro igerian, 180 km bizikletan eta 42,2 km lasterka.


→ 18

ARGAZKIA: TXUMA EUGI



ELKARRIZKETA → 3

Irailaren 29rako, Bortzirietako Haur Besta antolatu dute Beran



ERREPORTAJEA → 4-5

Zabalik da euskaltegietan izena emateko epea

GREBA DEIALDIA → 10

Sindikatu nagusiek greba orokorrera deitu dute irailaren 26an. Egun horretan, manifestazioak egingen dira eskualdean: 12:00etan Beran eta Elizondon eta 17:30ean Donezteben.

ZOZKETAK → 42



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kortazko ontziak, papera, egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak, latzak, brikak.



Beirazko botilak, flakoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Baitxeke zure seme-alabek bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota urezantzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Bortziritako eta Iparraldeko haurrek elkar ezagutzeko gunea bat izan dezaten, aurten lehenbiziko aldiz Haurren Eguna antolatatu du Berako Labiaga Ikastolako Guraso

Taldeak. Irailaren 29an izanen da eta egun osoan puzgarriak, bideo kontsolak eta puzzle erraldoiak paratuko dituzte Berako kiroldegian, eta arratsaldean Irrien Lagunak

klubeko zirku eskola ekarriko dute. Gurasoek sarrera dohainik izanen dute eta haur bakoitzari hiru euro kobratuko zaizkie, eta familia ugaria baldin bada, sei euro.

Joxelu LOIARTE | Berako Labiaga Ikastolako gurasoa

«Bortziriak eta Iparraldeko haurrei elkar ezagutzeko gunea eskaini nahi diegu»

G. PIKABEA | BERA

Nolatan gogotu zaizue Bortziritako Haurren Eguna antolatzea?

Berako Ikastolako Guraso Taldeetik aterata den ideia da. Ikasturtean zehar ikastola barreneko gauzak bultzatzeko eta kanpora begira ideiak lantzeko bilerak egiten ditugu eta hau horietako bat da. Horrelako zerbait egitea polita izanen zela pentsatu genuen eta horretan hasi ginen. Antolatzen den lehenbizikoa aldia da eta nola ateratzen den probatu nahi dugu. Datarekin bueltara ibili gara, irailaren 29an Igantziako bestak direlako eta Beran Dantzari Ttiki Eguna ere orduan delako. Baina azkenean data horretan jartzera behartuak egon gara. Dena ongi ateratzen bada, egun honen hurrengo urteetan segida izatea nahiko genuke, nahiz eta datarik egokiena zein den ikusi beharko litzatekeen.

Zehazki zer izanen da Bortziritako Haurren Egunean?

Egun osoko besta bat izanen da. 10:00etatik 19:00etara Berako kiroldegian barreneko aretoa eta kanpoko patioa hartuko ditugu haurrei hainbat aukera eskaintzeko. Egun osoan mota guztietako puzgari aunitz paratuko ditugu, eta horrez gain, bideo kontsolak eta puzzle erral-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joxelu LoiarTE beratarra Bortziritako Haurren Eguna antolatzen ari diren gurasoetako bat da.

doiak egonen dira. Eta arratsaldean, hiru orduz, Irrien Lagunak klubeko zirku eskola izanen da. Horrez gain, palomita eta talo postuak paratuko ditugu, baita ostatu ttiki bat ere. Eguraldi txarra egiten badu, badaezpada, kanpoko ekitaldietarako Udalari Altzateko frontoia erabiltzeko baime-na ere eskatuko diogu. Gurasoek sarrera dohainik izanen dute eta haur bakoitzak hiru euro ordaindu beharko ditu, eta familia ugaria baldin bada sei euro. Beraz, familiako gehienez ere sei euro kobratuko dira.

Zein helbururekin antolatu duzue?

SARRERA

«Gurasoek sarrera dohainik izanen dute eta haur bakoitzak hiru euro ordaindu beharko ditu, eta familia ugaria baldin bada, sei euro. Beraz, familiako gehienez ere sei euro kobratuko dira.»

EGITARAUA

«10:00etatik 19:00etara puzgarriak, bideo kontsolak eta puzzle erraldoiak izanen dira eta arratsaldean zirku eskola. Palomita eta talo postuak eta ostatu ere paratuko ditugu.»

Bortziritako eta Iparraldeko haurren topaleku bat izatea nahi dugu eta beraien artean elkar ezagutzeko. Bertatik bertara gaude eta urrutik gaude la ematen du.

Bertze ikastetxeekin elkarlanean ari zarete antolatzen?

Ez, Labiaga Ikastolakoak ari gara. Ez da azpiegitura haundirik behar, puzgarriak ekarriko dituztenek eurek arduratuko dira horretaz eta Irrien Lagunak zirku eskolakoak ere bai. Alde horretatik nahiko erraz ari gara. Lekua izanez gero, eurek antolatzen dira eta Guraso Taldekoak edozein gauzeta-

rako hor egonen gara. **Nola aurre egiten diezue gastuei?**

Helburua ez da dirua ateratzea, eta gauden garaian egonda, gurasoentzat sarrera dohainik paratu dugu, jendea animatzea nahi dugulako. Horrez gain, dirua lortzeko udan kamisetak ere saldu ditugu *Bestak bizi, euskaraz lehenbizi* lelopean. Haurrei kobratuko zaien sarrerarekin eta postuetan lortuko denarekin gastuak estaltzea espero dugu. Lehenbiziko aldia da eta ikusiko dugu nola ateratzen den.

Egunari begira, nolako aurreikuspenak dituzue?

Egun horretan bertze ekintzak ere badira eta alde horretatik pena da, bertze ere ez direlako gauza aunitz izaten. Baina Dantzari Ttiki Egunean parte hartuko dutenek aisialdirako eta bertze haurrekin egoteko aukera ere izanen dute. Gure asmoa ez zen bat etortzea, baina puzgarriak eta zirku eskola direla eta, horrela tokatu da.

Bertze herrietako ikastetxeetara zein mezu bidaliko zenuke?

Bortziritako eta Iparraldeko haurren eguna da eta ikastola eta eskoletako haurrak, ikastetxe haundiak edo ttikiak izan, denak gonbidatuak daude irailaren 29an Berara etortzeko.



ARGAZKIA: BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA
Bortzrietako Euskaltegiko ikasle eta irakasleak duela hiru urte sagardotegira egindako ateraldian.

MATRIKULAZIOA

Lesakan 948 637796ra
deitu behar da, Beran
948 625019ra, Donez-
teben 948 451555era,
Leitzan 948 610776ra
eta Baztanen 948
452471era.

DATUA

200

IKASLE

inguru ibili ziren joan den
ikasturtean Baztan,
Bortzirriak, Malerreka eta
Leitzaldeko euskaltegietan.
Klaseak ematen 12 irakasle
aritu ziren, batzuk lanaldi
osoan eta bertzeak orduka.

EUSKARA → MATRIKULAZIO KANPAINA

Euskaraz solasean, idazten eta irakurtzen erakusteko ikasturte berria prestatu dute euskaltegiek

Matrikula egiteko epea zabalik dago

Baztango AEK eta Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegiek matrikulatzeko epeak

zabalditu dituzte. Irailaren 26ra arte apuntatzen ahal da Baztanen eta gainerakoetan hilaren 28ra arte.

G. PIKABEA

Euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi, euskara maila hobetu, zorroztu... Azken batean, gurea den hizkuntza errazago eta erosoago erabili. Horretarako aukera paregabea eskaintzen dute euskaltegiek. Euskaraz solastu bai, baina alfabetatu ga-beek irakurtzen eta idazten ikas dezakete, eta euskaraz deus ez dakitenak hutsetik has daitezke.

Azken urteotan, euskaltegietan matrikulazioak beheiti egin du eskual-

dean. Hala diote datuek eta hala diote euskaltegietako arduradunek. Batzuentzat Nafarroako Gobernua den hizkuntza-politika da erantzulea, jendea erlaxatu delako. Bertzeentzat, gurasoek haurrek eskolan ikasita nahikoa dela uste dutelako eta kanpokoek hemen jendeak gaztelaniaz badakiela ikusita ikasteko beharrik ez dutelako sentitzen... Aitzineko ikasturtean, Baztan, Bortzirriak, Leitzaldea eta Malerreka euskaltegietan 200

bat ikasle ibili ziren. Aurtengo ikasturtea ere prest dute eta urrian hasiko diren klaseetara apuntatzeko epeak zabalik daude: IKAK Lesakan, Beran, Leitzan eta Donezteben dituen euskaltegietan izena emateko azken eguna irailaren 28a izanen da. Baztango AEKn hilaren 26rako itxi nahi dute matrikulazioa nahiz eta urrian deitzen duena ere hartuko dutela adierazi.

Maila guztietako ikastaroak eskainiko dituzte aurtun ere, beheko urra-

tsetik hasita EGA bitarte. Eskaeraren arabera, iraupen desberdineko ikastaroak izan daitezke. Eta horrez gain, ikastaro bereziak ere badira aukeran.

Bortzrietan, adibidez, hainbat berrikuntzekin hasiko dute ikasturtea. Batetik, **gurasoentzako ikastaro bereziak** prestatu dituzte, oinarrikuz mailan. Aste-lau orduz, gurasoak klasean daudenean haurrak begirale baten egonen dira. Eta hila-betean behin, haurrak, gurasoak eta begiralea elkartu eta jolasak eta kantak landuko dituzte. Haurrengatik ez da deus ordaindu beharko, Bortzrietako Euskara Mankomunitateak bere gain hartuko baitu gastua. Bertze berrikuntza **euskara hobetzeko oinarrikuzko ikastaroa** da, urritik abendura, astean lau orduz. Irakurriz gozatzeko, udal kontuetan arazorik ez izateko, datak, zenbakiak eta abar ongi idazten ikasteko eta erraten dena nola idatzi ikasteko laguntza emanen da. **Hika lantzeko oinarrikuzko ikastaro praktikoa** ere proposatu da, astean lau orduz, urritik abendura.

Bertzalde, Bortzrietako Euskara Mankomunitatearen eta Bortzrietako IKA euskaltegiaren elkarlanaren ondorio, mankomunitateak urtero diruz laguntzen du euskaltegia, eta hala, Bortzrietako herritarrek matrikula merke xeagoa dute. Horrez gain, ikasleek, langabetuek eta diru sarrera urriak dituztenek mankomunitateari diru laguntza eskatzen ahal diote urriaren 31 baino lehen.

Euskara ikasleen ahalgina txalotzeko, urriaren euskaltegian hasiko diren artean bi matrikula edo telefono eramangarri (euskara ikasteko aplikazioekin) ere zozketatuko ditu Bortzrietako Mankomunitateak. Euskalduntzen hutsetik hasten diren artean telefono eramangarria edo matrikula zozketatuko da, eta, gainerako ikasle guztien artean, bertze telefono eramangarri edo matrikula bat, bi kasuetan biatarikoa aukeratzeko. Zozketa urriaren 11n egingen da. Gisa berean, mankomunitateak ikasleei doan eskainiko die euskara ikasteko smartphone-rako *kxo!* aplikazioa.

EUSKALTEGIAN EUSKARAZ IRAKURTZEN ETA IDAZTEN IKASI DUTENEN BIZIPENAK



Manuel AGIRRE | BERA

«Edozeini erranen nioke euskaraz alfabetatzeko, saiatzeko, posible delako, eta aberasgarria delako»

Euskaraz solasteko arazorik ez du sekula izan, baina irakurtzeko eta idazteko bai, eta horregatik erabaki zuen bere garaian Manuelek euskaraz alfabetatzeko euskaltegiara jotzea. Aitortu digunez, «falta bat sumatzen nuen, eta adibidez, TTAPI-TTAPA gure eskualdean sortu zenean, zail egiten zitzaidan irakurtzea. Gu baserrian euskaraz bizi ginen, eta gero, irakurtzeko eta batez ere idazteko, aski zen ohartxo bat, hura erdaraz egiten genuen. Nik ikasketa guztiak erdaraz egin nituen eta behar bat sumatzen nuen». Euskaraz alfabetatzeko prozesua «ikaragarri ona» izan zela kontatu digu Agirrek, «ez bakarrik ikasteagatik, baizik eta irakaslearekin eta ikaskideekin sortu zen giroagatik. Ikasleak arlo ezberdinetakoak ginen, eta hori aberasgarria zen, eta elkar aunitz laguntzen genuen». Eta euskaltegian gustura ibiltzeaz gain, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteak «lehen nuen behar hori gainditzeko» balio izan dio Agirreri. «Irakurtzeko beldurra kendu nuen. Idazteko berdin», dio. Gaineratu digunez, «lantegian txanda aldaketan edozein lankideri notatxo uztean, lehenago erdaraz egiten genuena, orain euskaraz egiten dugu. Berdin familiako kideen artean, gaur egungo e-postak bidaltzeko, eta abar». Bere esperientzia baikorra izan dela ikusita, alfabetatu gabekoei eta «edozeini» euskaraz idazten eta irakurtzen ikastera animatzeko erran nahi izan die, saiatzeko, bere hitzetan, «posible delako, eta aberasgarria delako. Gero, erraterako, berdin-berdin solasten ahal zara Iparraldeko batzuekin edo Gipuzkoako batzuekin, inolako kezkarik gabe, beldur hori kentzen duzulako. Eta badakizu ongi idazten eta zure euskalkia ere mantentzen. Hori ere garrantzitsua da: Bortzirietako Euskaltegian bertako euskara zaintzen dute».



Rosa EUGI | IGANTZI-BERA

«Alfabetatzea ez da euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea bakarrik, gure kultura ere jasotzen dugu»


Rosa institutuan hasi zen euskararen garrantziari ohar hartzen, berak dioen bezala, «euskara altxor bat genuela konturatzen, arbasoengandik jasoa. Mendez mende eraso aunitz pairatu zuela, eta oraindik irauten zuela, frankismoan aunitz sufritu arren, eta azken finean, gure baitan zegoela bere biziraupena». Horrekin kontzientzia hartu zuen, «euskaraz gehixeago egin nahi nuela jabetu nintzen, eta irakurtzen eta idazten ikasi behar nuela». Euskaltegian hasi zenean, «hasieran hagitz zaila» egin zitzaioela erran digu: «euskara batua zen, eta ni ez nengoen horretara ohitua. Nik hemengo euskara ezagutzen nuen. Poliki-poliki eta ahalegin handiz, irakasle ikasketak egin nituen euskaraz, eta EGA ere orduan atera nuen». Euskaraz irakasten duenez, alfabetatua izatea bere lanerako «ezinbertzekoa» dela dio, baina horrez gain, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteak euskaraz gehiago egiteko kontzientzia hartzeko balio izan omen dio: «familiarrekin, lagunekin, ezagunekin, ezezagunekin... Bikotearekin dena euskaraz egiten dut, eta jakina da gure adineko bikote euskaldun aunitzek erdaraz egiten dutela, nahiz eta seme-alabei euskaraz egin». Alaben ikasketak jarraitzen, euskal prentzaz eta literaturaz gozatzen, administrazioarekin harremana euskara izaten, eta hainbat gauzatan lagundu diola ere azaldu digu. Hala, «mundu guztia» alfabetatzera animatu du: «alfabetatzea ez delako euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea bakarrik, gure kultura ere jasotzen dugu, gure jatorriaz ohar hartzen gara, eta gure burua hobeki ezagutzen laguntzen digu». Alfabetatzearen inguruan, gogoeta sakona egin beharko genuke, bere hitzetan: «har dezagun pertsona erdaldun bat, erdaraz hitz egiten duena, baina ez dakiena irakurtzen eta idazten. Nola ikusten dugu pertsona hori? Eta euskaldunen kasuan? Ez badaki euskaraz irakurtzen eta idazten, ez al da erdaldun horren parekoa?».



Oskar TXOPERENA | IGANTZI

«Alfabetatu gabeak euskaldun osoak izatera animatu nahi ditut. Esfortzuak konpentsazioa ekartzen du»

«Emazteak eta biok elkarrekin erdaraz egiten genuen, Igantziko bertze hainbat gaztek bezala. Elkarrekin solasean ari ginen batean, zergatik egiten ote genuen erdaraz planteatu genuen. Poliki-poliki elkarrekin euskaraz egiteko konpromisoa hartu genuen. Hortik etorri zen euskaltegi batera joateko erabakia». Horrelaxe, «bat-batean», erabaki zuten Oskarrek eta bere emazteak euskaraz alfabetatzea. Irungo AEK euskaltegian hasi ziren: «urte batez astero-astero pare bat orduz joan ginen, eta horixe izan zen alfabetatzeko prozesua». Kontatu digunez, «ez dut ukatuko hasieran neketsua izan zela, eskatzen zituen orduengatik, joan-etorriak... Baina izugarri gustura ibili ginen, eta nik behinik behin hagitz oroitzapen onak ditut». Eta orain, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasita, bi satisfazio mota lortu dituela azaldu digu Oskarrek: «bata pertsonala, zure ama hizkuntza menperatzea eta modu normal batean zure hizkuntza mugitzea. Eta bertzea, ate aunitz ireki dizkidala irakurtzen eta idazten ikasteak. Kultura aldetik, TTAPI-TTAPA aritzeko modua ekarri dit, eta bertze lan batzuk egiteko aukera ere bai, erraterako, toponimiari buruzko lanak. Gero, seme-alaben ikasketetan eurei laguntzeko eta euren zereginak segitzeko. Alde guztietatik ez diot gauza onik bertzerik ikusten». Euskaraz idazten eta ikasten jakitea beretzat aberasgarria izan dela kontuan hartuz, mezua bidali die alfabetatuak ez direnei: «gure adinekoak, baita gazteagoak ere, alfabetatuak ez direnak esfortzu tiki bat egitera animatuko nintzuke, eta, nik uste, esfortzu horrek konpentsazioa ekartzen duela azkenean, bizimodu honetan eta gure hizkuntza hobeki mugitzeko aukera emanen dielako. Animatu nahi ditut, nolabait, euskaldun osoak izatera».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Astopitoak 2

Lehen idatzi izan dut astopitoei buruz: bestetan hondamendiak egitea maite dutenei buruz. Ematen du persona hauek 'espeziearen eboluzioan' oraindik erdi bidean direla, ez baita normala kontenedoreak erreka botatzen, zakar-ontzi bati su ematen, loreak errotik ateratzen eta halako balentriekin disfrutatzea. Baina bertze astopito mota bat ere badago: bestetan petardoak botatzen dituztenak, hau da, petardoak botatz bere ingurukoak izorratzen disfrutatzen dutenak. Harrigarria da ze ergel-satisfakzio bisaia paratzen zaien bertzeen haserrea sortzen dutenean... Mikrobioak eta estraterrestreak ikertzen diren gisan, zientzialariak ikertzen ari dira astopito espezie hau. Momentuan hiru gauza deskubritu dituzte: 1) petardoak haurrek botatzen dituztelarik, ez direla oraindik astopito kontsideratzen; 2) astopitoen artean gizonezkoak direla gehiengoak; eta 3) astopitoen artean tarteka emakume kaxkarin batzuk ere badirela.

«Bertze astopito mota bat ere badago: petardoak botatz ingurukoak izorratzen disfrutatzen dutenak»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Aitatxi-amatxiak greban

Estatu espainolean milioi bat aitatxi-amatxi beraien bilobak zaintzen omen ditu astean behin edo gehiagotan. Europa iparraldean oraindik handiagoa da kopurua. Gaur egun, aita-amak lan edo erosketak egiteko eta, zergatik ez erran, tarteka denbora librea izateko nahitaezkoak bilakatu dira aiton-amonak. Zer gertatuko litzateke egunen batean greba egitea erabakiko balute?

Nabarmentzekoak



Maika ARIZTEGI
Berriz ere txapeldun

Hamabigarren aldiz irabazi du iturendarrak Euskal Herriko Txokor Biltze Txapelketa. Gainera, 40 urterekin marka (07:13) egin zuen Donostian, aitzinekoa 4 segundoan hobetuz.



Itsaso LUJANBIO
Goizuetako gaztea

Goizuetako jarduerak irudikatuko dituen logoa diseinatu du. Herriko zubi haundia irudikatatu du, iragana eta oraina lotzen dituen zubi, *izaera eta izatea* izenburuarekin.



Bixente IGARTZABAL
Lesakako kirolaria

Euskal Herrian lehen aldiz egin den Ironman proba, Donibane Lohizuneko Ironbask, irabazi zuen irailaren 8an, kasik hamar ordu lanean eman ondotik. Denboraldi bikaina egin du.

Atzera begira → 2002.09.19 / TTIPI-TTAPA 334. zbk



ETBko «Basetxea» saioaren bigarren edizioa Etxalarren

Julian Iantzi lesakarrak gidatzen zuen ETBko *Basetxea* saioaren bigarren edizioa Etxalarko baserri batean grabatu zen duela hamar urte. Aurkezleak TTIPI-TTAPAri adierazi zionez, «Etxalarren *Basetxea* grabatzeko beharrezkoak genituen baldintza guztiak eskura genituen: hagitz fotografikoa, mendi ederrak, etxe politak...». Hamar urte beranduago aski ezaguna da Julian Iantzi, baina berak onartu zigunez, «telebistaren munduan kasualitatez hasi nintzen eta orokorrean, zorte ikaragarria izan dut beti. Neurri handi batean horregatik nago orain nagoen tokian».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

| | | | | | |
|--------------------|----------|-----------------------|-----------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria |38€ | Europa |56€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka |32€ |
| Ipar Euskal Herria |56€ | Amerika eta Australia |124€ | Leitza |16€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Betiko alardea?

Ainara MAIA URROZ

Harriturik igo nuen Hondarribiko Kale Nagusiko harrizko galtzada estu eta jendetsua. Oihu, zarata, txalo eta irainen artean neure barruan galdera-zurrumbiloa: zer da betiko? Nor dago mundu honetan betiko? Zezenketarik ez lruñean, eta emakumeak ere ez Hondarribian? Emakumeak animaliak ere ez ote gara, eta gizakiak ere ez garenez, Inkisizioaren sutan erre behar ote gaituzte objektu huts garelako, eta betiko etxeko sukaldetik atera gabe egon behar ote dugu XXI.mendean gizonak noiz eta nola atera esaten diguten arte?

2012an gaude eta gaur egun ez gara orain mende bat bezala bezititzen, eta orain dela hamar urteko nire armairua ere ez da oraingoaren berdina ere! Orain dela berrogei urte a zer nolako borrokak eta istiluak emakume gutxi batzuk galtzak jartzea eta kalera ateratzea erabaki zutenean! Herri txikietan behinik behin bai. Orduan ere kristoren tradizio pisuak agintzen zuena bete behar eta horretan 'polizia' finenak emakumeak topatu aurrez aurre, alafede! XIX.mende amaieran ere emakume ausart batzuk soilik atera ziren kalera eskubide berdintasuna aldarrikatzera, eta orduan ere emakumeak aurrez aurre topatu zituzten euren askatasunerako traba moduan!

XXI.mende honen hasieran emakumeek zanpatzen dute plastikozko hesi beltzez inguraturiko betiko harrizko galtzadan nire emakume izateko dudak eskubidea eta duintasuna, eta neure alua minberaturik dut, emakume batek beste emakume bat iraintzen ikusi eta entzun ondoren. Garai bateko kantu jada klasiko hura etorri zait gogora, bukatzeko: emakumea gizakia da, sexu-makina baino askoz gehiago da. Maitasunez beteriko bihotz bat besterik ez dut nik behintzat, eta neure duintasuna zanpaturik gelditu zen atzo XXI.mende betiko harrizko galtzada estuan, nik ez baitut neure burua identifikatzen iraintzen duten emakume horiekin edota urtean behin goretsiak dauden kantinera-objektu horiekin, kritika onak ez ezik, txarrak ere jasotzen baitituzte urte osoan, konparazione batera «hura hau baino ederragoa da» edo «beste hori nolatan atera da kantinera hain itsusia izanda?» Ez, ez ditut maite gizonak beren plazereko sortutako miss eta horrelako lehiaketak ere, emakumea ez delako objektu bat eta erabakitzeke gai delako eta eskubidea duelako. Ez dut maite era berean maitasunean ezetza jasotzea eta gizonak edo mutilak oraindik ere aukeratzea bere bikotekidea, eta emakumeak bere maiteak aukeratu ez duela onartu behar du oraindik ere etsipenez eta negarrez. Ez dut maite gizonen maitasun-aitorpenak balioa izatea eta emakumeak idatzitako maitasuneko eskutitzak ez izatea inolako baliorik ere, ezta literarioa ere.

Baina hori dena gertatzen da oraindik ere gaur egun, XXI.mendean, eta gaur egungo *Jaizkibel* eta orain 20 urtekoa ez da berdina: ez daude orduko zuhaitzak orain! Ez da oso gibelera joan beharrik oartzeko garai batean latzak eta punttadunak ziren harriak edota harkaitzak gaur egun leun-leun eta biribilak direla; euskal harria bezalaxe guztion eta norbanakoaren ikuspegi zorrotza samurtuko balitz, zoriontsuago izango ginatke guztiok.

Garaian Garaiakoa

Jexux BULDAIN

Askotan entzun izan dugu esaera zahar hau: garaian-garaikoa egin behar da! Gaztea nintzenean, hau entzun nuen eta bizitza disziplina bat zela pentsatzen hasi nintzen. Orduan, jolasa eta lagunekin ibiltzea ziren nire gustuko jarduerak eta horrelako esaerak entzuteak, ze pentsa ematen zidan. Zerbait berria entzuten dudanean, erraz asimilatu aurretik, zalantzan jartzea gustatzen zait eta entzundakoa, hausnartu. Hori horrela izanik, nire iritzian, esaera honen jatorria, urtean bizitzen ditugun urtaroeetatik dator. Urtean lau urtaro bizitzen ditugu eta laueta, gauza ezberdinak egiten ditugu. Badakigu, naturak: udaberria, udaran, eta udazkenean, itxura berdintsuagoa duela, neguan baino. Neguan, natura ezberdin dago! Lasaiago, atsedena hartzen eta geldirik egonez, indarberritzen. Gaur egun, gizarte-sistema dagoen bezala eta agintzen dutenak bideratzen gaituzten bezala, badirudi ezinezkoa dela atsedena hartzea. Estres-konstante batean bizi gara eta behar bada agintariekin, bai hartuko dute atsedena! Niretzat, natura beti erreferente bat izan da! Honekin esan nahi dudana da, garaian-garaiakoa egin behar baldin bada eta naturak urtaro oso bat atsedena hartzen igarotzen badu, gizakiarentzat ere ongi etorriko zen, atsedena handiagoak hartzea. (...) Gauden tokian gaudela lanean, gauza berriak asmatzeko denboratxo bat hartu beharko dugu. Gure nagusiari edo gure buruari erakutsi, kantitatea ez baino kalitatea garrantzitsuagoa dela! Askotan, gehiago merezi du, egun batean sei ordu ongi lan egin, zortzi ordu erdi-purdi baino. Emaitzak lortu behar ditugu eta emaitza hobetoak lortzeko, gauza berriak asmatu behar ditugu. Aurretik dakiguna ongi etorriko zaigu, baina hor gelditza bagara, denborarekin, atzera egingo dugu. Honen guztiaren helburu nagusia, gure osasuna zaintzea da! Hartzen ditugun erabakiak, eragin zuzena dute gure osasunean. Gure erabaki batek, urteetan iraun dezake eta erabakia ona baldin bada, gure osasunarentzat ona izango da eta ez bada, alderantziz. Garain-garaiakoa egitea garrantzitsua baldin bada, gure eureka-mentalean barnerratu dauden erabakiak zuzenak diren hausnartu behar dugu. Dudarik gabe, gure osasunak eskertuko du! Gaur-egun bizi dugun garaira bueltatu, garai berri baten aurrean gaudela, garbi dago. Ongizate sistema zalantzan dago eta doako hezkuntza ere bai, beste gauzen artean. Etorrizun beltza margotzen ari dira baina gure esku dago, margotzen duten kolorea onartzea edo ez. Ikusten duguna gustatzen ez bazagu, garai berri bat sortuko beharko dugu eta horretarako lan egin beharra dago. (...) Muga baten atarian gaude, orain arte bizi izan dugun garaian, ongizatea egon da eta ondorioz, gu ongi bizi izan gara. Baina, bizi izan dugun garaian oso komodoak bihurtu gara eta ez gara entrenatu, posible izan zitekeen garai berri bati aurre egiteko. Garai berria hemen dago eta entrenamendurik gabe aurre egin beharko diogu. Erabaki berriak hartzeko garaia ailegatu da. Epe-hurbilerako dena beltz margotzen badute ere, gure esku egonen da, etorkizuna guk nahi dugun kolorean margotzea. Estatuko-sistema goitik behera aldatu behar bada, lehen pausoa emanez hasi beharko dugu!

Irakurleak mintzo

Herri bazkaria
edo erdi
bazkaria?Eneritz Rekarte eta
Maddalen Jimenez,
koadrilaren izenean

Urtero bezala, abuztuaren 6an Berako herri bazkaria ospatu zen. Aurten, bertzte urteetan baino aunitzez jende guttiago hurbildu zen herritarrek elkartzen dituen hitzordu honetara. Zergatik? Ez zaigu bidezkoa iruditzen 15 euroren truke ogia, zikiroa, postrea eta kafea bakarrik ematea, guk eraman behar izanik gaitzaintzeko guztia (lehen-dabiziko platera, edaria eta kopa). Azken finean bazkarian sortzen den giroa ordaintzen dela iruditzen zaigu, nahiz eta aurtengoan giroa ez den prezioan sartu.

Urte honetakoa ikusirik, ohitura honek etorkizunik ba al du? Bizitzaren ari garen krisi garaia kontuan hartuz, zikiroaren partez menu ekonomikoago bat egitea proposatzen dugu.

Noiz arte?

Iñigo ELIZEGI (Goizueta)
Saint-Maurreko espetxetik

Urteetan zehar borroka luzeei esker langilegoarentzat eskubide eta lan baldintza onak lortu ziren. Orokorrean, gizartearentzat hainbat zerbitzu sozial bezalaxe. Eta orain, legearen indarrez, hiru hilabetetan,

eskubide horiek guztiak kentzen ari dira. Eta zer erantzun eman dugu?

80. hamarkadan, *guerra de las banderas* esan zitzaiona eman zen, eta urteetako borrokarari esker udal-txetako balkoietan ikurrina jarri ahal izateko eskubidea irabazi zen. Duela urte gutxi, legearen indarrez, balkoi horietatik ikurrinak kendu arazi zituzten. Eta zer erantzun eman genuen? Orain, legearen indarrez, udal-txetako balkoi beretan espainola zintzilikatzea derrigortu behar dute. Eta zer erantzun emanen dugu? Eta hurrena, zer izango da? Eta hurrena? Eta hurrena? Etazergin en dugu?

Noiz izan zen azkeneko aldia udal-txetako balkoietan bandera espainola zintzilik egon zena? Zer garaietara egin behar dugu atzera?

Berdin langileentzat derrigorrez jartzen ari diren egungo lan baldintzak, urte asko eta askotako atzerapauso haundiak dira. Eta deus egiten ez badugu, laster ikusiko dugu duela 30 urte atzera (edo agian gehiago) zeuden lan baldintzak.

Garai berriak bizitzen ari omen gara. Baina gauza asko eta asko, egunetik egunera okerragora dihoazte. Eta derrigortu arazi nahi dituguten gauza bakoitzeko, erantzunik ematen ez badugu, beraientzat inongo kosterik gabe 'men' egiten dugun aldiro, beste eskubide bat



Bota bertsoa

Jose Luis BARBERIA «ZILI» (Leitza) • Doinua: Haizea dator iparraldetik

Udazken koloretan

Antxumeloak, onddoak, sagarrak
fruitualdi oparoa,
Udako mantu berde-berdea
marroi koloretzen doa,
Amerikako haritz haundiek
gorri kolore mordoa,
lehen izotzek ihintz freskoaz
zuritutako soroa,
Iparraldeko laino hotz beltzek
elur maluten gogoa,
egunak moztuz ilundu ahala
loak hartzen dun pagoa,
hainbeste margoz datoz Iraila,
Urria ta Azaroa,
zerbaitegatik udazkena da
koloreen urtaroa!

Zenbat pertsona dagoen sartuta
'pufo' edo marroietan,
kontu korrante, aurrezki kutxak
hain zenbaki gorrietan,
agintariak, politikoak
dabiltz zurikerietan,
jende ugari beltzak ikusiz
berdearen beldurretan,
zenbat kolore ilun dagoen
horrenbeste espetxetan,
pobreziaren hotza jadanik
ez ote daukagu bertan,
norberak bere zilborra mundu
egiten duen honetan,
urte guztian ez ote gaude
gu udazken koloretan!

gehiago kendu edota beste gauza bat gehiagore derrigortuarazteko erraxago egingen zaie.

Batek baino gehiagok (tartean nik ere bai) esanen du egungoak garai ezberdinak direla, baina hutsetik ehunera, 'deus' ez egin edo 'dena' egin edo ematera bitarte horretan tarte haundia dago, eta gauza asko eta asko egin daitezke tarte horretan.

Zenbat eta gehiago 'utzi', orduan eta gehiago 'eskatu' edo kenduko digute.

Bizitza

Itzulpena: Xanti BEGIRISTAIN

Irudika ezazu bizitza jostaketa bat bezala, non bost pilota airean maneiatzen ari zaren. Hauek dira: lana, familia, osasuna, lagunak eta espiritu-bizitza, eta hauek guztiak zerorrek

mantentzen dituzu airean.

Laster konturatuko zara, lana gomazko pilota bat bezalako delako. Erortzen uzten badiozu, bote egin eta itzuli-zuko zaizu. Baina, beste lau pilotak: familia, osasuna, lagunak eta espiritua, beira bezain hauskorak dira. Hauetako bat uzten baduzu erortzen, zalantzarik gabe ezpaldu eta hondatu egingen da, baita hautsi ere. Behin ere ez da izan lehengo bera.

Hauxe ulertu behar-kozenuke: estimatu eta ahalegindu lortzen eta zaintzen baliotsuena. Lan egin ezazu modu eraginkorrean bulegoko ordutegian eta uzta-zu lana garaiz. Emaizu behar duten denborra familiari eta lagunei. Egin ariketa fisikoak, jan eta atsedean hartu era egokian. Eta batez ere... hazi zaitetz barneko bizitzan, espirituari dago-kionez, garrantzitsuena

baita, betierekoa delako. Shakespearek honako hauxe esaten omen zuen: beti sentitzen naiz zoriontsu, badakizu zergatik? Ez dudalako deus ere espero inorengandik, itxoiteak beti ematen du min. Arazoak ez dira betierekoak, beti dute konponbidea. Konponbiderik ez duen barkarra heriotza da. Bizitza motza da, horregatik, maita ezazu! Bizi zaitetz era trinkoan eta gogoratu: hitz egin baino lehen, entzun ezazu! Idatzi baino lehen, pentsa ezazu! Kritikatu baino lehen, aztertu ezazu zerorren burua! Zauritu baino lehen, senti ezazu! Otoitz egin baino lehen, barka ezazu! Gas-tatu baino lehen, irabaz ezazu! Amore eman baino lehen, ahalegindu zaitetz! Hil baino lehen, bizi zaitetz!

Bryan Dyson. *Coca Colako presidente kargua uztean esana.*

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Harritu egin naiz [Leitzako talo lehiaketa] irabazita, maila handia zegoelako. Taloak egitearena familiako tradizioa da, 87 urte dituen Pakita Garin amatik ikasia eta negu asko daramazkigu taloak presatzen. Lehen, oinarri-oinarrizko jakia zen. Talo ona egiteko, arto-irina, gatza eta ur pixka batez gain, *kariño*z egin behar da».

Juan Mari ZABALETA
Leitzako talo egilea
D. NAVARRA, 2012.09.10

«Zergatik bueltatzen garen Aritzakunera? Hemengoak garelako, hemen jaio, hemen hezi eta hazi eta hemen bizitu garelako kanpora gan bitartean eta lur honek oraindik ere ongi hartzen gaituelako».
«Jose M^a Santesteban maisu zenak Ameriketako herrialde guztiak izendatzen zizkigun, goitik beheiti maparen beharrik gabe»

Mari Carmen URRIZA
Aritzakungo emakumea
D. NOTICIAS, 2012.09.05

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Emakume euskalduna eta bertako kulturaz gozatzen duena.

Euskaldun zaharra ala berria?

Zaharra.

Zergatik erabaki zenuen euskaraz alfabetatzea?

Lagun eta lankide on batek aholkatu zidalako.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Aunitz ikasi nuen eta giro oso onean.

Zertan lagundu dizu euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteak?

Lehen euskaraz idazteak beldurra ematen zidan, ziurtasun falta nuelako. Orain, berriz, erraz idazten ditut ikastolarako oharrak, laneko fitxak edota gutunak. Haurrei ere etxeko lanetan laguntzen diet.

Ttipi-Ttapa irakurtzeko zer moduz moldatzen zara?

Ongi. Modu erraz eta argian idatzia dagoe-lako.

Nola ikusten duzu euskararen egoera zure inguruan?

Pentsatzen dut aunitz-hobetu

daitekeela. Hala eta guztiz ere, nire haur garaian kanpoan lagunekin gaztelaraz hitz egiten genuen. Orain, berriz, euskaraz sumatzen ditut, eta hori gauza ederra iruditzen zait.

Euskaraz solasten ez dakitenei zer erranen zenieke?

Hizkuntza bat ikastea beti aberasgarria dela, eta bertakoekin komunikatzeko tresna baliagarria.

Eta euskaraz idazten eta irakurtzen ez dakiten euskaldun zaharrei zer erranen zenieke?

Aunitzek diote euskara batua ez dutela ikasiko geurea ez delako, baina horiei guztiei erranen nieke euskaltegian batuaz aparte, bertako euskalkiak ere erabiltzen erakusten dutela.

Ezezagun batekin euskaraz ala erdaraz egiten duzu lehenbiziko hitza?

Hemengo herrietan eta Gipuzkoan euskaraz eta Iruña aldean gaztelaraz. Pentsatu gabe ateratzen zait.

Euren artean erdaraz eta seme-alabekin euskaraz egiten duten gurasoei zer bait erranen zenieke?

Astakeria bat dela iruditzen zait, baina ni horietako bat naiz.



Karmen IBARRA → Euskaltegian euskaraz alfabetatu den gurasoa

elika
Dietetikoa eta nutriçioa

- Alkalmazte dietetiko
- Nutriçioa pertsonalizatua
- Dietari buruzko galdak
- Dietari buruzko aholkuak
- Dietari buruzko aholkuak
- Dietari buruzko aholkuak
- Dietari buruzko aholkuak

Jose Antonio Latorre
Bera, 6. beheko • BERA • T. 948 631 263 • elikabera@hotmail.com

carrho
guzuzko elikagaiak

Elkarrizketa 28 berriz
34 92 284 94 94

498 630 786
www.carrho.net

JARRIT - GORTEGIA

948 630 786
Aitzola, 19 • BERA

948 631 218
Kantillonberr 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

José I. González Enguit
Nutriçioa

Elkarrizketa 28 berriz
tel. 666 235 400

KOXKONTA Jatorria

Elkarrizketa eta asistentzia merkeak,
korta, elkarrizketa berriak,
jantzerietarako berriak...

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 889 801 657
Olsanga autoa, 1 • LESAKA

GIZARTEA

GIZARTEA → EKONOMIA

Sindikatu nagusiek greba orokorrera deitu dute irailaren 26an

Eskualdean hainbat mobilizazio eginen dira

TTIPI-TTAPA

«Inoiz baino arrazoi gehiago» daudela iritzita, grebarako deia egin dute ELA, LAB, ESK, CNT, CGT, EILAS, Hiru eta EHNE sindikatuek eta hainbat eragile sozialetako ordezkariak. Irailaren 26rako egin dute greba orokorrerako deialdia, eta deitzaileen arabera, martxoaren 29ko greba orokorraren segida izanen da: «orduak lan erreformari erantzun sendoa eman zitzaion, eta Espainiako Gobernuak uztailaren aurkezturen murrizketek ere tamainakoa eman behar zaio». Aitzinero greban ez bezala, CNT eta CFT sindikatuek ere bat egin dute greba honekin.

MOBILIZAZIOAK
ESKUALDEAN

Herri mugimenduak deitua UPNren egoitza parean, murrizketen kon-

tra kontzentrazioa eginen da ortzirean, hilak 21, 19:00etan. LABek deialdiarekin bat egin du, baina ELAk ez.

Irailaren 24an 12:00etan kontzentrazioa eginen da Doneztebeko Enplegu Bulegoaren parean ELA eta LABek deituta. Eta greba egunean, manifestazioak eginen dira herri mugimenduak deituta: Beran Funveratik abiatuko da eta Elizondon Lur dantzaleku-



Martxoaren 29ko grebaren segida izatea nahi dute sindikatuek.

tik. 12:00etan izanen dira. Arratsaldean, gehien-

go sindikalaren manifestazioa eginen da Donez-

teben, 17:30ean Avia gosalindegitik abiatuta.

Langabe kopurua bikoiztu egin da azken bost urteotan

Langabe kopurua berriz ere igo egin da, eta inoizko abuzturik txarrena izan da eskualdean. Doneztebeko Enplegu Bulegoko datuen arabera, uztailaren baino hiru langabe gehiago erregistratu dira abuztuan, eta guztira 1.190 langabe dira, 2003az geroztiko datuak aintzat hartuta, abuztuko hilabetean se-

kula izan den gehiena. 2004an, adibidez, 478 langaberekin itxi zen abuztua.

Hego Euskal Herrian ere igo egin da langabezia eta 208.477 langabe daude.

ADINA ETA ALORRAREN ARABERA

Oraingo 1.190 langabe horietatik, 25 urtetik beheko gizonez-

koak 81 dira eta emakumezkoak 45. 25 urtetik goitiko gizonezkoak, 529 dira eta emakumezkoak 535. Gainerakoan, zerbitzuen alorrak segitzen du langabe kopururik altuena izaten, 746 lagunekin, industrian 190 langabe daude, eraikuntzan 163 eta nekazaritzan 29. Lehendik lanik gabe zeudenak, berriz, 62 dira.

| URTEA | LANGABEAK |
|-------|-----------|
| 2003 | 533 |
| 2004 | 478 |
| 2005 | 633 |
| 2006 | 585 |
| 2007 | 539 |
| 2008 | 595 |
| 2009 | 940 |
| 2010 | 1.105 |
| 2011 | 1.095 |
| 2012 | 1.190 |

*Abuztuko datuak

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

BAR BOTXO OSTATUA
Zabala • BERA • 948 630 052

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Txi/Fax: 948 630 018
Kastibonbarri 12 • BERA

Karsuk®
Muebles de cocina
Muebles de cuisine
Sukaldako altxariak
Carlos Pontibar Saenz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 894 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

Leizola
Sukaldako
Altxariak
KARSAK®
Bereko gaitz 30 3070 Leizola
T: 948 637 514

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

IGANTZIKO bestak 2012

irailaren 22an eta 23an eta 28tik urriaren 1era



**Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**



Jose Canabal
Instalazio elektrikoak
erokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK**

ONGI PASA BESTAK!!

T. 666 57 58 99 • 948 638 039
IGANTZI
josecanabal@telefonica.net

Carlos Txoperena
mendiko garbikerak eta landaketak
ITXITURAK

*Ongi pasa
Sanmigela!!*

Tel. 948 637 477
637 486 124
LESACA

Canon **Bidasoa**
26 urte

Multifuncionak
Ordugailuak
Fotokopiatzaileak
Kantxerak

Ongi pasa bestak!

Santiago kalea 7,
Irunen

info@cbo-bidasoa.es
943 631818

LA VILLA
JATETXEA



Ortzirala, larunbata eta
igandetan afariak

ONGI PASA BESTAKI

K. Nagusia, 14 - IGANTZI (Nafarroa)
T. 948 637 290



IGANTZIKO
bestak 2012

Imanol RETEGI | Igantziko kultur zinegotzia

«Hesia legedira egokitzeko diru aunitz behar zenez, aurten ez da betizurik izanen»

Bigarren Sanmigel bestak izanen dira Imanol Retegirentzat Herriko Etxean zinegotzi lanean. Bestak bizitzeko modua ere zertxobait aldatzen dela onartu du, **«lan gehixea- go egin behar delako»**. Halere, kasik urte eta erdi honetako balorazio ona egin du, **«ahal dena egiten saiatzen gara eta ahal den hobekien»**. Aurtengo Sanmigel bestek iaizo aurrekontu berdintsua izanen dutela aipatu digu kultur zinegotziak eta programako nobedadei dagokienez, **«nobedade nagusia, ez dela betizurik izanen da. Betizuak egin ahal izateko, diru aunitz gastatu beharra genuen hesia orain legeak eskatzen duen modura jartzeko. Eta hortaz, erabaki dugu aurten ez egitea»**. Horren truke, besten aitzineko asteburua aunitz indartzen ari da azken urteetan. Lehen, kasik artzain zakur lehiaketa bakarrik izaten zen eta aurten, 33. edizioa beteko duen ekitaldi horretaz gain, bertze hainbat izanen dira: **«Bai, orain besta aitzineko asteburua ekitaldiz betea dago, plater tiroketa, dantzak, bertso afaria, artzain zakur lehiaketa... lehen bestetako programan sartzen ziren gauza batzuk asteburu horretan egiten dira»**, aipatu digu Retegik. Irail hondarrean ospatuko diren bestak antolatzen hasteko uda hasieran biltzen hasten dira Igantzin. **«Ekain aldean –dio zinegotziak– udaleko besta batzordekoak biltzen hasten gara eta programaren bozeto bat egiten dugu. Behin hori egin eta gero, bilerak irekiak antolatzen ditugu eta denen artean antolatzen ditugu bestak. Adin guztietako jendearentzat besta onak antolatzen saiatzen gara»**. Txupinazoa nork botako duen erabakia dute, baina ez du aitzineratu nahi: **«Ez da lan errexa izaten, izen edo talde batzuen artean bat aukeratzea, baina aurten nahiko argi genuen. Nork botako duen jakiteko, San Migel bezperan Igantzira etorri, trago pare bat hartu eta 20:00etan ikusiko duzue nork botako duen!»**. Imanoli, pertsonalki, **«ortzileko kontzertuak, herri bazkaria eta herri kirolak»** dira gehien gustatzen zaizkion ekitaldiak eta posible izanez gero, **«elektrotzaranga bat ekartzea gustatuko litzaidake, bi urtez saiatu gara ekartzen, baina ezin izan da»**.



OKILA
zuzenlodegia

- larrak, lehiak, gisak, antolatzaileak
- ezberdako lanak onkorrean

Luisen Sain
Mikel Arburua



On egin janak eta kalterik ez edonak!

948 637 249 • Piedade gaina z/g
IGANTZI

TXARTELAK
Kartulina berria 400g. + 2 olatu koloretan + BEZa berriz



50092€
bisita txartel

1000 txartel 79€ + 1000 txartel 88€
1000 txartel 114€

ttipi-ttapa

ARRAZKETA ERRETA S. L. LESACA
948 637 486 • kultur@ttipi-ttapa.com
www.ttipi.net • www.kulturak.com



EGITARRAUA

Irailak 22 larunbata

11:00 Ajoarriero lehiaketa eta dastaketa frontoian. Bakoitzak behar duen guztia eraman behar du. **16:00** Plater tiroketa Ziobin. **20:00** Herriko dantzarien emanaldia. **22:00** Bertso afaria.

Irailak 23 igandea

11:30 Txistulari eta trikitilarietako kalejira. **12:00** Haurren arteko herri kirolak: Igantzi-Basaburua-Bera taldeen arteko proba konbinatuak. **12:00** IX. gazta lehiaketa. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **16:30** XXXIII. Artzain Zakur Txapelketa. **16:30** Gorriti eta bere animaliak aparkalekuan. **18:30** Kankailu eta buruhaundietako herrian barna kalejira. **19:00** Sagardo besta, gazta eta opila dastaketa, eta trikitixa emanaldia.

Irailak 28 ortzirala SAN MIGEL BEZPERA

16:00 Mus eta partxis lehiaketak, Biltoki Tikik antolatuta. **17:00** Zirko tailerra haurrentzat. **18:30** Dantza-jazz ikuskizuna frontoian. **19:30** Elkartasun brindisa txosnan. **20:00** altxaferoa. **Ondotik** kankailu eta buruhaundietako txarangarekin herrian barna kalejira. **00:00** kontzertuak: ERRU GABE, INGO AL DEU? eta BAD SOUND SYSTEM taldeekin.

Irailak 29 larunbata SAN MIGEL EGUNA

10:30 Txistulari eta ezpatadantziaren herrian barna. **11:30** Meza Nagusia herriko abesbatzak kantatua. **Ondotik** Ikurrin agurra plazan eta herriko ezpatadantziaren saioa. **18:00** herri kirolak: Nafarroako Harri Altxatze Txapelketa eta herritarren arteko desafio mundiala. **20:00** zinema euskaraz tenis pistana: *Eragon* pelikula (adin guztietako jendearentzako). Eguraldi txarra eginez gero, gimnasioan. **00:00** DJ ALKAPE.

Irailak 30 igandea

10:00 Kalejira gaiteroekin. **11:00** Herriko pilotarien arteko partidak. **12:30** Toka txapelketa frontoian. **12:30** Triki-poteoa. **16:30** Kalejira kankailu eta buruhaundietako. **17:00** Emakumezkoen pala partida: Susana Muneta eta Maite Ruiz (Iruñekoak eta gaur egungo munduko txapeldunak), lera Agirre eta Maider Mendizabalen aurka (leitzarria Euskal Herriko txapelduna eta anoetarria munduko txapelduna). **18:00** Pilota partida: Koka eta Goñi III.a, Antxia eta Beñat Mitxelenauren kontra. **19:30** Muxikoak frontoian. **20:00** Zinema euskaraz tenis pistana: *Cher ami... eta ni* pelikula (adin guztietako jendearentzako). Eguraldi txarra eginez gero, gimnasioan. **21:30-00:30** AIERRIK taldearekin dantzialdia.

Urriak 1 astelehena

10:00 Kalejira txistulari eta trikitilarietako. **10:00** Puzgarriak frontoian. **12:00** Grand Prix: herritarren arteko jokoak txarangak alaituta. **14:00** Haurren herri bazkaria zentroan. **14:00** Herri bazkaria Baratzondon, Andoni Egaña eta Sustrai Colina bertsolarietako eta txarangarekin. **15:00** Puzgarriak. **20:00** suzko zezena. **21:00** Dantzaldia JOXEANJELekin.



CORA SAN MIGELAKI
600-2-2ud
SIPRENTA - HOPPEREKO
948 631 521
Material: 2012ko Irailaren 20an Osoan
Bazterreko 2. sasoira arte irriburua

yanci
Nafarroa
ONGI PASA BESTAKI

OSKAR TXOPERENA
asegurua
Tel: 810507578

JOSE AGERRE
pinturak
PINTURA LANAK
OROKORREAN
Korpe eta barreko pintura
Barnizatzeko eta lakatzekoak
Parket Flotatzailak jartzen ditugu
810 221 528
BERRIZALIN

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANO: TELATZUEA BIDEA
Tel. 948 63 74 60
31779 Lesaka (Nafarroa)
Gas-olioa etxeko etxe banatan da
Kotxe berri eta zaharren salmenta
BESTA EDERRAK PASA !!

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK
Guzti osoa berriz
Pedadeko suzoa: 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 • 616 90 18 10

HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

Baliabide murrizketekin hasi da ikasturte berria

TTIPI-TTAPA

5.109 ikaslek ekin diote ikasturteari Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzaldea, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen, joan den urtean baino 194 gehiagok. Hizkuntza ereduetan, D ereduak segitzen du ikasleen aukera nagusia izaten, nabarmentzen. Ikasturte honeta-

ko nobedadea Nafarroako Gobernuak egin dako murrizketak dira. Lanordu gehiago dituzte irakasleek (haur eta lehen hezkuntzan 23 ordu lektibotik 25 ordura, bigarren hezkuntzan 18 ordutik 20 ordura). Zerbait ikastetxetan irakasle guttiago dira eta gelako ikasle kopurua ere igo egin da batzuetan.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

| BIGARREN HEZKUNTZA | | | |
|---|------------|------------|------------|
| | A eredua | B eredua | D eredua |
| BAZTAN | 39 | 0 | 254 |
| Lekaroz-Elizondo | 39* | | 254* |
| * 5 ikasle behar bereziko taldekoak dira. | | | |
| BORTZIRIAK | 20 | 32 | 263 |
| Arantza IP | | | 6 |
| Bera (Toki Ona) | 20 | 32 | 224* |
| Bera (Labiaga Ikastola) | | | 33 |
| * 3 ikasle behar bereziko taldekoak dira. | | | |
| LEITZALDEA | 0 | 0 | 153 |
| Goizueta | | | 11 |
| Leitza (Amazabal) | | | 142 |
| MALERREKA | 7 | 0 | 171 |
| Doneztebe (Mendaur) | 7 | | 171 |
| XARETA | 161 | 71 | 7 |
| Senpere (Arretxea) | 161 | 71 | |
| Urdazubi-Zugarramurdi | | | 7 |
| GUZTIRA | 227 | 103 | 848 |
| 2012-2013 Guztira: 1.178 | ↑ | | |
| 2011-2012 Guztira: 1.107 | % 6,03 | | |

BATXILERGOA

| BATXILERGOA | | | |
|------------------------|-----------|----------|------------|
| | A eredua | B eredua | D eredua |
| BAZTAN | 15 | 0 | 127 |
| Lekaroz-Elizondo | 15 | | 127 |
| BORTZIRIAK | 0 | 0 | 91 |
| Bera (Toki Ona) | | | 91 |
| LEITZALDEA | 0 | 0 | 44 |
| Leitza (Amazabal) | | | 44 |
| GUZTIRA | 15 | 0 | 262 |
| 2012-2013 Guztira: 277 | ↑ | | |
| 2011-2012 Guztira: 235 | % 15,16 | | |

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2011/2012

| | HAUR HEZKUNTZA | | | LEHEN HEZKUNTZA | | |
|--|----------------|------------|------------|-----------------|------------|--------------|
| | A eredua | B eredua | D eredua | A eredua | B eredua | D eredua |
| BAZTAN | 10 | 0 | 247 | 35 | 0 | 480 |
| Almandoz IP | | | 3 | | | 13 |
| Amaiur IP | | | 9 | | | 22 |
| Arizkun IP | | | 13 | | | 35 |
| Arraioz IP | | | 2 | | | 14 |
| Azpilkueta IP | | | 0 | | | 7 |
| Baztan Ikastola | | | 66 | | | 115 |
| Elizondo (S. Fco. J.) | 10 | | 80 | 35 | | 155 |
| Erratzu IP | | | 14 | | | 24 |
| Gartzain IP | | | 4 | | | 9 |
| Irurita IP | | | 27 | | | 46 |
| Oronoz IP | | | 17 | | | 28 |
| Ziga IP | | | 12 | | | 12 |
| BERTIZARANA | 0 | 0 | 18 | 0 | 0 | 18 |
| Legasa IP | | | 10 | | | 2 |
| Narbarte IP | | | 8 | | | 16 |
| BORTZIRIAK | 8 | 15 | 270 | 13 | 48 | 479 |
| Arantza IP | | | 15 | | | 33 |
| Bera (Ricardo Baroja) | | | 70 | | | 117 |
| Bera (Labiaga Ikastola) | | | 52 | | | 95 |
| Bera (Jesusen Bihotza) | 8 | 15 | | 13 | 48 | |
| Etxalar IP | | | 19 | | | 53 |
| Igantzi IP | | | 19 | | | 43 |
| Lesaka (Irain IP) | | | 48* | | | 78 |
| Lesaka (Tantirumairu) | | | 47* | | | 60 |
| * 2 urtekoak barne | | | | | | |
| LEITZALDEA | 0 | 0 | 119 | 0 | 0 | 240 |
| Areso IP | | | 11 | | | 13 |
| Goizueta IP | | | 20 | | | 43 |
| Leitza IP (Erleta) | | | 88 | | | 184 |
| MALERREKA | 1 | 4 | 166 | 11 | 8 | 291 |
| Beintza-Labaien IP | | | 1 | | | 7 |
| Doneztebe (S. Migel) | 1 | 4 | 110 | 11 | 8 | 201 |
| Ituren IP | | | 19* | | | 35 |
| Saldias IP | | | 2 | | | 3 |
| Sunbilla IP | | | 34 | | | 45 |
| * Iturengo eskolan, 5 urtekoak LHko 1. mailakoekin daude | | | | | | |
| XARETA | 83 | 173 | 92 | 167 | 200 | 114 |
| Sara (Publikoa) | | 14 | | 4 | 26 | |
| Sara (St. Joseph) | | 59 | | 17 | 36 | |
| Sara (Olhain Ikastola) | | | 38 | | | 42 |
| Senpere (Publikoa) | 28 | 70 | | 62 | 78 | |
| Senpere (Amotz publ.) | 25 | | | 44 | | |
| Senpere (Zaldubi ikas.) | | | 38 | | | 43 |
| Senpere (St. Joseph) | 30 | 30 | | 40 | 60 | |
| Urdazubi-Zugarramurdi | | | 16 | | | 29 |
| GUZTIRA | 102 | 192 | 912 | 226 | 256 | 1.622 |

HEZIKETA ZIKLOAK

| | HEZIKETA ZIKLOAK | | | |
|------------------------|------------------|-----------|-----------|------------|
| | Prest. | HL KP | Erdi M. | Goi M. |
| BAZTAN | 14 | 23 | 56 | 30 |
| Lekaroz-Elizondo | 14 | 23 | 56 | 30 |
| BORTZIRIAK | 0 | 0 | 27 | 33 |
| Bera (Toki Ona) | | | 27 | 33 |
| XARETA | 0 | 0 | 0 | 161 |
| Senpere (Laborantza) | | | | 161 |
| GUZTIRA | 14 | 23 | 83 | 224 |
| 2012-2013 Guztira: 344 | ↑ | | | |
| 2011-2012 Guztira: 302 | % 12,21 | | | |

HAUR HEZKUNTZA

| | |
|------------------|--------|
| 2012-2013: 1.206 | ↑ |
| 2011-2012: 1.178 | % 2,32 |

LEHEN HEZKUNTZA

| | |
|------------------|--------|
| 2012-2013: 2.104 | ↑ |
| 2011-2012: 2.093 | % 1,67 |

HIZKUNTZA EREDUAK

| | |
|----------|-----------------|
| A eredua | Erdara hutsean |
| B eredua | Mistoa |
| D eredua | Euskara hutsean |

LANA → MURRIZKETAK

Soldata-gastuak murriztu eta lanaldia luzatu egin nahi ditu Arcelorrek

Soldata-gastuak %25 guttitzeko asmoa iragarri du enpresak

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 31n bukatuko da Arcelor Mittal enpresan orain indarrean dagoen lan hitzarmena, baina zuzendaritzak dagoeneko iragarri du Espainiako Gobernuak joan den otsailan onartutako lan erreformari probetxua atara nahi diola. Hori gertatuko da aitzinetik akordiorik lortzen ez bada,

eta antza, ez du itxura haundirik. Ajuste edo doikuntza plan gogorak iragarri dituzte enpresatik.

Zuzendaritzak proposatu duenaren arabera, estatu espainiar guztiko Arcelorrek lan-gileen soldatak izoztu egin nahi ditu heldu diren hiru urteetarako. Horrez gain, urtean hamabi egun gehiagoz lanaldia luzatu nahi die. Soldata-kostuak %25 jeitsi nahi ditu Europa hegoaldean altzairuak ahalmenik ez duela artatuz eta bertzetik, gaur egungo produkti-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arcelorren Legasako lantegia.

bitate-sari edo prima fin-koak aldakorrek in ordezkatu nahi ditu, eta horrek soldatak murriz-

ketak ekar ditzake. Gisa berean, antzinasun osagarria izozteko asmoa aitzineratu du.

Egun hauetan langileen ordezkarietarako epea zabalik dago.

HEDABIDEAK

TARIFAK → ZERGEN IGOERA DELA ETA

TTIPI-TTAPAK ez ditu altxatuko publizitate eta harpidetzen prezioak

BEZaren igoerak dakarren kostu gehigarria bere gain hartuko du

TTIPI-TTAPA

BEZaren igoerak berezengan eraginik izan ez dezan, prezioei eustea erabaki du TTIPI-TTAPAK. Publizitate tarifei eta harpidetza kuotei eragiten die BEZaren igoerak, bi kasu hauetan %18tik %21era

igo baita zergaren tasa espainiar estatuan. Hala ere, 2012an onartutako prezio eta tarifek bere horretan segituko dute urtea bukatu arte.

ORRIALDE OSOKO PUBLIZITATEA 6 ZENTIMO AZPITIK

Bertze edozein euskarri-publizitariorekin konparatuz gero, TTIPI-TTAParen publizitate tarifik izugarri konpetitiboak dira. Eta baieztapen hori frogatzeko zenbakien nondik-norakoak argitzea da hobe-

rena. TTIPI-TTAPAK 6.000 aleko tirada du eta CIESe 28.000 irakurle aitortu dizkio 2012ko lehen neurketan. Hartara, orrialde osoko publizitatearen kostua (345 euro BEZ barne) 6.000 aleren artean zatituz gero, orrialde bakoitzaren kostua aleko 0,057 zentimokoa dela ateratzen da, kolorezko fotokopiarik merkeena baino 10 aldiz merkeago, gutienez. Eta kolorezko fotokopia hori norbaitek etxex-etxe banatu nahiko balu, ba-

naketaren kostua ere erantsi beharko lioke kopiatuaren gastuari.

HARPIDETZAK ETA TTIPI TXARTELA

Harpidetzen prezioak eta Ttipi Txartelarenak ere ez dira garestituko aurten. Urtarriletik abendura argitaratzen diren 24 zenbakien gatik 32 euro ordaintzen dira Malerreka, Baztan, Bertizarana eta Urdazubin. Leitzako harpidedunen 16 euro ordaindu dute aurten urte osoko harpidetzagatik eta es-

kualdetik kanpo hego Euskal Herrian eto Espainian bizi direnek, aldiz, 38 euro. Ipar Euskal Herrian, berriz, 56 euro.

Ttipi Txartela egitea erabakitzen dutenek, ordea, abantaila gehiago dituzte (aldizkaria doan, erosketak merkeago, zozketak...). Hasieran 40 euro ordaintzen dute baina Errentaren Aitorpena egitean Nafarroako Gobernuak 10 euro itzultzen dienez, harpidetza soila egitea baino errentagarriago ateratzen da azkenean.

BERA

KULTURA → GURE TXOKOA ETA LABIAGA IKASTOLA

Dantzari Ttiki Eguna eta Bortzirietako Haurren Eguna irailaren 29an

TTIPI-TTAPA

Egun bete izanen da irailaren 29a, hitzordu bat baino gehiago izanen baitira. Alde batetik, Dantzari Ttiki Eguna antolatu du Gure Txokoa Dantza Taldeak. 10:00etan bertze herrietako dantza taldeei harrera eginen die eta hiru multzotan banatuta kalejiran ibiliko dira Legia, Burga plaza eta Agerran. 12:30 aldera denak elkartu eta jaialdia eskainiko dute eta gero, kanpoko dantzariak herriko dantzarien etxeetara joanen dira bazkaltzera. Euria eginez gero, ekitaldiak Eztegarra frontoian eginen dira.

Bertzetik, aurten lehenbiziko aldiz eginen den Bortzirietako Haurren Eguna ere egun horretan ospatuko da. Labiaga Ikastola ari da antolatzen eta egun osoko besta prestatu dute: 10:00etatik 19:00etara puzgarriak, bideo kontsolak eta puzzle erraldoiak izanen dira eta 16:00etatik 19:00etara Irrien Lagunak zirko eskola ere bai. Xehetasun gehiago 3. orrialdean.

BTT ibilaldia

Aurten ere mendi bizi-kleta ibilaldia antolatu du Gure Txokoa Elkarteak. Igandean, hilak 23, izanen da. Hiru ibilbide izanen dira aukeran: helduentzat bi eta haurrentzat bat. Ibilbidearen xehetasunak 49. orrian aurkituko dituzue. Gainerakoan, aipatu, izen-emateak

Matzadan egin beharko direla 08:00etatik 09:30era. Bazkide edota federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bertzeek 15 euro. Haurrek, berriz, 5 euro. Izena ematen duten lehendabiziko 250 parte hartzaileei opari poltsa emanen zaie eta bukaeran, partaideen artean Katea-Bikek oparitutako bizkleta eta Larun Haizpe merkatarien elkarteak emaniko opariak zozketatuko dira.

Bertso eskola

Helduen eta haurren bertso eskolak paratu nahi ditu martxan Bortzirietako Bertso Eskolak Beran. Helduetan maila desberdinak eskainiko dira eta 8-14 urtekoetan, seiko taldea elkartzen bada emanen da ikastaroa. Izena emateko 618 963011ra deitu edo bertso@ttiki-ttapa.com helbidera idatz daiteke, hilaren 30a baino lehen.

Kinto bazkaria

1972an jaiotako herri-tarren kinto bazkaria egiten da urriaren 6an. Interesatuek urriaren 2a baino lehen Zalain jatetxean eman beharko du izena, 10 euro utziz.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Herriz Herri Txapelketako txapel bat lortu du Berako taldeak

Nafarroako Herriz Herri Txapelketaren parte hartu du aurten ere herriko taldeak eta Beriozar izan du aurkari. Bi proba konbinatueta aritu dira lehiatzen, lehenbizikoan txokor biltzen, zaku lasterketan, lasterka eta arpanean eta bigarrean lastoa botatzen, txingekin eta ingudearekin. Berako taldea bigarrean nagusitu da.

Espainiako bandera jarraraztea «inposatutako erabakia» dela dio Udalak

Berriki Foru Agindua eta sententzia argitaratu dira Udalaren kontra, Espainiako bandera Herriko Etxean ez paratzeagatik. Foru Agindua abuztuaren 10ean argitaratu zuen Nafarroako Gobernuak, eta duela bi aste jakinarazi zuen Nafarroako epaitegiak estatuko abokatuak Udalaren aurka jarritako salaketaren epaia. Foru Agindua bestetan ikurrina paratu izana eta ez Espainiako bandera salatu zituen, eta sententziak berriz dio iraunkorki egon behar duela Espainiako banderak udaletxean. Biak errekurritu ditu Udalak. Abuztuaren 23ko Udalaren osoko bilkuran, Aralar, Bildu eta EAJren babesarekin mozioa onartu zen. Horren arabera, «bestetan urteak dira Berako ikurra, Nafarroako bandera eta ikurrina paratu izan direla. Tradizioari jarraiki, eta herri honetako gehiengo politikoaren zein sozialaren nahiari erantzunez, aurten ere, ikur horiek egon dira». Espainiako bandera jarrarazi eta ikurrina kenaraztea herriaren gehiengoaren borondatearen kontrako dela dio Udalak, «eta inposatutako erabaki bat den neurrian, ez du aintzat hartzen herri honetako errealitatea». Udal gobernuaren autonomiaren eta herriaren kontrako «eraso larritzat» hartu du Foru Agindua.

Epaiketa bateko prozedura euskaraz egitea debekatu

Liburuzainaren lanposturako Nafarroako Gobernuak hizkuntza perflilik ez eskatu izanagatik epaiketara jo zuen iaz Udalak. Epaiketako prozedurak euskaraz egiteko eskatu zuen, eta Nafarroako Justizia Auzitegiak uko egin ondotik, erabakia errekurritu zuen Udalak. Nafarroako Gobernuak ez zuen iritzirik eman, eta orain epaileak ebatzi du Udalaren eskariak ez duela lekurik. Epaileak ez dio erantzun Udalaren defentsak argudiatutako gaiei, eta Botere Judizialaren Legeak dioena baino ez du bildu. Horren arabera, gaztelania da epaitegi-tako hizkuntza. Erabakiak biltzen du gainerako hizkuntza ofizialak erabili ahal izanen direla bi aldeetako batek espreski ez erabiltzea eskatzen ez badu. Kasu honetan, Udalak espreski eskatu du erabiltzea, eta Gobernuak ez dio eskari horri erantzunik eman. Epaileak interpretatu du gaztelania erabiliko dela eta ez dagoela derrigortua euskara erabiltzera. Erabakia ezin da errekurritu. Udalak epailaren jarrera txarretsi eta justizian euskaraz aritzeko ezintasuna salatu du.

‘Euskaraz bizi nahi dut’ lasterketa larunbatean

Kontseiluaren ekimenez, *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa eginen da larunbatean, hilak 22. Bortzirietan lasterketa bakarra egiten da, Beran. Kiroldegiaren paretik abiatuko da 16:30ean eta Euskara Batzordea burubelari dabil antolatzen. Bortz ibilbide izanen dira: 6 urte artekoentzat 200 m, 7-10 urtekoentzat 500 m, 11-15koentzat 1.200 m, 16-18koentzat 5.000 m eta 18 urtetik goitikoentzat 5.000 m emakumeek eta 7.000 m gizonezkoek. Izena emateko hiru aukera daude: ikastetxean irailaren 20a baino lehen, www.euskarazbizinahidut.org web orrian eta egunean bertan. Haurrek 2 euro ordainduko dituzte eta helduek 5, baina lasterketako kamiseta nahi izanez gero, 5 euro gehiago denek. Zozketak ere izanen dira eta ekitaldi bat ere bai. Manifestu bat irakurriko da eta bertsolariak eta txarangak parte hartuko dute.

USATEGIAK → EHIZA SASOAREN HASMENTA

Sara eta Etxalarko herrien arteko akordioa berretsiko da igandean

Lizarietako lepoan hainbat ikusgarri izanen dira egun osoan

Irune eta Itsaso

Igande honetan, irailak 23, Lizarietako zelaian ospatuko den bestarako egitarau zabala antolatu dute:

- 11:00etatik 13:00etara artisau-lanen erakusketa eta salmenta.
- Usazaleen paleta egite erakustaldi partehar-tzailea.
- Hamaiketakoak.
- Pirinioetako 10 usategien erakusketa.
- Usategien inguruko proiektzioak.
- 12:00etan Sara eta Etxalar arteko hitzarme-

na sinatuko dute bi alkateek.

- 12:30ean Orson Welles-ek usategietan egindako dokumentalaren proiektzioa (1955).
- 13:00etan Sarako dantzarien emanaldia.
- 14:00etan zikiro jatea, Sarako gaitero eta kantu tradizionalekin.
- Ondotik, indar probak.

Bertso eskola

Haurren bertso eskola paratu nahi du martxan Bortzirietako Bertso Eskolak Etxalarren. 8-14 urtekoei eskainiko zaie ikastaroa, seiko taldea elkartzen bada. Izena emateko edo informazioarako 618963011ra deitu edo bortzibertso@gmail.com-era idatzi, irailaren 30a baino lehen.

USO POSTUEN ESLEIPENA

| POSTUAK | TASAZIOA | ERREMATEA |
|----------------|--------------------|--------------------|
| 1. postua | 875 euro | 875 euro |
| 2. postua | 875 euro | 875 euro |
| 3. postua | 2.110 euro | 2.110 euro |
| 4. postua | 1.640 euro | 1.640 euro |
| 5. postua | 2.110 euro | 2.110 euro |
| 6. postua | 1.640 euro | 1.640 euro |
| 7. postua | 2.110 euro | 2.110 euro |
| 8. postua | 3.125 euro | 3.125 euro |
| 9. postua | 2.130 euro | 2.130 euro |
| 10. postua | 2.130 euro | 2.360 euro |
| 11. postua | 3.125 euro | 9.035 euro |
| 12. postua | 1.390 euro | 5.282 euro |
| 13. postua | 1.390 euro | 1.622 euro |
| 14. postua | 875 euro | 875 euro |
| 15. postua | 875 euro | 875 euro |
| 16. postua | 875 euro | Hutsik |
| 17. postua | 875 euro | Hutsik |
| 18. postua | 875 euro | Hutsik |
| 19. postua | 875 euro | 875 euro |
| 20. postua | 1.390 euro | 1.390 euro |
| 21. postua | 1.390 euro | 1.790 euro |
| GUZTIRA | 32.680 euro | 40.489 euro |



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Ikasturte hasiera

Irailaren 10ean eman zioten hasiera 2012-2013 kurtsoari Landagain eskolan. Aurten 72 ikasle izanen dira 7 geletan banatuta: 2 Haur Hezkuntzakoak eta 5 Lehen Hezkuntzakoak. 12 irakasle eta zaintzaile bat izanen dira.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Jauregietako bestak

15 bat urte pasatuak ziren azkeneko Jauregietako bestak ospatu zirenetik, baina aurten berriz berreskuratu eta irailaren 2an izan zen besta. Auzoko gazteek antolatu, gosariarekin hasi zuten eguna. Eguerdian, 60 lagun inguru bildu ziren Mendialdean bazkaltzeko eta ilunabarrera arte iraun zuen bestak kantu eta trikitilariekin.



ARGAZKIA: GARAZI REMON

Antsolokuetako bestak

Irailaren 9an Antsolokueta auzoko bestak ospatu ziren. 2004a geroztik ospatu ez baziren ere, aurten berriz ere jendea gogoz zegoen auzoko bestak aitzinera ateratzeko. 45 lagun bildu ziren presa ondoko aparkalekuan bazkaltzera eta Beñat eta Amaia trikitilariekin eman zitzaizen akabera bestei.

Ikusentzunezkoa
Ortziralean, hilak 21, Gure lurra, gure etorkizu-

na ikus-entzunezkoa eskainiko da Kultur Etxean, 19.00etan, eta ondotik

herriko gazte batzuek abiatutako Herri Baratztea aurkeztuko da.

LESAKA

KIROLA → EUSKAL HERRIAN IRONMANA EGIN DEN LEHEN ALDIAN

Ironbask proba irabazi du Bixente Igartzabalek Donibane Lohizunen

Igerian 70. izan zen, baina bizikletan eta lasterka onena

Aitor **AROTZENA**

Beti Gazteko Bixente Igartzabalek irailaren 8an Donibane Lohizunen antolatu zen Ironbask proba, Euskal Herrian lehen aldiz antolatu den Ironmana (3,8 km igeri, 180 km bizikletan eta maratoia lasterka) irabazi zuen. 107 kirolari atera ziren eta ohikoa denez, Igartzabal ez zen ongi ibili igeriketan. 70. postuan atera zen uretik (1h,17'29"), lehenbizikoa izan zen Remi Dugoujon frantziarretik 28 minutu eta 54 segundura. Bizikletan, aldiz, denborarik onena egin zuen (5 h, 18'11"). Honela, bigarren transiziora bosgarren postuan ailegatu zen.

Oinezko lasterketan, 33. kilometroan harraipatu zuen ordura arte sailkapen buruan zegoen Nicolas Bazile frantziarra eta lehenbizikoa helmugaratu zen (9h, 56'21"). Oinezko lasterketan ere denborarik onena egin zuen Bixentek (3 h, 13' 35"). Nicolas Bazile izan zen bi-

garren, 2 minutu eta segundu batera eta Aviron Bayonnais taldeko Philippe Petrisans izan zen hirugarren, 6 minutu eta 47 segundura.

Gisa honetara, Bixente Igartzabalek bukatutzat eman du denboraldi bikaina. Altriman proban bigarren izan zen, seigarren Quebrantahuesosko Triatloian eta 24. Elbrunman proba famatuan.

Bertso Eskola

Helduen, gazteen eta haur edo gaztetxoentzako taldeetan izena emateko epea zabaldu du Bortzirietako Bertso Eskolak. Lesakan, helduetan bi talde proposatu dira: alde batetik, txapelketako taldea eta bertzetik heldu hasiberriena. Kasu honetan hiru hila-beteko ikastaroa 30 euro kostako da. 15-18 urteko gazteek ere izanen dute aukera, ikasturte osoa 60 euro ordainduta eta 8-14 urteko haurrei ere ikastaroa eskainiko zaie, ikasturte osoa 60 euro ordainduta. Izena emateko edo informazio gehiagorako 618 963011ra deitu edo bortzibertso@gmail.com -era idatzi. Irailaren 30a izanen da azken eguna.

Argazki lehiaketa

Aurten ere argazki lehiaketa antolatu du Beti Gaztek. Afizionatu guzietz har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazte elkartearen (*Beheko Plaza 9, 31770 Lesaka*), ohiko sistema erabiliz.

Argazkien gaia librea izanen da. Paperean egindako argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digitalki manipu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bixente, helmugara hurbiltzen Donibane Lohizunen.

latu gabeak. Argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen, JPEG formatoan, 300 pppko gutti-neko bereizmenarekin. Egile bakoitzak gehieenez hiru argazki aurkeztu ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako bakoitzak gehieenez 30x40 cmko kartulinean jarri-ta egon beharko duen. Lau sari emanen ditu


Beti Gaztek. Lehenbizikoa, 300 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrena 200 euro eta trofeoa. Gainera, herriko egileen artean argazkirik onenari 150 euro eta trofeoa emanen zaio eta sari berezia, trofeoa izanen da kirol argazkirik onenarentzat. Epaimahaiak azaroaren 12an emanen du erabakia eta azaroaren 12tik abenduaren 2ra, erakusketan izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan.




UTZITAKO ARGAZKIA

Giro ederrean joan ziren Bittiriko bestak

Irailko bigarren asteburuko hitzorduari ez zioten hutsik egin Bittirian eta bestak izan dituzte aurten ere. Ortziraleko patata tortilla lehiaketan 8 bikotek hartu zuten parte. Larunbatean, haurren herri krosaren ondotik, bertso eskolak giro-tako bazkarian bildu ziren auzotarrak eta gero herri olinpiadak egin zituzten. Igandean jokoak, Txan magoaren ikuskizuna eta trikitixa jaialdia izan ziren.



Artikulu honetan, Lesakako **Acorn Languageseko** Jez Quinton ingeles-irakasleak atzerriko hizkuntzak ikasteari buruz aunitzetan egiten diren zenbait galderari erantzunen die. Jez ingelesa da, eta Londoneko Unibertsitatean eskuratu zuen Irakasle-titulua.



Bortziriak oso famatuak dira beren paisaia naturalarengatik; zergatik ez egin atzerriko hizkuntzen eta arbolen arteko konparazio bat? Basoan, ezkurak erritmo desberdinetan hazten dira, faktore aunitzen arabera. Bakoitza bat eta bakarra da. Forma eta tamaina desberdinak lortuz hazten dira, nahiz eta badituzten gauza antzeko aunitz. Gauza bera aplikatzen ahal zaigu guri guzietan eta ikasteko dugun moduari. Horregatik aukeratu dugu *Acorn* izena (Ezkurra, euskaraz) hizkuntza ikasteari buruz dugun ikuspuntua islatzeko.

Zer gomendatzen duzu haurrentzat? Ikasten dute gure haurrek beren ama-hizkuntza gela batean gramatika-ariketak eginez? Ez dut uste, ezta? Ikerketek diote haur gazteenek badutela "trebetasun natural bat" hizkuntza berri bateko hotsak ikasteko; beraz, gaztetan sorterriko irakasle batekin hasteak abantaila ematen die, batez ere ahoskeran. *Acorn Languagesen*, 4 eta 10 urte bitarteko haurren kasuan, enfasia jartzen dugu jarduera esperimentaletan, non, sorterriko irakaslearekin batean, hizkuntza erabiltzen baitute ikasliburu baten testuinguruaren barruan. Horrek aukera ematen die etorkizuneko ikaskuntzaren *sustraiak* errotzeko, atzerriko hizkuntzaren hotsak bar-

neratzeko eta *ikasteko gogoa* pizteko. Uste dugu ideala dela astean eskolaz kanpoko saio bakarra egitea. Astean eskola-ordu gehiago izanda, ez dute nahitaez gehiago ikasiko. Hauxe da gure helburua: haurrek hizkuntzarekiko eta, oro har, ikastearrekiko harreman positiboa sortzea. **Eta 11 urtetik goitiko haurrentzat eta gaztetxoentzat?**

Bigarren Hezkuntzara joaten direnerako ongi prestatzeko eta han eskatuko zaien ikasketa-erritmoa eskuratzeko, hobe da astean bi saio egitea; bi saio horietan, aukera izanen dute hizkuntza-ezagutza eta trebetasun komunikatiboa hobetzeko eta eskolan landutakoa osatzeko. Gaztetxoentzat, honako helburu hauek jarriko genituzke DBH bukatzen dutenerako: *First Certificate* gisako hizkuntza-trebetasunak eta kualifikazioak lortzea eta prest egotea XXI. mendeko komunitate globalean datozkion ikasketetarako edo lan-bizitzarako.

Eta helduentzat, sobera berandu da ikasteko?

Bidaletan erabiltzeko, lanerako nahiz *bobby* gisa, inoiz ez da sobera berandu ikasteko. Kontua da denbora antolatzea eta saiatua izatea, eta guk, horretan, ahal dugun guzian lagundu nahi diegu gure ikasleei. Egia da, halaber, krisialdi ekonomikoa dagoen garaian atzerriko hiz-

kuntzetan mintzatzen dakien jendeak badiela abantaila hagitzen handia lana aurkitzeko, gero eta enpresa gehiagok eskatzen baitute kualifikazio ofiziala.

Eta zer uste duzu hizkuntzak ikasteara atzerrira joateari buruz?

Atzerrian hizkuntza batean erabat murgilduta, batetik, aitzinera egiteko bultaldia lortzen dugu eta, bertze alde batetik, motibazioa eta norberaren buruko garapena pizten dira. Gure gomen-dioa da, posible izanez gero, atzerriko ikastarora bakarrik joatea, nazioarteko esperientziari erabateko probetxua ateratzeko. Bertze kultura bat ezagutzeak eta mundu osoko ikasleekin harremanak izateak gure bizitza aldatzen ahal dute.

Atzerriko hizkuntza bat ikasteko, denbora aunitz eta esfortzu handia behar dira; izan ere, normalean, bi eta hiru urte bitartean behar ditugu gure ama-hizkuntzan solasean hasteko. Baina, beren helburuak lortzen dituzten horientzat, izugarri esperientzia pozgarria eta aberasgarria da. Guk sentsazio hori bizitzen laguntzen ahal dizugu. Ikaskuntza arrakastaz gertatzeko baldintza hoberenak zuen eskura jarri nahi ditugu, eta seguru gaude gu guziodun gai garena atzerriko hizkuntza bat ikasteko!



Acorn-i buruz: **Acorn Quality Language Learning**

Lesakan dagoen hizkuntza-eskola bat da; han, ikastaro mota aunitz eskaintzen ditugu, hainbat hizkuntzatan, hala nola ingelesez, frantsesez, euskaraz, alemanez eta txineraz, eta, horrez gain, atzerriko ikastaroak urte osoan zehar. Informazio gehiagorako, jarri gurekin harremanetan:

Koskontako bidea, 11 behea
LESAKA | T. 948 637 145
www.acornlanguages.com
info@acornlanguages.com



Jarraitu iezaguzue...



ARANTZA

HEZKUNTZA → 2012/2013 IKASTURTEA

54 ikaslek eta 11 irakaslek hasi dute ikasturte berria

Aurten Haur Hezkuntzako bi talde izanen dira

Nerea ALTZURI

54 ikaslek eta 11 irakaslek ekin diote ikasturte berriari herriko eskolan. Horietatik 15 ikasle Haur Hezkuntzan hasi dira eta lehen aldiz eskolara doazenak sei dira: Ekiñe, Helene, Irati, Xabi, Asier eta Beñat. Haur Hezkuntzan, 15 ikasleekin, bigarren irakaslea tokatzen da eta hala, aurten, Haur Hezkuntza bikoiztua geldituko da. Alde batetik, 3 urtekoak ariko dira eta bertzetik, 4 eta 5 urtekoak.

Lehen Hezkuntzan 33 ikasle dira eta DBHn sei ikasle. Arantzako eskola utzi eta Toki Ona instituturako bidea hartu duten ikasleak Xabi Taberna, Oihana Etxeberria eta Judith Etxeberria dira.

IRAKASLEAK

Klaustroko kideak hauek dira: 3 urtekoen irakaslea Jaione Larreda eta 4-5 urtekoena Juanita Larralde; lehenbiziko zikloan Isabel Danboriena dute irakasle, bigarrenean Gontzal Errandonea eta hirugarrenean Noemi De Mateo. DBHn, berriz, Edurne Saenz de Pipaon (zientziak) eta Haritz Urrea (letrak) dira irakasleak. Azken bi irakasle hauek lizentziatuak dira eta ho-

ri ere berrikuntza da aurten, orain arte maisu-maistrak baitziren bigarren hezkuntzan eskolara ematen zituztenak. Harelere, ez dira lanaldi osoan ari, orduka baizik.

Bertzalde, ingeleseko irakasleak Arrate Egia, Aitor Elexpuru (zuzendaria ere bada) eta Ernesto Delas dira eta soinetakoa Mikel Iriarte.

Eskola batetik bertze-ri ibiliko diren irakasleak ondokoak dira: erlijioakoa Sara Manzano (Lesako eskolatik dator), musikakoa Aiala Grajirena (Berako eskolatik), logopeda Mari Juli Telletxea (Berako eskolatik) eta laguntza irakaslea Agustín Burlada (Igantzik).

MURRIZKETAK

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzan egin dituen murrizketek gure eskolan ere eragina izan dute: irakasleei lansaioak luzatu dizkiete eta irakasle batzuk orduka datoz, eta ez lanaldi osoan.

Bertso eskola

Haurren bertso eskola paratu nahi du martxan Bortzirietako Bertso Eskolak Arantzán. 8-14 urtekoentzat izanen litzateke, beti ere, seiko taldea elkartzen bada. Izena emateko edo informazio gehiagorako 618 963011ra dei daiteke edo bortzibertso@gmail.com era idatzi. Irailaren 30a izanen da azken eguna eta ikasturte osoa 60 euro kostako da.



ARGAZKIAK: MAIDER MITXELENA

Eguzkialdeko bestak

Iraila abiatzeko aukera ezinhobea egin dute aurten Eguzkialdeko auzotarrek. Irailaren 1erako besta iragarri zuen kartel originala ikusi genuen auzoko sarreran: eguzki haundi baten marrazkia, 'aldea' hizkiak eta animatzeko deia... Ba, ez zen auzotar eta herritar gutti animatu. Kontatu digutenez, giro paregabea izan zen auzoko patroia den eguzkia eta beroa lagun. Bazkaltzeko 120 lagun inguru bildu ziren. Seguru hurrengo urterako gogoz gelditu direla!



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Alemanian oporretan

Abuztuaren 21etik 28ra herriko nahiz inguruko herrietako 40 bat lagun Alemanian barna ibili ziren. Martin Legarrak urtero gidatzen duen oporraldi honetan hainbat hiri, herri eta txoko ezagutu dituzte aurten ere eta kontatu digutenez, ez dute aspertzeko astirik izan eta giro ederrean pasatu dituzte opor gidatuak.

Yoga ikastaroa

Joan den urteko talde berdinarekin, urriaren 2an hasiko da yoga ikastaroa eskolako gimnasioan. Asteartetan 19:30etik 21:00etara bilduko dira eta oraindik ere apuntatu nahi duenak 627 395245era dei dezake. Arnasketa ariketak,

ariketa fisikoak eta erla-jazioa izanen dira ikas-

taroen erakutsi eta praktikatuak direnak.

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Impartea eta partekatu

Tel: 661 577 137
E-posta: imanol@iturriria.com

Eduki zurekin batera konpartitu erakutsi

GIZARTEA → EUSKARA

Euskaltegian eta Solaslagunean parte hartu dutenak eskertu ditu Udalak

‘Hegoak’ ikuskizunera gonbidatu ditu Udalak

Joxean ORTEGA/TTIPI-TTAPA

Joan den ikasturtean Igantziko Euskaltegi eta Solaslaguna programan parte hartu zuten ikasle eta boluntarioak ageri dira ondoko argazkian. Eta pozik daude... Zergatik? Ba beraien euskara ikasteko ahaleginari esker, Udaleko Kultura Batzordeak opari ederra egin zielako: irailaren 1ean Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eskaini zuten *Hegoak* ikuskizun paregabeaz gozatzera gonbidatu zituen. Ederra izan zela erran digute eta hagitz ongi pasatu zutela. Noski,



UTZITAKO ARGAZKIA

lazko ikasturtean euskaltegian eta Solaslaguna programan parte hartu zutenak ikus daitezke argazkian, irailaren 1ean Donostiako Victoria Eugenia antzokira egindako ateraldian.

ikuskitzunean eta horren aitzakian, geroko parrandatxoan... Zorionak beraien!

Ea aurten ere Euskaltegia eta Solaslaguna programa Igantzin martxan paratzen ditu-

gun eta ikasle nahiko izaten diren! Anima zaitzte! Euskara ikasteak sariak baditu eta!

Aerobic ikastaroa

Aurten ere aerobic ikastaroa eskainiko da

herrian. Bi saio izanen dira asteen, bakoitza ordu batekoa, bata astelehenean, 18:30ean, eta bertzea asteazkenean, 20:00etan. Bi saioetara joateko aukera izanen da, edo nahi izanez ge-

ro, batera bakarrik (erdia ordainduta). Izena emateko 661 767398ra deitu behar da, irailaren 28a baino lehen.

Haurren bertso eskola

Helduen, gazteen eta haur edo gaztetxoentzako taldeetan izena emateko epea zabaldu du Bortzirietako Bertso Eskolak. Igantzin, 8-14 urtekoen eskainiko zaien ikastaroa paratu nahi da martxan, baina seiko taldea elkartzen bada aterako da aitzinera.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 618 963011ra dei daiteke edo bortzi.beretso@gmail.com-era idatzi. Irailaren 30a izanen da azken eguna. Ikasturte osoa 60 euro kostako da.

BORTZIELAK expert

AURREZTEN hasiko zara zure sukalde berriaren aurrekontua egiterako momentuan

Expert Bortzielak aurrezki berrala OPARITZEN dizugu

%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 | 31780 Bera | 948 630377 | 948 631091 | info@bortzielak.com | www.bortzielak.com

BIDASOA

T.F. 859 971 442 BERA

ATERPE

T. 948 434 119 ARANTZA
www.arantzaital.com

SUNBILLA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

3 urteko 16 haur hasi dira aurten eskolan

Guztira 76 ikasle dira eskolan

Maidar PETRIRENA

Uda akitu eta eskola hasi. Ale honetan hori izanen da seguruenik herri aunitzetan mintzagai. Sunbillan, hiru urteko 16 haurrek eman diote ikasturte berriari hasiera: Iraide, Garaine, Alberto, Lorea, Ekiñe, Nahia, Omar, Ander, Ene-ritz, Xabier, Alain, Xabier, Eneko, Kemen, Nahia eta Oihane dira. Aldiz, borts neska-mutilek utzi dute herriko eskola eta Donetztebeko institutura joan dira DBH egitera. Gainerakoan, guztira 76 ikasle dira Sunbillako eskolan.

Jangela zerbitzua ere irailaren 5ean hasi zen eta horrat 37 haur joan dira.

Ulibeltzak Elkarteak kontuak

Bestak pasatutakoan, Ulibeltzak Elkarteak bilera batera deitu zituen bazkideak, bestetako

kontuak eta bertze afera batzuk jakinarazteko. Irailaren 8an egin zen bilera eta bestak ongi joateaz aparte, aipatzekoa da zazpi bazkide berri sartu direla eta hori pozgarria da. Bazkideak honako hauek dira: Esteban Korta, Pablo Mari-txalar, Mikel Arretxea, Xabier Petrirena, Pello Al-tzuri, Josu Apeztegia eta Leire Sanzberro.

Bide batez, junta-koek jakinarazi dute edozein bazkidek galdera edo aipamen bat egin nahi badu e-posta bat sortu dutela: ulibeltzak@gmail.com. Gisa berean, bestetan laguntza eman zuten eta lanean aritu ziren guztiei ere eskerrak eman nahi izan dizkiete juntakoek.

Labur labur

- Hiru hilabeteren ondotik, irailaren 15ean itxi zituzten igerilekuak.
- Ulibeltzak Mendi Taldeak Goizuetara irteera egingen du larunbatean.
- Yoga eta erlajazio ikas-taroa eskainiko da aste-



ARGAZKIA: NATALIA ARRETXEAA

Ludoteka zerbitzua akitu da

Udako oporrak akitzearekin batera, ludoteka zerbitzuak ere irailaren 4an itxi zituen ateak. Uztailean zazpi haurrek eta abuztuan zortzik izan duten Natalia Arretxea hezitzailearekin egoteko aukera eta bai gurasoak eta bai haurrak kontent gelditu dira. Argazkian abuztuan egondako haurrak ageri dira: Ibai, Joanes, Maialen, Ekiñe, Iraide, Garaine, Miguel eta Magali.



ARGAZKIA: MAIDAR PETRIRENA

Dantza jaialdia ortziralean

Ortziral honetan, irailak 21, dantza jaialdia egingen da 20:30ean. Aurtengoarekin laugarren aldia izanen da eta eskainiko dituzten dantzetako batzuk hauek izanen dira: aureskua, jotak, porrusaldak, *desmayo*, polka, txotis, sorgin dantza...

Iheneetan 19:30etik 21:00etara frontoiko gelan. Hilabetean 30 euro

ordaindu behar da eta klaseak euskaraz eta gaztelaraz izan daitezke.

• Ehiztariak irailaren 1ean eman zioten basurde denboraldiari hasiera.

Martiko
P.N. Casan, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625010 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martiko
Maitasunarekin eta errespetuarekin

DENDA ORDUTEGIA:
asteheneretik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

zalain
RESTAURANTE

Zalain autoa zig
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

zalain

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

F. LANGHAS

Akudialona eta berriztatzailea
Parkes eta parket flutatzailak
Jartza
Mota guztietako solak

Tel: 948 630 755 M: 607 406 781

OSPAKIZUNAK → GAZTE BURRUNBAK ANTOLATUTA

Ekitaldiz beteak datoz ortziral eta larunbatean eginen diren besta ttikiak

Ortziral ilunabarrean botako da txupinazoa

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, ailegatu dira besta ttikiak. As-teburu honetan izanen dira, ortziral eta larunbatean, eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

ORTZIRALA, IRAILAK 21

- 18:00etan haurrentzako jarduerak: aurpegi margotzea, txokolatada...
- 18:00etatik 20:00etara Agerralderekin dantzaldia Santa Luzia plazan.
- 20:00etan pintxoak Santa Luzia plazan.
- 20:00etan txupinazoa botako da Santa Luzia plazatik.
- Ondotik poteoa.
- 00:00etatik 04:00etara Agerralderekin dantzaldia Santa Luzia plazan.

LARUNBATA, IRAILAK 22

- 10:00etan diana txistulariekin.
- 11:00etatik 13:00etara begi lehiaketa: begien argazki erakusketa eta bozketa. Begirik polite-mentzat sariak.
- 11:00etan Gorriti Bear-Zana frontoian.
- 11:00etan mus txapelketa.
- 12:00etan buruhandien irteera.
- 13:00etan triki-poteoa.
- 14:00etan Gazte Burrunbaren bazkaria Beldarra jatetxean.

- 16:30ean asto lasterketa Santa Luzia plazatik hasita. Jokoak ere izanen dira.
- 19:00etan dantza latinoen erakustaldia Bayaderos dantza eskolaren eskutik.
- 19:00etan erremonte partidak, Mariezkurrena, Mendixuri eta Udalak lagunduta. Lehenbiziko partidak, Urrutia II.a eta Zubiri, Ezkurra II.a eta Saldiasen kontra ariko dira 30 tantora; bigarren partidak Urriza eta Aizpurua II.ak, Uterga eta Olazar izanen dituzte kontrario 40 tantora.
- 23:00etatik 06:00etara kontzertuak Santa Luzia plazan: Sutan, Governors, Koma eta DJ Uriz taldeekin.

Erremonteko txapelik ez aurten

Buruz buruko erremonteko txapela aurten ez da herrira etorri. Bi herritar izan dira finalerdietan, Koteto Ezkurra eta Julen San Migel, baina ez batek eta ez bertzeak ere ezin izan dute aitzinera egin. Ezkurra Zeberioaren kontra galdu zuen txapelketako lehenbiziko finalerdian eta San Migelek Urrizaren kontra, bigarren finalerdian.

Errekako berriak

Errekako talde seniorrak dagoeneko badaki lehen fasean arerio izanen dituen taldeak zein diren: Maristas, Bardenas, Anaitasuna, Burlata, Beti Onak, Carcasti-



ARGAZKIA: GAZTE BURRUNBA

Hogei bat lagun erreka garbitzen

Gazte Burrunba Kultur Taldeak egindako deialdiari erantzunez, hogei bat lagun elkartu ziren irailaren 1ean erreka garbitzeko. Antolatzaileak kontent gelditu dira, eta gaztetxoak bildu izana positibotzat jo dute.



ARGAZKIA: MITXEL IBARROLA

Zikoinak bisitan

Zikoin koadrila ederra ibili zen irailaren 9an herrian barna. Elizako dorrean, erai-kuntzako grua batean... Puntu altuetan egin zituzten egonaldia. Badirudi, Europa erdialdean bizi direla zikoin hauek baina udazkena hurbiltzen denean, hegoaldera joaten dira negua pasatzera, eta udaberrian berriz bueltatzen dira.

llo eta Ardoi. Liga irailaren 29an hasiko bada ere, Errekari atsedendia egokitu zaio eta debuta urriaren 6an eginen du etxean, Bardenasen kontra. Halere, denboraldi berria behar bezala prestatzeko bi lagun arteko partida jokatuko ditu: lehenbizikoa irailaren 14an jokatzekoa zuen Uharteren aurka eta bigarrena hilaren 29an eginen du Irungo Gaztik-en kontra, 17:00etan.

Bertzetik, Iban eta Txomin Mindegia en-trenatzen duten jubenilek urriaren 13an hasiko dute denboraldia.

Asobal mailan ere ligo hasia da eta bi ordezkari ariko dira: Ibai Meo-

ki Anaitasuna taldean, eta Niko Mindegia Logroñoeko Naturhousen.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidassoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

URROZ

SANMIGEL BESTAK → IRAILAREN 28TIK URRIAREN 1ERA

Koadrilen eta peñen eguna egingen da San Migel egunean

Biharamunean, Kastro, Saralegi, Rekondo eta Kañamares aizkoran ariko dira

TTIPI-TTAPA

Irail hondarra hurbiltzen ari den honetan, Sanmigel bestak ailegatzeko gero eta guttiago gelditzen da. Urrozen ere prest dituzte lau eguneko bestak eta haur, gazte nahiz helduendako ekitaldiak antolatu dituzte irailaren 28tik urriaren 1era bitarte. Musika, otorduak, herri kirolak, lehiaketak... Denetarik izanen da.

ORTZIRALA, IRAILAK 28 BEZPERA

- 17:00etatik 20:00-etara puzgarriak.
- 20:00etan altxaferoak eta ezkil-jotzea.
- 21:30ean zopak Herriko Ostatuan.
- 00:30ean dantzaldia FIDELekin.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Ez dira denak oraingo argazkiak, baina ez lehen eta ez orain, ez da umorerik falta izaten sanmigeletan. Aurten ere, seguru ezetz.

LARUNBATA, IRAILAK 29 SAN MIGEL EGUNA

- 11:30ean Meza Nagusia.
- 12:30ean herri kirolak. Neskek eta mutilek parte hartuko dute.

- 13:30ean zizka-mizkak Herriko Ostatuan.
- 17:00etan Gorritiren saioa, bere animaliekin.
- 19:00etan pilota partidak.
- 21:00etan koadrilen

eta peñen eguna. Kupa ere izanen da eta txiste kontalarietara afora.
• Arratsaldean eta gauetan, dantzaldia AIERRIK taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 30

- Goizez eta arratsaldean haurrendako puzgarriak.
- 11:00etan mus txapelketaren hasiera.
- 13:00etan aizkora apustua: alde batetik, Raul Kastro eta Saralegi, eta bertetik, Rekondo eta Kañamares elkarren kontra ariko dira.
- 17:30ean trikitilari gazteen emanaldia.
- 20:00etan tortilla eta postre lehiaketa.
- Arratsaldean eta gauetan dantzaldia AGERRALDEekin.

ASTELEHENA, URRIAK 1 BESTEN BUKAERA

- 11:00etan mus txapelketaren bukaera.
- 11:15ean haurrendako jokoak.
- 14:30ean herri bazkaria Julio Soto eta Jexux Mari Irazu bertsolarietara. Gai-jartzailea Kopeno izanen da.
- Arratsaldean eta gauetan dantzaldia SALABERRIekin.
- 22:00 aldera afaria plaza, zingarra eta txistorrekin.

Urrozko Udalak

Besta zaharriak opa dizkizue urroztar eta bisitari guztiei

Egin zaitez ttiipi-ttapan harpidedun

(0034) 948 63 54 58

Ingurulan

ONGI PASA BESTAK!

616298420 Urroz

Gure Haragia
Nuestra Carne

ELGORRIAGA

KIROLA → MENDIZALETASUNA

Pirinioetako 50 tontorrik ederrenak igo ditu Andoni Eizagirrek

Urkulu mendia izan da igo duen azkena, alabarekin

Mattin LARRALDE

Andoni Eizagirre herriarrak Pirinioetako 50 tontorrik politenak egin ditu eta gisa honetara, bere ametsa egiteko hamar urte behar izan ditu. Berarekin solastu

gara kontu honen hasiera nola izan zen jakiteko, eta berak erran digunez, mendirako zaletasuna bere neskalaguna den Agurtzaneren bidez sartu zitzaion, eta berak oparitu zion Pirinioetako 50 tontorrik politenak bil-tzen dituen liburua.

Lehenbiziko mendi tontorretara bere neskalagunarekin eta bere koardilarekin, anaia-arrebekin eta koinatuekin joan zela kontatu digu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hamar urte behar izan ditu Andonik Pirinioetako 50 tontorrik politenetara igozteko. Tartean, familiako zein lagun aunitz izan ditu bidelagun.

Handik urte batzuetara alaba jaio zitzaion, eta gailurretara bere anaia Juanmirekin joaten hasi zen. Gerora, ordea, anaia belauna hautsi zitzaion eta handik aitzinera berak bakarrik segitu zuen mendietarako bidea egiten.

Igo dituen gailurren artean, mendirik zailena Gourgs Blancs (3.129 metro) egin zitzaiola aitortu digu, bere lehengusu Frantxisekin igo zuena, hain zuzen. Bere 50. mendia, berriz, Urkulu (1.419 metro) izan zen eta hau bere alaba Ara-

nekin igo zuen, aitarentzat 50.a eta alabarentzat lehenbiziko mendia.

Lerro hauen bidez zorian eman nahi dizkiogu Andoniri eta berak dioen bezala, «denak mendira mendi aunitz daude-eta ikusteko inguruan». Eutsi sasoiari!

Olioa birziklatu

olioa gordetzeko edozein motatako ontzi zahar bat berrerabili



sukaldeko olioak ontziratu eta gertuen daukazun edukiontzira eraman orain bilketa puntu gehiago!



BERRERABILI
BIRZIKLATU
MURRIZTU



ITUREN

OSPAKIZUNAK → GOIZEAN GOIZETIK HASITA

Joare soinuak, bertsolariak eta aizkolariak larunbatean egingen den Joaldunen Egunean

Eguerdian Nazabal eta Larretxeak aizkora saioa eskainiko dute

Arkaitz MINDEGIA

Gainean dugu iraileko hitzordu garrantzitsuenetariko bat: Joaldunen Eguna. Larunbat honetan, irailak 22, egingen da eta goizean goizetik nabarituko dira joare soinuak han eta hemen.

Goizean goiz, plazan bilduko dira joaldunak eta trikitilari eta panderojoleen laguntzarekin Amezti auzorako bidea hartuko dute. Baserriz baserri ibili ondotik, Lasaga auzora jeitsiko dira eta gero herrira. Behin plazara inguratuta,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtero bezala, joaldunek Amezti auzora bisita egingen dute larunbatean.

Jexux Mari Irazu eta Aitzol Barandiaran bertsolariak esperoan izanzen dituzte eta hauek bertso batzuk botako dituzte. Eta urtero bezala, aizkora apustua ere izanen da, Floren

Nazabal eta Donato Larretxearen eskutik.

Bazkaria plazan egingen da eta bazkalondotik aitzinera, Joxe-anjel akordeoilaria arduratuko da giroa alaitzeaz.

Erasun finalerako txartelaren bila

Igande honetan, irailak 23, Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jotuko da Uharten,

17:30ean hasita. Hamar aizkolari ariko dira lehian eta tartean izanen da Ander Erasun aurtiztarra. Lehenbiziko bortz sailkatuek urriaren 7an Etxarri Aranatzen jotuko den finalerako txartela lortuko dute.

Maika Ariztegiren hamabigarrena

Maika Ariztegik ez du parekorik txokor biltzen. Aurten hamabigarren aldiz, Euskal Herriko emakumezkoen Txokor Biltze Txapelketa irabazi du eta gainera, berak orain dela urte batzuk egindako marka ere hobetu du. Sasoi betean segitzen du eta nahiko arrazoi badenez, zorionak hemendik! Xehetasun gehiago kiroletako orrian aurkituko dituzue.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEHUNGERRI | BERRATSAN (OSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BÉTELU
DORREZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

AISIALDIA → UDAN ITXITA EGON ONDOTIK

Gaztegunea berriz irekitzeko asmoa dute gurasoek

Urrian irekitzea da gurasoen nahia eta horretarako bilerak hasi dituzte

Fermin ETXEKOLONEA

Udako hilabeteetan itxita egon da Gaztegunea, baina ikasturtea martxan jartzearekin batera, gaztetxoek txoko bihurtu den egoitzako ateak berriz zabaldu nahi dituzte gurasoek. Dagoeneko mugitzen eta bilerak egiten hasi dira eta urrian ireki nahi dute. Aurrerago xehetasun gehiago emanen dugu eskolatik kanpo neska-mutikoei aisialdirako aukera polita eskaintzen dien zerbitzu honen inguruan.

Euskararen Eguna

Aurtengo Euskararen Eguna antolatzeko biltzen hasiak dira gazteak. Eguna zehaztu dute eta urriruko bigarren asteburuan izanen

da. Bi egunez, ostiral eta larunbatean, izanen dira ekitaldiak. Xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

Artzain ibilitako en eguna

Joan den larunbatean, irailak 15, Ameriketako artzain ibilitako en eguna ospatzekoa zen

Iruñean. Zubietatik lau herritar joatekoak ziren: Xanti Uhalde, Markos Juanikorena, Inazio Mari Santesteban eta Xebaxtian Indakoetxea.

Ikasturte berria hasi dute

Gure herriko neska-mutilei ere akitu zaizkie udako oporrak eta ikas-

turte berria hasi dute. Lekarozko institutura, lehen aldiz, Batxilergoa egitera joan direnak Mariialen, Olaia eta Beñat dira. Unibertsitate ikasketak egiten hasi dena Nerea da, Gasteizera joan da. Donezteben bi haur ttiki berri hasi dira: Unai eta Hegoi eta Iturengo eskolako ikasketak akitu eta Donezte-

bera DBHko 1. maila egitera joan dena Mikele da. Iturengo eskolan, berriz, Aihen eta Candela dira lehenbiziko aldi eskolara doazenak.

'Baztan' pelikula estreinatzeaz

Juainas Paul aktore lanetan ibili den *Baztan* filma laster estreinatuko dute. Irailaren 24an Donostiako Zinemaldiaren barne, Zabaltegi sailean ikusgai izanen da eta urriaren 5etik aitzinera zinema-aretoetan eskainiko dute. Ea zer moduzko harrera izaten duen.

Murrizketen kontra

Urtetik urtera, Nafarroako Gobernuak gero eta dirulaguntza txikiagoak ematen ari da gizarte zerbitzuek eskualdeko bideratzen dituzten programetara eta horren aurka, Nafarroa mailan zinetotzi eta alkateen sinadurak bildu dituzte. Horrekin bat egin dute herriko ordezkariak ere.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Uzta ederra bildu dute Pentako Anita eta Markosek

Nabari da bai baratzean aritzeko esku ona dutela Pentako Anita eta Markosek. Uzta ona izan dute, tomate eta kalabaza ederrak bildu baitituzte. Tomateen kasuan kilotik goitikoak bat baino gehiago izan dituzte eta bakarren bat kilo eta erdikoa ere bai. Otordu ederrak egin izanen dituzte barazki eder hauekin.

Estibaliz
**AURPEGIRAKO
RADIOFREKUENTZIA**
HASIERAKO ESKAINTZA:
199€
4+1 bonoari etekina atera
Sala saltea: 60€
ELIZONDO | 948 581 360 | 606 738 466

APARAN, S.A.
BRINKOLALA eta ZURAK
Metamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate amuntak eta sukaike mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mbleak eta osagariak
KIT mbleak: esku-erremintak, itab.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA

HONDAKINAK → ORGANIKOEN TRATAMENDUA

Irail hondarrean bukatuko da konpostontziak eskatzeko epea

Neurri haundiko trasteak biltzeko telefono berria da orain

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Malerreka eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateek azken lau urte hauetan egin dituzten konpostaren kanpainetan, guztira 624 konpostontzi banatu dituzte dohainik. Horietan azkenekoak, ekainean

eta uztailean egin zituzten. Ekainean, adibidez, 164 konpostontzi banatu zituzten Baztanen eta 88 Malerrekan. Uztailean, berriz, 43 konpostontzi banatu ziren Bortzirietan.

Oraindik ere norbait interesatua baldin badago izanen du aukera, zerranda berria betetzen ari baitira. Hilabete honetan izanen da eskatzeko aukera, irailaren 30era arte. Baztanen 948 580006ra deitu behar da, Malerrekan 948 451746-ra eta Bortzirietan, 948 635254ra. Bertzalde, traste haun-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Neurri haundiko trasteak biltzera etxeraino joaten dira bila, eta dohainik.

dien bilketa egiteko telefono berria dela oinarazi dute Mankomuni-

tateetatik. Deituz gero, orain arte bezala etxera joanen dira bila eta do-

hainik, baina orain telefono berri honetara deitu behar da: 672 045734.

HEDABIDEAK

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Nafarroako mendialdea tokiko telebistendako lizentzia aukerarik gabe utzi du berriz Gobernuak

Ez da aurreikusitako euskara hutsezko telebistarik izatea

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren telebista digitalen lizentziak esleitzeko bi deialdi. Lehenbizikoaren arabera, 20 tokiko telebista berrirendako lizentziak esleitu nahi dira, bosna hiri-eremu bakoitzean. Lizarra ingururako 5 lizentzia, Iruñerriko 5, Zangozalderako 5, Tafalla ingururako 5 eta Tuterako 5

5. Tokiko telebisten ikus-eremua tokikoa izanda, eremu horietatik kanpo ez lirateke ikusiko.

Bigarren deialdian, bertze bi telebistendako lizentziak banatuko dira baina, kasu honetan, telebista berrien ikus-eremua Nafarroa osokoa izanen da. Telebista kate berriek emititzeari utzi dioten Canal 4 eta Popular TVk utzitako lekua hartuko dute.

MENDIALDEA LIZENTZIA AUKERARIK GABE

2006an antzeko prozedura bete zuen Nafarroako Gobernuak. Bai orduan eta bai orain, ez

du tokiko telebistendako lizentzia aukerarik aurreikusitako euskaldunen sartzan dituen udalerriztat. Horrela, Nafarroako Parlamentuak 2006an hartutako akordioei kasurik egin gabe, Foru Gobernuak berriz atea itxi die TTIPI-TTAPA Telebistak edo Xaloe Telebistak azkeneko hamarkadetan hainbat aldiz egindako eskaerei.

20 LIZENTZIA BERRI

Nafarroa osorako bi kanalez gain, tokian tokikoetan 20 lizentzia esleitu nahi ditu Gobernuak. Gehiegizko lizentzia ko-

purua da, tajuzko programazio bat eginez ekonomikoki bideragarriak izateko hainbat eskualdetan, Zangozaldeak 9.000 biztanle baino ez baititu, Tafallak 12.000...

ETB-REN EGOERA

Gara egunkarian argitaratutakoaren arabera, ETBko zerbitzu juridikoa aztertzen ari dira deialdi honetara aurkezteko aukerarik duten ala ez. Informazio horrek dioenez, joan den martxoan elkartu ziren Alberto Suario EITBko zuzendari nagusia eta Juan Luis Sánchez Muniain kontseilaria gai honetaz hitz egite-

ko. Aurkeztea erabakiko balu eta deialdiaren eskakizunak kontuan hartuta, ETB behartua egonen litzateke Nafarroari buruzko programazio espezifiko ekoizterako Nafarroan.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere aldetik, «kezka handiz» hartu du Gobernuaren deialdia: «ez du euskara hutsezko lizentziarik gorde, eta programazioan euskara erabiltzeagatik esleitu duen puntuazioa hutsaren hurrengo da». Deialdia Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideen aurka daraman politikaren segidara dela salatu du.

GIZARTEA → AMERIKETAN IBILITAKO ARTZAINAK

Martin Irazoki eta Santiago Mitxelorena omendu dituzte Legazpin



ARGAZKIA: EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN ELKARTEA

TTIPI-TTAPA

Artzain Eguna egin zen Legazpin irailaren 2an, eta egitarauaren barne, Euskal Artzainak Ameriketako Eskualdeko bi lagun omendu zituzten: Martin Irazoki lesakarra eta Santiago Mitxelorena etxalartarra. Biak ere Ameriketako artzain ibilitakoak dira.

Martin Irazoki Elko Nevadara joan zen 26 urte zituela. Aitak debekatua omen zion harat joatea baina halere, harako bidea hartu zuen. Sei urteren buruan itzuli zen, berriz joatekotan. Baina gaur egun bere emaztea den Maite Garmendia orduan ezagutu eta ezkondu egin zen. Emaztearekin Ameriketara joaten saiatu zen, ezkon-bidaiaren aitzakian, baina emazteak ezetz erran zion bere asmoen beldur, eta hemen gelditu ziren.

Santiago Mitxelorenak, berriz, Californiarako bidea hartu zuen 24 urterekin, bi anaien deiarri erantzunez. Zortzi bat urtez egondu zen han. Gisa berean, gaueko eskoletan ere ibili omen zen, ingelese ikasteko, eguneroan erabili behar zituenez tresnen izenak ikasteko... Berriz Ameriketara joateko asmoz itzuli zen etxera, baina familia eta gaur egun bere emaztea den Begoña Iparragirre tarteko, hemen gelditu zen. Lesakako lantegian jubilatuta zen arte, Ameriketara joateko asmoa buruan ibili omen zuen.

Legazpin, makila eta diploma jaso zituzten eta emazteek lore sortak.

Ovniak espazioan



eta Nafarroako Gazte Txartel ofiziala Rural Kutxan



Gauza bakoitza bere lekuan. Eta orain, Nafarroako Gazte Txartel ofiziala DOHAINEK eskatzeko toki bakarra Nafarroako Rural Kutxa da. 14 eta 30 urte bitarteko baldin badituzu, zotoz gure bulegostara eta ateratu zu probetxus bere abantaila guztiak!

| | | | | |
|---|---|--|--|--|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 1. Erabiltzaileak 14 eta 30 urte bitarteko izan behar du. | 2. Nafarroako Rural Kutxan, Nafarroako Gobernuaren bidez, aplikazioa bete behar da. | 3. Erabiltzaileak Nafarroako Rural Kutxaren bidez, aplikazioa bete behar du. | 4. Erabiltzaileak Nafarroako Rural Kutxaren bidez, aplikazioa bete behar du. | 5. Erabiltzaileak Nafarroako Rural Kutxaren bidez, aplikazioa bete behar du. |





GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GREBA OROKORRERAKO DEIALDIA

Irailaren 26ko grebarako deia egin dute gazteek

Gazteak mobilizatzeari garrantzia eman diote

TTIPI-TTAPA

Denon ahotan hainbete aipatzen den krisi ekonomikoa, jendartearen eta sistema kapitalistaren krisia dela, eta gazteria krisi horrekin «berreziki hunkitua» dagoen kolektiboa izaki, gazteak ere irailaren 26an deituriko mobilizazioetan parte hartuzera deitu dituzte Bortziritako gazteek. Izan ere, gogoratu dutenez, «langabezia hagitza handia da gazteen artean (espainiar estatuan, adibidez, bi gaztetik bat langabezian dago) eta ikasten dabiltzan gazteek ere pairatzen dituzte horren ondorioak, hezkuntzan egindako murritzketak direla medio, ez baitago ikasteko baldintza duinik».

Bertzalde, Bortziritako gazteek aldarrikatu dute «gazteon geroa

gure eskuetan dagoela eta hau ez dela norbanakoen arazoa, jendarte osoarena baizik. Horren adierazgarri da eskualde honetan krisia izaten ari den eragina, zeinak erakusten duen hau ez dela soilik hemendik kanpo gertatzen ari den arazo bat». Egoera honek Euskal Herriak independente izateko duen beharra berresten duela ere erran dute, «espainiar estatutak inposaturiko neurriek galbidera baitaramate herria».

Hori gutti balitz, «eskubide urraketak jasaten ari garela eta egoera irauli ezean kalteak gazteontzat izanen direla» adierazi dute, «orain marrazten ari garena izanen baita biharko gure jendarte». Horregatik eta bertze hainbat arrazoigatik, gazteak ikastetxe zein lantokietan antolatzeo deia luzatu dute Bortziritako gazteek, «arazoiari behar den garrantzia emanez, benetak aldaketa ekonomiko eta soziala posible delako».



UTZITAKO ARGAZKIA

Ta uain?

Pankarta berezi xamarrak agertu dira azkenaldian Bortziritan *ta uain?* lelopean. Zalantza handia sortu dute herritarren artean baina badirudi azkenean kontua argitzen doala... Aitzinerago izanen dugu sakonkiago horren berri.

Kilikak bortz urte!

Bortz urte bete ditu Azkaineko gaztetxeak eta urteurren hori egun osoko bestarekin ospatuko dute larunbat honetan, irailak 22:

- 10:00etan omeleta txapelketa plazan.
- 12:00etan poteoa.
- 14:30ean bazkari herrikoia plazan, 10 eurotan. Erreserbatzeko deitu (0033) 645 647893ra.

- 17:00etan dantza ikuskizuna Nora Ezean konpainiaren eskutik.
- 22:00etatik aitzinera kontzertuak: The Lookers, Norte Apache eta Karma taldeekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lesakako Gazte Asanblada herria biziara nahian

Gaztik geldirik, herria hilik dio LEGA Lesakako Gazte Asanbladak maiz erabiltzen duen leloak, eta horren harira, herria biziara asmoz, hainbat ekimen antolatzen ari da. Dagoeneko ohitura bihurtzen ari diren truke azoka (hilabeteko azken larunbatetan) eta bideo emanaldiez gain (hilabetero, bertze egitarauaren arabera), udan hainbat hitzordu proposatu dituzte (postre lehiaketa eta Leurtzarako irteera, bertzeak bertze). Joan den irailaren 7tik 9ra ospatu ziren Bittiriko bestetan ere parte hartu zuten Lesakako gazteek, larunbatarekin herri olinpiadak txertatu baitzituzten egitarauan, herriko haur, zahar eta gazteentzat –argazkian–. Aurreikuspenak bete egin zirela adierazi dute, «gutti goitibeheiti adin guztietako jendea animatu baitzen jokoetara, lau taldetan banatuta». Inguruko jendea ere hurbildu zen jolasean zirenak ikustera eta giro polita sortu zen. Gainera, jolasak berezi xamarrak izaki, irri aunitz egin zuten bai parte hartzaileek bai ikusleek ere. Aitzinera begira ere gogotsu daude Gazte Asanbladakoak. Izan ere, Arrano elkarteak urte osoan antolatu duen sukaldaritza txapelketan parte hartzeko txanda egokitu zaie asanbladako irailaren 29an. Larunbat horretan, bazkaria prestatu beharko dute asanbladako kideek eta Arrano elkarteak epaileek emanen diete puntuazioa. Bazkaria 10 euroren truke izanen da eta hurbildu nahi duenak izena aitzinetik eman beharko du Arranon. LEGAk proposaturiko menua honakoa izanen da: hasteko pate ezberdinak eta bazkari tenpura, ondotik *pasta frutti di mare* eta azpizuna saltsan eta bukatzeko postre sorpresa. Parte hartzeko eta animatzeko deia egin dute gazteek.

Bortziri Unsiõn Anaiak
Sukaldarako altzariak

Herrero erroa • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 907 226 891 • Fax: 948 637 511



Ikastaroa Cederna Garalur elkarteak Alkaiagan duen Enpresendako Zerbitzu Zentroan

Nola IKASI eta PARTEKATU EZAGUTZA WEB 2.0 Sare Sozialetan?

Cederna Garalur elkarteak antolatu duen Prestakuntza programa honetan hainbat udal, turismo bulego, mankomunitate eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako 8 teknikaririk parte hartzen dute, guztiak Bortzirietakoak. Ikastaroa irailaren 13an hasi da eta urriaren 18an bukatuko da.

Web 2.0 teknologietan oinarrituta, informazioa, ezagutza eta ikaskuntzaren kudeaketa partekatua eta elkarlaneko lan-jarduerekin nola hobetu landuko dute ikastaro hauetan parte hartuko duten Toki Entitateetako langileek.

Bereziki, teknologia berrietan maila aurreratu duten langileentzat prestatutako ikastaroa da, bai udal zerbitzuetako kudeaketa eta koordinazioan ari diren teknikoentzat edo Giza Baliabide eta Prestakuntza arloko arduradunentzat.

Ikastaro mistoa: 5 egunetz presentziala eta bi astez ikastaro osagarria on-line

Cederna Garalur elkarteak Alkaiagan duen Enpresendako Zerbitzu Zentroan emanen



dituzte klase presentzialak hiru modulo desberdinetan banatuak.

Lehendabizikoa, *'informazioaren kudeaketa partekatua, ezagutza eta ikaskuntza lantokian eta erakundean'* izeneko moduloa, irailaren 13an eta 20an landuko dute, egun bakoitzean bosna orduz.

Bigarrena, *'Web 2.0 teknologien erabilera ezagutza, informazioa eta ikaskuntza partekatzeko'* izeneko moduloa, urriaren

4an eta 11n emanen da, eta honek ere bost orduko iraupena izanen du egun bakoitzean. Azkenik, hirugarren moduloa urriaren 18an landuko da eta *'ezagutza partekatu eta sortzeko sarean lan egitea'* du izenburutzat. Eta ikasgela tradizionalen emandako ikastorduez gain, partehartzaileek aukeran dute autoprestakuntza osagarria bi astez **www.netknowing.com** Ikasgela Birtualean eta tutoreen laguntzarekin.



Leonardo da Vinci Programatik diruz lagundua



Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza: Europa landa eremuetan inbertitzen

GIZARTEA

HEZIKETA → BAZKIDE ETA BAZKIDE EZ DIRENENTZAT

Hainbat ikastaro eta hitzaldi antolatu ditu Arkupeak-ek

Aste honetan bukatuko da izena emateko aukera

TTIPI-TTAPA

Arkupeak jubilatuen elkarteko bazkide eta bazkide ez direnentzat hainbat ikastaro eta hitzaldi prestatu ditu zuzendaritzak: artearen historian sarrera, matematika kalkulu orriarekin, frantsesa (hasiera edo jarraipena), jubilatua eta zaintzaleen inguruan, tokian tokiko historiaren tailerra eta 2012 Zaharzte Aktibo eta Belaunaldi arteko Elkartasunaren Urte Europarraz ere bai. Ikastaro horiek paratu ditu oraingoz martxan eta interesatuek aste honetan matrikulatu beharko dute, irailaren 21a baino lehen, 948 450878ra deituz 09:30etik 12:30era.

Behin matrikula egiteko epea bukatuta, irailaren 24an interesatu guztiekin bilera egingen da Arkupeak-en egoitzan, 17:00etan. Zuzendari-tzak ikastaroak Donezte-

ben ematea aurreikusia du baina bertze herrietan ere guttueneko kopurua apuntatuz gero, Beran eta Elizondon izan daitezke klaseak.

Bertzelako ikastarok ere izanen dira: frantsesa, olio-pinturarako sarrera, informatikako

hastapena eta sakontzea... Kasu hauetan, urriaren 1etik 5era eman beharko da izena eta nahi duten guztiek parte har dezakete.

Hitzaldi batzuk ere antolatu dituzte: *Bizi testamentua*, *heriotza duina* eta *borondatezko aurre-*

rapenak solasaldia azaroaren 15ean Donezteben eta azaroaren 22an Leitzan eskainiko dira. Jubilazioa eta pentsioen eta testamentuen inguruan ere hitzaldia antolatzeko asmoa dute, nahiz eta oraindik ez duten zehaztu noiz.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

323 bazkide Arantzazura bisitan

Abuztuaren 31n Arantzazura bidaia egin zuten Arkupeak Elkarteko 323 bazkidek. Sei autobusetan egin zuten ateraldia. Arantzazuko bisitaren ondotik, Azpeitiko Kiruri jatetxean bazkaldu zuten eta ondotik dantzaldia ere izan zuten. Giro ederrean pasatu zuten eguna. Arantzazuko ateraldiaren ondotik, irailaren 10tik 16ra Parisera joan ziren Arkupeak-eko bazkideak eta irailaren 14an Lezora. Horrez gain, irailaren 27tik urriaren 9ra Benidormera joateko asmoa dute. Urriaren 13an Bazkidearen Eguna ospatuko dute eta egun horretan 85 urte eta Urrezko Ezteiak egin dituztenei omenaldia egingen diete. Urriaren 25ean Lodosa eta Lizarra bisitatuko dituzte eta azaroaren 5etik 14ra Lanzarote aldera joanen dira.

HERIOTZA

Frantzian jubilatua lortzen eskualdeko hainbati lagundu zien Silva Susperregi zendu da

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteko hainbat eta hainbat bazkideri Frantzian jubilatua lortzen lagundu zien Jose Silva Susperregi abuztuaren 21ean hil zen Hendaian, 89 urterekin. Urte aunitzez Kontsulatuan lan egin zuen Silvak eta emaztea hil eta jubilatua hartu zuenean, lan honetara dedikatu zen. Arkupeak elkartek aunitz baloratu izan du bere lana eta aitoren gisa oroigarria ere oparitu zion. Milaka lagun pasatu ziren bere etxetik eta jubilatuzko beharrezkoa zen dokumentazioa lortzen lagundu zien. Lerro hauen bidez, aparteko bere lana azpimarratu nahi du Arkupeak elkartek, hainbertze lagun mesederako lan egin zuelako eta aldi berean, doluminak adierazi nahi dizkie bere anaia-arreba eta ilobei. Oraindik ere badago Frantzian jubilatua esperoan dagoen jendea eta Arkupeak elkartek jakinarazi duenez, Hendaiko udaletxera joan behar da. Baionako Gizarte Segurantzari den ardura bat hilabetero joaten omen da Hendaia-
ra jubilatua lortu nahi dutenei laguntzeko.






Ordoki industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

%58 ko **aurrezpena**

Gure sistema berriarekin **%58ko AURREZPENA**
lortuko duzu zure etxean



ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!

Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

ARANO

NEKAZARITZA → NAFARROAKO GOBERNUARI ESKAERA

Nekazal Ganbarako zerbitzua bere osotasunean mantentzeko eskatu du Udalak

Leitzako bulegoan langile bat lanaldi osoan aritzeko eskatu dio Gobernuari

Ainhoa ANSA

Arano, Areso, Ezkurra, Goizueta eta Leitzako nekazariak Leitzan dute beraien jardueran beharrezko gestioak egiteko aukera, bertako udaletxean baitu bulegoa Nekazaritza Ganbarak. Hor lanean zebilen langilea, ordea, duela hilabete batzuk erre-

tiratu zen eta orain Irurtzungo langilea etortzen da asteazkenetan ordu batzuetarako.

Aranon eta inguruetan nekazaritzak eta abeltzaintzak duten garrantzia ikusirik eta gure herriko nekazarien zerbitzua murriztua gerra ez dadin, Udalak abuztuaren 30ean egindako batzarrean mozio bat aurrera atera zuen. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuari, Nekazaritza Ganbararen zerbitzua bere osotasunean mantentzeko eskatu zaio eta Leitzako bulegoan langile bat lanaldi osoan aritzea.



ARGAZKIA: JOXAN RUIZ MINER

Herriko haurrak eskolan hasi dira

Aranoko haurrak Goizuetako eskolan hasi dira udako oporrak atzean utzita. Aurturten Oier txikia izan da hasi den berria eta guztira 13 dira goizean autobusera sartu eta oraingoz eguerdiz etxeraten direnak. Eskolaz kanpoko jarduerak ere ematen dute buruhauste bat baino gehiago kurtso hasieretan baina laster hartuko dute martxa denek ere! Ongi pasa eta asko ikasi!



ARGAZKIA: MARIJO SALABERRIA

Aranotik Urnietara oinez

Dagoeneko hiru urte badira Aranotik Urnietara mendiz joateko ohitura sortu zenetik eta aurturten ere ez du hutsik egin. Goizeko 8ak pasatxo zirenean herritik atera, eta Urnietarako bidea hartu zuten bederatzi bat herritarrek abuztuaren 27an. Urnietan beste hamar lagun gehitu omen zitzaizkien bazkaltzera.

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu
ideiatik hasi eta etxean izan arte.

1.000 ale → 85€
formatu A4-C, 300 g, 152 lerroak

1.000 A4 → 86€
formatu A4, 300 g, 152 lerroak

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

jaione tindategia

ttipi txartala

%10eko
DESKONTUA
120tik gorako gasteetan

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZITEZ GURE LAGUN

GIZARTEA → LOGO LEHIAKETA

Itsaso Lujanbioren logoak irudikatuko ditu herriko jarduerak

Logoan herriko zubi haundia irudikatu du Lujanbiok

TTIPI-TTAPA

Kultur Taldeak antolatutako logo lehiaketak badu irabazlea: Itsaso Lujanbioren lana da, behereko irudian ageri dena. Bere logoak irudikatuko ditu hemendik aurrera herriko jarduerak eta jendeak irudi honen bidez ezagutuko du Goizueta.

Herriko zubi haundia irudikatu du Itsasok, bere hitzetan, «Goizueta-aren iragana eta oraina erreprezentatzeko historia duen zubi ezagun, erakargarri eta gustagarria». Logotipoa «sinplea» da Itsasoren ustez, «begietatik sartzen dena eta gogoratzeko erraza dena». Bi kolore erabili ditu: beltza «formaltasuna eta dotorezia emateko» eta berdea «kolore bixia, indarra emateko, monotoniarekin puskatzeko

LOGOA

«Logoan, herriko zubi haundia irudikatu dut, Goizueta-aren iragana eta oraina erreprezentatzeko historia duen zubi ezagun, erakargarri eta gustagarria»

Itsaso LUJANBIO

Logoaren egilea

eta irudia bera bixitzeko. Naturarekin lotura emanez, berdea aukeratu dut, Goizueta-aren duen inguru berdea altxor bat baita guretzat». Gisa berean, trazua «dinamikoa» izan dadin saiatu dela azaldu digu, «irudiari dibertsioa emanez».

Herri mailan egindako lehiaketa izan da eta sari gisa, Itsasok 150 euroko bonoa eskuratu du herrian gastatzeko. Momentuan, ordea, ez dugu herrian barna ikusi eta hemen zorientzeko aukerarik izanen, Peru aldera joana baita ikasketak egitera eta han izanen delako urtarrilera arte. Ongi ibili!

74 ikaslek eta 11 irakaslek hasi dute ikasturtea eskolan

3 urteko bost haur hasi dira eta hiru ikasle Leitzako institutura joan dira

TTIPI-TTAPA

Udako oporrak bukatuta, ikasturte berriari ekin diote Andres Narbarte Xalto eskolan. Guztira 74 ikasle dira aurten eskolara doazanak eta horiek batera, hamaika irakasle.

Hiru urteko bost neska-mutiko lehen aldiz hasi dira eskolan: Adur Sagardui, Lorea Saldias, Irati Ape-

zetxea, Elaia Narbarte eta Oier Ruiz, azken hau Aranotik datorrena. Eta DBHko lehen zikloa bukatu eta Leitzako instituturako bidea hartu dutenak hiru dira: Aimar Etxeberria, Ander Apezetxea eta Garazi Narbarte.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzan egin dituen murrizketen ondorioa ere nabaritu dute herriko eskolan. Zuzenbidean tokatuko litzatekeena baino irakasle bat gutxiagorekin hasi baitute ikasturtea. Horrez gain, DBHko eta erlijio irakaslea ez dira lanaldi osoan ari, orduka baiduz. Eta orientatzailea astean behin etorriko da.




ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Jaia larunbatean

Iskibi kanpinean urteko hitzordurik aipagarrienetarikoa bihurtua den Euskal Jaia igande honetan egingen da, irailak 23. 12:30etik aurrera dultzaineroekin diana izanen da. Gero, haur eta helduentzako toka izanen da eta 14:00 aldera talo-jatea egingen da. Txartelak Kanpinean edo Amaia kafetegian eros daitezke, 16 eurotan helduentzat eta 6 eurotan haurrentzat. 17:30etik aurrera Bonatxorekin erromeria izanen da eta honela emanen dio Iskibik denboraldiari bukaera. Hurrengora arte atek itxiko ditu.



 ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

LEITZA

EUSKARA ETA KIROLA → KONTSEILUAK ANTOLATUTA

'Euskaraz bizi nahi dut' lasterketa eginen da larunbat honetan

Adinaren arabera, hiru ibilbide prestatu dituzte

JM BARRIOLA

Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, Leitzan ere Kontseiluak bultzatu duen *euskaraz bizi nahi dut* herri lasterketa eginen da larunbat honetan, irailak 22. Euskaraz bizitzeko nahia harrotasunez eta elkar hartuta adierazteko beste aukera bat izanen da.

Adinaren arabera, hiru ibilbide prestatu dira: 2003-2012 urteetan jaiotakoek 800 metro egin beharko dituzte, 1997-2002 urteetan jaiotakoek 2.250 metro eta 1996an baino lehenagokoek 5.000 metro. 2003-2012 urteetan jaiotakoek 16:30ean abiatuko dira eta bertzeak 17:00etan.


Izena aurretik Maimur edo Astiz liburu-dendetan eman daiteke, eta bestela, egunean bertan plazan. Izena ematerakoan, 1997-2002 urte bi-

tartean jaiotakoek bi euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek bost. Dena den, *euskaraz bizi nahi dut* leloa daraman kamiseta bat eskuratzeko aukera ere izanen da bost euro gehiago ordainduz gero.

Dantzariak Txekian

Irailaren 10ean Aurre-ra Dantza Taldeko kideak Txekiarantz joan ziren, Babi leto 2012 folklore jaialdian parte hartzeko gonbidapen jasota. Valasske Meririzi herrian izanen da jaialdia eta munduko beste dantza taldeekin ariko dira Aurrerakoak, Euskal Herriko dantzak erakusten.

Hamabost minutuko dantzaldiak egin eta jendea hemengo dantzak erakusteko tailerrak eginen dituzte. Honekin batera hemengo produktu batzuk –txakolina, patxarana eta taloak– eraman dituzte jaialdian dastaketak egiteko beste taldeekin batera, seguru aski kultur trukaketarekin giro ederra sortuz. Aurtengoa bigarren al-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Argiteria publikoa

Joan den urtean, 127 farola aldatu zituen Udalak. LED sistemako argiak jarri zituen, hauek askoz biziraupen luzeagoa dutelako eta konsumo gutxikoak direlako. Aurreko farolak oso konsumo altukoak ziren eta honetaz gain, argi kutsadura nabarmena eragiten zuten, argia gorantz eginez eta herriaren gainean argi burbuila bat sortuz. Orain, Nafarroko Gobernuaren laguntzarekin beste 36 farola aldatuko dituzte kontsumoa %61 murriztuz. Lanak Fija.sl enpresak eginen ditu 27.891,71 eurotan.



ARGAZKIAK: PLAZAOLA PARTZUERGOA

Talo Eguna arrakastatsua

Irailaren 9an zazpigarren Talo Eguna ospatu zen. Baserriko tresna zaharren erakusketa, artisauak, animaliak, eta noski, taloak eta sagardoak dastatzeko aukera izan zen. Talo lehiaketan, Juan M. Zabaleta izan zen garaile. Herri kirol saioa ere jokatu zen. Euskal Herriko txinga txapelketan, Juan Jose Agirregabiriak irabazi zuen eta aizkoran, Arkaitz eta Julen Olano, Ruben eta Eneko Saralegi, Ruben Telletxea eta Asier Pellejerok saio ederra eskaini zuten. Oso balorazio baikorra egin dute Plazaola Partzuergotik, jende ugari ibili zelako eta pesta polita osatu zelako.

dia izanen da Txekiako jaialdira gonbidatu dituztela leitzar dantzariak.

Aurrekoan 2006an izan ziren. Guztira 26 lagun joan zaizkigu herriatik, iku-

si beharko dugu ze berri ekartzen duten eta nolako harrera izan duten.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Historialarien III. Biltzarraren mintegia

Euskal Herriko Historialariaren III. Biltzarraren baitan, *Gaizkileen muga* gaiarekin mintegia izan zen zinean irailaren 8an. 80 lagun hurbildu ziren hizlariei entzun eta mahai inguruan parte hartzera. Oier Eizmendi alkatearen ongietorriaren ondoren, Angel Rekaldek eta Joseba Asironek biltzarraren aurkezpena egin zuten. Gero, Koldo Martinez Garate, Floren Aioz eta Beñi Agirrek gaiarekin lotutako hitzaldiak eskaini zituzten eta atsedenerako tartearren ondoren, mahai inguruan izan zen Floren Aioz, Martxel Otamendi, Esther Iriarte eta Paulo Izuetaren eskutik. Entzuleen galderei eta hausnarketei erantzun zieten.

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Guztira 24 ikaslek hasi dute ikasturtea eskolan

Hiru neska-mutiko lehen aldiz joanen dira eskolara

Juana Mari SAIZAR

Ikasturte berria hasi da Nazabal eskolan eta aurten hiru ikasle berri dira: Andrea, Aimar eta Aratz. Beraiekin batera, guztira 24 ikasle daude, iaz baino bat gehiago. Haur Hezkuntzan hamaika ikasle dira eta Lehen Hezkuntzan daude gainerako hamahiruak. Ea bada lana gogoz egin eta asko ikasten duten!

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan egin dituen murrizketen ondorioa ere somatu du-

te herriko eskolan. Irakasleek ordu lektibo gehiago dituzte eta beraz, zaintzak egiterako ez dute inor ordezkatzeko eta ondorioz taldeak elkartu beharrean egongo dira.

Ehiza sasoia abian da

Ehiza garaia hasi da dagoeneko eta ehiztariak urrirako prestatzen ari dira herrian. Usoa Ehiztari Elkarteak egin ditu bilerak eta orain enkantea egitea tokatzen da. Larunbat honetan, irailak 22, egingo da lehen enkantea udal txean eta bigarrena, berri, irailaren 29an, biak larunbatarekin.



Ikasturte honetan lehen aldiz eskolara doazen ikasleak.



ARGAZKIAK: JUAN ANTONIO GARAIKOETXEA

560 lagun Mendi Martxan

Irailaren 2an egin zen Aresoko V. Mendi Martxa, eta aurtengoan ere erantzun oso ona izan zuen. Aurten ibilbidea pare bat kilometro luzatu zuten, Gorritiko Santa Barbara igo behar izan baitzuten parte hartzaileek eta 23 kilometroko ibilbidea egin. Guztira 560 mendizale ibili ziren Aresoko mendietan barrena; Urteaga, Ulizar, Merku, Urkita, Santa Barbara, Pagozelai eta Guratzen, hain zuzen. Amaieran, kamiseta bana eta paella eman zitzaizen mendizale guztiei, eta jendea oso gustura agertu zen. Antolatzaile lanetan, berri, herritar ugari ibili zen, eta hori ere eskertzekoa da, horrelako egun bat aurrera eramatea zaila izango bailitzateke bestela.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafalla, 13 IRUÑEA
948 230 634

UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ASTEBURU HONETAN

Aste hondar honetan errebestak ospatuko dituzte Amaiurren eta Erratzun

Amaiurren ortziral eta larunbatean ekitaldiak izanen dira eta Erratzun larunbatean

lu elkartean. 00:00 aldera martxa izanen da goitiko ostatuetan.

Larunbatean, berriz, 14:00etan zikiro jatea antolatu dute, Frantzisko akordeoilariak alaituta. 21:00etan odolki eta zingar jatea egingen dute eta 23:00etan gau-pasa izanen da Dantza-di taldearekin.

ERRATZUN

Erratzun larunbata izanen da besta eguna, irailaren 22a. Goizean, Fanfar-onak fanfarrearekin kalejira-poteoa egingen dute eta 14:30ean zikiro-mozorro jaterako elkartuko dira. Ondotik, kantaldia eta dantzaldia izanen dituzte Mendiberriren eskutik eta gauean, gau-pasa elkartean.

Arizkunen errebestak izanen diren ala ez ezin izan dugu jakin lerro hauek idazterakoan.

TTIPI-TTAPA

Besta kontuak alde batera utzi gabe, ospakizunekin segitu nahi dute Amaiurren eta Erratzun. Bi herriek egun berak aukeratu dituzte eta asteburu honetan errebestak izanen dituzte.

AMAIUR

Amaiurren ortziralean eta larunbatean ospatuko dituzte errebestak. Ortziralean, irailak 21, 17:00etan Txan magoak ikuskizuna eskainiko du eta 21:00etan afaria izanen da Gazte-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Aritzakungo besta

1998az geroztik iraileko lehenbiziko larunbatean egiten den hitzorduari hutsik egin gabe, hilaren 1ean besta eguna izan zuten Aritzakunen. Goizean meza izan zuten eta ondotik, pilota partidak ikusteko aukera izan zuten. Bazkari ederra ere egin zuten giro atseginean, bertsolarien eta akordeoilarien konpainian.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Txokotoko bestak giro ederrean

Iraileko bigarren asteburuan Elizondoko Txokoto auzoan ospatu ziren bestak. Egitarauaren barne emakumezkoen II.frontenis txapelketa jokatu zen; sei bikote aurkeztu ziren eta Garbiñe Elizegi eta Itsaso Salaburuk irabazi zuten.



HEZKUNTZA → URTEROKO HITZORDUA

Herrietako eskolen besta Erratzun eginen da irailaren 30ean

Bortz eurotan menu herritarra eskainiko da eta nahi duenak eskoletan eman behar du izena

tapolorat joanen dira. Gorostapoloko frontoian logoaren osaketa eta aurpegiak margotzeko tailerra eginen dituzte. Handik berriz herrirako bidea hartuko dute kalejiran, Fanfarronak lagunduta.

14:00etan bazkaria eginen dute frontoian. Nahi duenak otordu autogestionatua egiteko aukera izanen du eta bertzela menu herritarra ere eskainiko da: tauloa, edaria eta postrea bortz eurotan. Horretarako eskoletan eman behar da izena. Bazkarian, kantu zaharrak eta sagardo kupela ere izanen dira.

TTIPI-TTAPA

Urdazubi-Zugarra-murdi eta Baztango herrietako eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuko dituen besta Erratzun eginen da aurten, irailaren 30ean. Horren harira, goiz eta arratsalderako ekitaldiak prestatu dituzte Erratzuko Guraso Elkarteak kideek.

10:00etan ongietorria eginen zaie bertze herrietakoei sarrerako pisuetan eta ondotik, kalejira izanen da Erratzuko damekin. Gero, plazatik bi ibilbide abiatuko dira. Koxkorrak jinkana eginen dute Xorroxinerat eta tikiak Goros-

Arratsaldean, tirolin ibiltzeko aukera izanen dute neska-mutikoei BKZren eskutik. Frantxiskorekin dantzan aritzeko aukera ere izanen da eta aurpegiak margotu nahi dituenak tailerra ere hortxe izanen du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Suhiltzaileak ere murrizketen kontra

Nafarroako Gobernua egiten ari den murrizketen aitzinean, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak ere protestan ari dira. Argazkian *Murrizketarik ez* dioen pankartaren gibelean ageri dira Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak.

Lekarozen eta Almandozen etxebizitza babestuen zerrendan izena emateko epea zabalik dago

Lekarozen eta Almandozen babestutako etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan izena emateko epea zabaldu du Udalak. Interesatuak udaletxean berean edo baztan@baztangoudala.eu helbidearen bitartez eman dezakete izena eta urriaren 1a izanen da hondarreko eguna.

Administrari laguntzailea aukeratzeko probak

Aitzinera segitzen dute udaletxean aritzeko euskara ezagutza duen administrari laguntzailea aukeratzeko probak. Hasiera batean izena emandako 29 lagun

onartu ziren eta euskara probaren ondotik, 17k egin zuten aitzinera. Orain, berriz, bertzelako frogak egiten ari dira. Irailaren 14an test moduko galderen ariketa eta kasu praktikoa egin zituzten. Eta ortziral honetan, irailak 21, informatikako proba eginen dute.

Kirolegia eta frontoia erabiltzeko baimenak

Kirol klubek kiroldegia eta frontoia erabiltzeko baimen-eskaerak irailaren 24rako aurkeztu behar dituzte Arizkunean. Entrenamendu eta txapelketak jokatzeko izanen da baimena.

ANYXITONIA
Kalejira eta etxeak
Barraila Inarre 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 591 853
baztan@anyxitionia.com • www.anyxitionia.com

zapatari
Dena ROI puztuta du!
Lof: 636 36 52 92 - baztan@zapatari.com
Muzatza Berritzailea Kalea, 17
91700 Elizondo - Baztan

SOULE
Itala arazo
Iturri, 100 100 100
Baztan

Bierresuewa
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Barraila Inarre - Tlf: 948 592 943
ORNOZ - MUGAIRI

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Barraila Inarre kalea

BAZTAN

EUSKARA ETA KIROLA → KONTSEILUAREN EKIMENA

'Euskaraz bizi nahi dut' herri lasterketa egingen da larunbat honetan Elizondon

Helduendako eta haurrentzako ibilbideak prestatu dira 11:30etik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Lasterka saio bat euskararen alde. Hori egiteko aukera izanen da larunbat honetan, irailak 22. Egun horretan, Kontseiluak *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa herrikoiak antolatu ditu Euskal Herriko hainbat herritan eta horien artean egonen da Baztan ere. Baztanen kasuan, lasterketa Elizondon izanen da eta bi ibilbide izanen ditu. Bata helduentzat, 4 kilometrokoa, eta bertzea 12 urtez behehitiko haurrentzat, 400 metrokoa. Bi ibilbideak Elizondoko plazan hasi eta akituko dira, 11:30etik aitzinera.

Helduek bartz euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek bi. Bartz euro gehiagoren

truke, parte-hartzaileek *Euskaraz bizi nahi dut* kamiseta lortu ahal izanen dute. Helduen lasterketako lehen hiru emakumezko eta gizonetzokentzat sariak izanen dira eta parte-hartzaile guztien artean opariak zozketatuko dira. Izen-emateak egunean berean ordu erdi lehenagotik hasita edo aitzinetik www.euskarabizinahidut.org web orrian egiten ahal dira.

Bertze aldetik, Baztango Euskara Baztordeak antolatuta, *Euskaraz bizi nahi dut* hitzaldia eskainiko du Iñaki Lasa Kontseiluko kideak ortzegunean, irailak 20. 19:00etan izanen da Arizkunenean.

Jabier Zigari buruzko liburuaren aurkezpena

Pello Fernandez Oia-regi idazleak Jabier Zigari buruzko liburua idatzi du: *Javier Ciga: pintor de esencias y verdades (Jabier Ziga: esentzia eta egien margolaria)* eta argitalpen

horren aurkezpena ortziral honetan, irailak 21, egingen dute Jorge Oteiza Etnografia Museoan, 19:00etan hasiko da.

Eguzkiloreren ikastaroak

Eguzkilore emakumeen taldeak denboraldi honetako ikastaroak prestatzeari ekin dio. Hainbat aukera eskainiko ditu aruten ere urri-tik maiatzera: erlajazioa astelehenetan 17:00etatik 18:30era urriaren 1ean hasita, yoga ortzegunetan 17:30etik 18:30era urriaren 4an hasita, *Nire burua eza-gutuz* astelehenetan 17:30etik 19:30era urriaren 10ean hasita, yogilates asteartetan 18:00etatik 19:30era urriaren 2an hasita, dantzapilates ortzegunetan 18:00etatik 19:30era urriaren 4an hasita, eta konstelazio familiarak izeneko ikastaroa ortziraletan 17:15etik 19:15era urriaren 5ean hasita. Irailaren 26a arte ematen ahal da izena.

Ikasturte honetako ber-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elisa Arretxea elizondarra fitxatu du Itxako eskubaloit talde nagusiak

Azken lau urteotan Espainiako Emakumezkoen Eskubaloit Liga irabazi duen Lizarrako taldeak Baztango ordezkari bat izanen du denboraldi honetan: Elisa Arretxea elizondarra. Baztango Kirol Taldean ibilitako pibota, beraz, Ohorezko Mailan ariko da lehendabiziko aldiz. Abuztu hondarrean eman zuen plantillaren berri Itxakok, Espainiako Superkopa hasteko egun batzuk baino falta ez zirenean. Lizarrako taldeak irailaren 1ean hasi zuen denboraldia, aurrendenboraldirik egin gabe, krisi ekonomikoak hala behartuta jokalaririk gabe egon baita.

tze hitzorduen berri ere eman du Eguzkilorek. Urriaren 8an kontserbak izanen dituzte hizpide, azaroaren 12an euntonia, abenduaren 10ean gazta egiteko urratsak, otsailaren 11n ogia egiteari buruz ariko dira, martxoaren 11n denboraren bankuaz, apirilaren 8an elikadura osasuntsu bati buruzko mito eta egiak izanen dituzte hizpide eta maiatzaren 13an baratzea eta lorategia. Kasu guztietan, 18:30ean bilduko dira Arizkunenean.

Ogi tailerrak Amaiurren

Amaiurko Otsondo BARRIDE Elkarteak antolatuta, bi ogi tailer egingen dira irailaren 29an eta 30ean, euskaraz, 09:30etik 13:30era. Izena otsondo@terra.es-en edo 659 099309ra deituta eman daiteke. Bertetik, oleoz margotzen ikasteko ikastaroa ere antolatu du. Astelehenetan emanen da, 19:00etatik 21:00etara eta irailaren 21ean akituko da izena emateko epea: 659 948926 edo 948 453478.

MONTXO OSTATUA
TABAKO-BENDA

Tuturkariak | Gijotzekak | Piztook | Merox ekoizpenak

Tegurak jeki 09:00etatik 02:30era - Jantzeriak 7 km bita

ANJAN-BORDA - URZARUI | 948 599 039

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazarak eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etarbitasun eta jabilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta sumekoak

www.artekari.com

LEZAKA: Siltzio, 77. Behae - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

GIZARTEA → ABELZAINZA

Loizu hiltegiaren heia berritzeko lanak egiten ari dira asteotan

36.000 euroko aurrekontua dute obrek

TTIPI-TTAPA

Loizu udal hiltegia arautegirat moldatzeko 36.000 euroko aurrekontua duen heiaren berritzea egin du Udalak. Orain artioko heia paretan bidez banatua zegoen, hala, aitzinekoa urratu eta, ondotik, burdinezko kortxelen bidez banatutakoa egin da. Azienden atakak irekitzeko sistema aldatu eta langileendako pasarelak ere paratu dira.

Moldaketa horiekin, alde batetik, albaiteoren lana erraztuko da eta bertetik, langileen lan baldintzak ere hobetuko dira, ataka sistema berriarekin eta pasarelarekin segurtasuna bermatuko baita. Berritutako heiak animalien ongizate sailaren eta lan-arriskuen prebentzio arautegiaren baldintzak beteko ditu.

Heia berritzeko lanak buuruilaren 6an hasi ziren eta 21ean akituko dira.

Obrak Arakan enpresak egin ditu 13.963,12 (BEZ aparte) euroren truke eta barneko azpiegitura eta hornigaiaren ezarpena, berriz, Etxe-Holtzek, 14.960 euroko (BEZ gabe) aurrekontuarekin.

Gainerakoan, Udalak Loizu udal hiltegia arautegiaren eskakizunetarako moldatzeko orain arte guztira 17.000 eurora iristen diren lanak egin ditu. Hasteko azienden sarbidea hobetzeko alaka edo txafiana egin zen pareta batean. Gisa berean heia berriaren proiektua eta bertzelako lanen proiektua idazteko Udalak 1.500 euroyan ingeniaria kontratatu zuen. Bertetik, ur-araztegiaren sarea jarri zen, horrela xoriek hiltegitik ateratzen diren haragi hondarrak ez ditzaten jan. Animalien tripetako karkak eta aziendak kamioietan eramaten dituzten azpiak eta zikinak biltzeko ongarriendako le-

horpea ere egin da. Aziendak hil aitzinean zorabiatzeko erabiltzen den ekipoa berritu da (2.500 euro) eta aziendak tikiak hiltzeko (zerriak, ardiak eta bildotsak) box edo ataka berezia egin da (3.000 euro).

Akitzeko joan den abuztuaren 15ean udal hiltegiaren etorkizunaz eztabaidatzeko egin zen fororat sektoreko hamabortz eragile joan ziren; orain, eragile horiekin hiltegiarendako proiektu bat adosteko eta zehazteko aukera aztertuko da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Langileen eta azienden baldintzak hobetuko dira lanekin.

Esteribar eta Baztanen mugak

Gaiak auzibideetan bidea egiten duela aurreikusita, Esteribarrek eztabaidan paratu dituen herri-lurrei buruz azterketa egitea erabaki du Udalak eta lan hori Eusko Ikaskuntzari eman dio, erakunde horrekin duen akordioa go-goan hartuta. Azterke-

taren kostua 5.200 eurokoa izanen da. Horretatik, 1.500 euro aipatutako akordioaren baitan ordainduak daude. 3 hilabete iraunen dute lanek. Udalak Baztango interesen defentsan ahalik eta argudio juridiko-historiko argienak eta sendoenak izateko txostena egitea beharrezkoa ikusten du.

Lehendabiziko aldiz garagardo feria antolatu du errugbi taldeak hilaren 29an

«Garagardoa gustatzen bazaizu... Ezin duzu hutsik egin!». Horixe bera erranez, gonbidapena luzatu du Baztan Errugbi Taldeak irailaren 29rako antolatu duen lehenbiziko garagardo feriarako. Elizondon izanen da. 12:00etan karrika eta ostatuetan barna Bavariar poteoa egiten da, musikaren laguntzarekin. Ondotik, 25 euro balio duen bazkaria egiten da eta prezio horren barne, txerri-ukondoa, saltxitxak, patata purea, garagardo litro bat eta oparia sartuko dira. Txartelak Intza, Txokoto eta Futbolin ostatuetan paratu dituzte salgai. DJ Mokordok (Tirri&Tery) arratsaldean alaituko du, baina horrez gain, egun osoan haurrendako puzgarriak, hainbat garagardo dastatzeko aukera, saltxitxak, bokatak... izanen dira.



BAZTAN

GIZARTEA → 100 URTEKO ZESIOA AKITUTAKOAN

Casinoren jabetza argitzeko txosten juridikoa agindu du Udalak

7.400 euroko balioa du eta hiru hilabetez egingen da

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Casinoren jabetza argitzeko txosten juridikoa agindu du Udalak. Casino elkartearen jabetza argitzea agindu du Udalak. Casino elkartearen jabetza argitzea agindu du Udalak. Casino elkartearen jabetza argitzea agindu du Udalak. Casino elkartearen jabetza argitzea agindu du Udalak.

teak pasatu dira eta, orain gutxi, Casinoko ki-deak eraikina elkartearen izenean jartzeko tramiteak egitera udal-txerterat joan direlarik, paperetan Casinoren inguruko jabetza eskubiderik ez dagoela ikusi ahal izan da, hau da, Casino elkarteak ez duela eraikinaren gaineko jabetzaren dokumentaziorik. Gauzak horrela, eta egoera zehin den argitze aldera, Udalak beharrezkoa ikusi du



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gan den urtean 150 urte egin zituen Casinoak eta zaharberritze lanak egin zituzten.

txosten bat egitea eta horretarako Eusko Ikaskuntzarekin duen akordioa baliatuz, artxibategi ezberdinetan Casinoren egoerari buruzko ikerketa egiteko erabakia hartu du. Argitu beharrekia Casino elkartearen jabetza argitzea eskubidea ote duen da. Txostena egiteak 7.400 euroko

balioa du eta lan hori hiru hilabetez luzatuko da.

Eraikina jabetza publikoak dela argitzen bada, Udalak adierazi du helburua ez litzatekeela bertan egin dituzten inbertsioen eta lanen ondotik, Casino elkartearen kanporatzea eta eraikinaren hustuaraztea, eraikinaren jabetza publikoak aitortuz oraino zehazte-

ko dagoen akordio bat egitea baizik, eta horren arabera, erabilera eskubidea arautzea. Jabetza elkartearena dela argitzen bada, Udalak behar diren tramiteak egingen ditu ofizialki hala azaltzeko. Jabetza publikoaren defentsa administrazio publikoaren lanean lehentasunezkoa izan behar duela uste du.

deskontuak

ttipi txartelarekin beti irabazten du!

deskontuak + zozketak + aldiroko musutrik

Eskatu zurea: 948 63 54 58 telefonoz

573. ALEKO IRABAZLEAK

- * ELKAR LIBURU BAT + CD: Patxi Errandonea | BERA
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA: Maribel Latsa | SUNBILLA
- * AQUARIUM 2 SARRERA: Ana Isabel Iriarte | BERA
- * LANKU DVD + CD: Ana Errandonea | LESAKA
- * KATXIPORRETA 2 LIBURU: Jon Abris Otaola | BERA
- * URTXINTXA ESKOLA PUNPALAPLAN CD + DVD: Kontzi Lizasoain | DONAMARIA

zozketak

- AQUARIUM 2 SARRERA**
Donostiatik Aquarium-a
www.aquarium.com
- TXOKOLATE LOTEA**
Arkupe Gooztegia
www.arkupegooztegia.com
- LESAKAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA**
Lesakako Udala Igerilekua
www.lesaka.net
- KAMISETA BAT**
Ondred denda
www.ondred.com
- 2 LIBURU: PIRRITX + PIRROTX**
Pirritx, Pirrotx eta Marenzule
www.kaluzorrita.com
- LANKU LIBURU BAT + DVD + CD**
Lanku argitaletxea
www.lanku.com

ttipi-ttapa
Kontakotako b. 7 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 - www.ttipi.net

Isabel Elizalde Arretxea, Cederna Garalur elkarteko zuzendari-gerentea

“Cederna Garalur herritarrei hurbiltzeaz gain, euskaraz ari diren komunikabideak lagunduko dituen hitzarmena sinatu dugu”

Cederna Garalurrek egiten duen lanaren, gauzatzen dituen proiektuen eta Nafarroako Mendialdeko gizarte eta ekonomia eragileei bideratzen dizkien zerbitzuen berri emate aldera, 17 hedabideekin, tartean Ttipi-Ttapparekin, hitzarmena sinatu berri du.

Zein helbururekin landu duzue Cederna Garalur eta mendialdeko komunikabideen arteko hitzarmena?

Cederna Garalurreko zuzendaritza batzorde berriak joan den urteko urritik eta nik, urtarrilean hasi nintzen geroztik, argi izan dugu Nafarroako Mendialdean gehiago ikusi eta ulertu egin behar zela zer den eta zertarako dagoen Cederna Garalur, lurralde-garapenera bultzatzeko tresna dela. Behar beharrezkoa ikusten dugu hemendik eskaintzen diren zerbitzuak eta bultzatzen eta kudeatzen diren proiektuak herritarrengana ailegatzea. Bertzalde, ikusten genuen Nafarroako mendialde osoan badirela hainbertze hedabide: irrati, aldizkari, telebista eta Interneten diharduten hedabideak. Komunikaziorako arras tresna baliagarriak dira eta informazioa hedatzeko duten gaitasuna agerikoa da. Gehienak euskaraz ari dira eta euskara bultzatzen dute eta hor bertze arazo bat ikusi genuen: hedabide horiek gelditu direla Nafarroako Gobernuaren finantziatorik gabe eta guk bagenuela laguntzeko aukera bat.

Bien helburuak lortzeko, elkar laguntzeko tresna da sinatu dugun hitzarmena.

Cederna Garalurreko azken batzarren leloa ‘Zurekin, etorkizunerrako bulkada’ izan zen. Horrekin ere bat egiten du hitzarmen honek? Bai, erabat. Cederna Garalurrek bere



Jose Mari Aierdi (Cederna Garalurreko presidentea), Jose Manuel Irigoien (Ttipi-Ttapa Fundazioko kudeatzailea) eta Isabel Elizalde (Cederna Garalurreko zuzendari-gerentea)

lehentasunak finkatzeko eta Nafarroako Mendialdeak izaten ahal dituen helburuak lortzeko, hurbil egon behar dugu. Pausuak emateko, zonaldean eta zonaldekoekin elkarlana egin behar dugu. Orain diagnostikoak errebisatzen eta bertze hainbertze gauza egiten ari gara zonaldeka. Nafarroako mendialdean zortzi garapen-agente ari dira eta 20 urte baino gehiago daramazkete lanean, lana asko egin da eta lana asko oraindik egiteko.

Actualidad-Berriak berripaperaren desagertzea ekarriko du honek?

Bai. Haren orde, newsletter bat diseinatu dugu, email bidez hedatzen hasi gara norbaitek nahi badu inprimatu eta Herriko Etxeetan edo bertze lekuetan zintzilikatu, horretarako aukera emanen du.

Cederna Garalurrek ez ezik, mendialdeko bertze eragileek egiten

duten lana ere plazaratu nahi duzue...

Hitzarmen honekin bertzeek egiten dutena ere agertu nahi dugu. Arras interesantea ikusten dugu bertako ekintzaileak eta beraien proiektuak agertzea. Lurralde garapena egiten duten aktore aunitz gaude eta komunikabideek eskainiko diguten txoko horiek aktore horien iritzi-trukerako plaza izatea nahiko genuke.

GARAPEN AGENTEAK

Arantza Arregi,
606 43 13 57 bidaso@cederna.es

Izaskun Abril,
606 40 86 13 baztan@cederna.es

Elena Irigoien,
617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur
Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B
Orduetgia: 09:00 / 16:00
948 62 51 22
bidaso.admon@cederna.es



URDAZUBI

AZPIEGITURA → LEHIAKETAK

Zaragozako lehiaketa batera aurkeztu dute haurren parke berria

Haurrendako jolastokien lehiaketan sartuko da

52.543 euro kostatuko da parkea egitea

TTIPI-TTAPA

Haurrendako jolastokiak egiten dituzten udal eta tokiko entitatei bideratutako lehiaketa batera aurkeztu du Udalak monasterioaren ondoan eraiki berria den parkea. Zehazki, Zaragozako Ferian egingen den Expo Alcatia 2012 lehiaketara aurkeztu dute proiektua, eta 10.000 biztanletik beheitiko udalerrian kategorian sartu da. Sariketa honetan inguruarekin bat datorren jolas-eremua egitea baloratzen dute, sarbidea, diseinua eta gestio jasangarria. Azaroaren 13tik 15era bitartean egingen da lehiaketa Zaragozan.

Bertzalde, aipatu, uztaileko hilabetean hasi eta akitu duten parkea egiteko 52.543 euroko inbertsioa egin dela. Iruñeko Patxi Txokarro arkitektuaren lana izan da eta obra egin duena Maderplay enpresa izan da, berea izan baitzen aurkeztutako eskaintzen artean Udalak aukeratua.

Ikasurte berria

52 ikaslek hasi dute ikasurte berria Urdazubi eta Zugarramurdiko

eskoletan. Horietatik 16 Haur Hezkuntzan ari dira, 29 Lehen Hezkuntzan eta 7 Bigarren Hezkuntzan. Irakasleak, berriz, zortzi dira eta horiez gain, astean bi aldiz erlijioa eta musika etortzen dira.

Lehendabiziko aldiz aurten eskolan hasi diren 3 urteko haurrak bost dira: Aiora, Mirari, Leiane, Loiara eta Kaiet, denak ere urdazubiarrak. Eta DBHko lehendabiziko zikloa akitu eta Lekarozko institutura gan dena bakarra da, Imanol, hau ere urdazubiarra.

Moda desfilea Dantxarinean

Dantxarineako Lapi-txuri merkatalguneak bere arropa sekzioa beregiritatu behar duela eta, moda desfilea antolatu du igande honetarako, irailak 23. Desfilea dendan egingen da, 16:00etan, eta udazkeneguko jantziak erakusgai izanen dituzte. Hainbat marka erakutsiko dituzte: Guess, Diesel, Salsa, Desigual, Pepe Jeans, Roxy, Quicksilver, Billabong, DC, EDC, Les Temps Des Cerices, Japan Rags, Freeman... Horrez gain, desfilea akitu, zozketa bat egingen dute marka hauen jantzi batzuk banatuz.



ARGAZKIAK: LANDER SANTAMARIA

Monasterio ondoan dagoen parke berria.



ARGAZKIA: GOIO HUALDE

'La Conquerants' filmeko zati batzuk leizeetan grabatuko dituzte

Bisitari bereziak izan ziren irailaren 3an leizeetan, *La Conquerant* filma grabatzera etorri baitziren. Xabi Moliak zuzendutako pelikula da eta Denis Podalydes eta Mathieu Demi dira protagonistak, frantziar estatuan ezagunak diren aktoreak. *La Conquerant* filma Moliaren bigarren lan luzea da eta bi anaiorderen abenturak kontatzen ditu; Noé futbol talde bateko entrenatzailea da eta Gallad komediante bat. Azken honek maldizio baten biktimak direla konbentzituko du anaia, desagertutako euren aitak Grialak aurkitu eta saldu zuenetik. Zorte txarrekin akitzeko bi anai hori berreskuratu eta bere lekura itzuli nahiko dute: Euskal Herriko mendietara. Bi anaiordeek Ikaburuko leizeetan bilatu behar izan zuten altxorra. Egun osoan, teknikari, aktore, laguntzaileen artean 40 lagun aritu ziren lanean.

Egin zaitez
ttipi-ttapa ren
harpidedun
(0034) 948 63 54 58

CAFFÈ DE LA MAIRIE
CASA

BRANDONEA, S.L.
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

HEZKUNTZA → 50 URTE BETEKO DITU AURTEN

Hiru ikasgela berrietatik bat osoki elebiduna da aurten Arretxea kolegioan

Magali Zubillaga zuzendariarekin hitz egin dugu

Franck DOLOSOR

Irail hastapenean, oporrak bukatu eta eskolako bidea hartu zuten berriz herriko ehunka gaztek, hauean artean Arretxea kolegioan dabil-tzan 231 ikasleek. Aurten 50 urte beteko ditu Senpereko kolegioak eta karia hortarat, Magali Zubillaga bertako zuzendariarekin mintzatu da TTIPITTAPA. 36 urteko aldu-darra ezaguna da kantari gisa eta pilota partidak komentatzen baititu Iparraldeko Euskal Irratiak sarean. Baxe Nafar huentzat hamekagarren sartzea izan da Senperen eta aurten ere kolegioa zuzentzeaz gain euskara eta gaztelania irakasten segituko du.

• **Irailaren 3an, ohiturari jarraikiz, 11 urteko ikasle berri guztiak errezebitu dituzue. Nola iragan da eguna?**

Magali Zubillaga: Biziki inportanta da seigarrenak bakarrik errezebitzea. Hautua egin dugu lasaiki gela eta irakasleak ezagut ditzaten. Beste ikasle guztiak bihar-munean hasten dira lanean. Dena ongi doa baina urduritasun pixka bat bada beti bi aldetatik. Gu

usatuak gira baina sendi da lotsa direla ikasle batzuk. Lehen egunak dira, kezka. Seigarrenat sartzea aldaketa da haien-tzat eta burasoentzat.

• **Orain lau urtez ikasiko dute hemen?**

MZ: Normalki lau urte pasako ditugu elgarrekin, ez badira bidez aldatzen. Gure hezkuntza proiektuan leku haundia ematen diogu elebitasunari. Aurten, hiru geletatik bat elebiduna da osoki. Indar egiten dugu euskaraz gain, beste ikasgaiak ere euskaraz irakasteko: historia-geografia, kirola eta biologia. Uste dut euskararen tokia aitzinatu dela azken 11 urteetan, nahikari bat baita. Elebitasuna Senperen, nola ez? Bada euskaldun erro bat halai-ke hemen! Heren bat sail elebidunean ikasten ari da eta haientzat proiektu desberdinak ditugu. Eskola elebidunetatik etortzen da ikasle frango: Senpere, Sara, Azkainedo Zuraide; segitze bat da haientzat. Kolegioa bukatzeko azterketa, *brevet* delakoa, historia eta geografia euskaraz egin dezakete. Duela bi urte lehen aldikoz egin zuten euskaraz. Bertalde, bigarren urtea da seigarrenean beste bi hizkuntzen artean hauta bade-la, ingelesa edo espainiarra. Geroago, lau-garrenean bi hizkuntzak



Magali Zubillaga Arretxea kolegioko zuzendaria.

EUSKARA

«Euskararen tokia aitzinatu egin da azken 11 urteetan, nahikari bat baita»

Magali ZUBILLAGA
Arretxea kolegioko zuzendaria

sartzen dira bi urte lehenago egin zuten hautua-ren arabera.

• **Arretxea ikastegi ttikia gero eta haundia-goa bilakatzen ari da?**

MZ: Aski ttikia da, neurri politekoa, eta aurten sartzeko hoberena dugu kopuru aldetik: 231 ikasle 10 geletan banatuak eta 25 irakasle-hezizaile gazte hauen zain-tzeko eta laguntzeko. Dena antolatuta behar da: irakaskuntza, proiektu pedago-gokiko berriak, bastingenduak begiratu... baina talde biziki ona dugu eta zinez plazer bat berri-urte bat abiatzea elgarrekin. Arretxean bi gauza pasarazi nahi ditugu: kolegioak galdegiten dituen jakitateak, pundoan izan dituen bakoitzak bere urteko programarekin; eta gero bizitzeko manera bat. Kolegio gixtinoa da eta bakoitzari ardura haundia eman nahi diogu, bakoitzak bere tokia sendi dezan bertzeen errespetuan. Nekezian den hau-rari bere lekua atzeman

dezan laguntzen diogu, denek baitute zerbait on eta zerbait egiteko. Tailer ainitz eta bidaiak proposatzen ditugu idekidura emateko. Hau eskola bat da, baina horren ondoan nahi dugu bakoitzak bere lekua atzeman dezan eta biharko gizar-teari buruz presta dadin. Seigarren eta bortzgarrenek badute erlijioari buruzko ikasgaia eta geroago gogoeta denboral-diak egiten ditugu. Astia hartzen dugu urte hastapenean kolegio osoa biltzeko eta partitzen gira kurri denak elgarrekin. Gero hitzorduak baditugu berriz biltzeko urtean zehar, elgarrekin bizitzen ikasteko eskolan eta eskolatik kanpo. Balore horiek eguneroko izateko maneran ditugu, ez da deus arrarorik gauza humanistak baitira.

• **Maiz irakasleak ke-xu dira baliabiderik ez du-telakoan, zuek ere ho-lako arazorik jasaten du-zue?**

MZ: Egiazki, ez hain-bertze. Harremanak ez dira beti errexak Akade-miako errektorearekin baina entseatzen gira aitzinatzea beti ekiparen dinamismoarekin. Babetuak gara pixka bat hemen eta orokorrean baldintza onetan ari-gira. Eguneroko biakiak ekar-tzen ditu arazoak ikasle

bat kolpatzen delarik, bere etxeko lanak ez ditue-larik egin, gaizki mintza-tu zaiolarik irakasle bati; baina horretarako gau-de hezitzaileak eta de-nek elgarrekin ainitz hitz egiten dugu aterabideak atzemateko. Hortan da gure indarra eta bur-soek konfiantza ematen daukute. Xantza haun-dia dugun hemen irakas-le izatea, ez dute denek xantza bera baldintza ho-berenetan erakasteko. Batzuk badakit, eta ez hain urrun ere, tripan bel-durrarekin joaten direla lanerat. Horrek ez du ba-lilio, dugun xantza behar dugu preziatu. Baina ko-legio zailetan ere behar dira irakasleak. Agian, ongi inguratuak dira, eta indartsu! Jainkoari esker mementuan arunt urrun gira hortatik.

• **50 urtez ehunka-mi-laka ikasle pasatu da Arretxean baina atxiki-mendua biziki haundia da beti?**

MZ: Plazer egiten du harremanak atxikitzea. Gero lizeorat joaten dira eta ortziraletan hemen baino goizago bukatzen baitute etortzen dira hu-nat eta solas egiten du-gu. Gure ikusterat etor-tzea baikorki ikusten du-gu. Ikasturte hondarrean 50. urtemuga ospatuko dugu Gérard Luc irakas-le eta musikariarekin.



EZKONTZAK

Diego Martinez eta **Ainhua Iguzkiagirre**, Lesaka eta Ibarakoa urriaren 6an Urnietan.

Gorka Irazoki Etxeberria eta **Leire Andueza San Jose**, Berakoa eta Irungoa, irailaren 1ean, Igantzín.

Joseba Villanueva Rodriguez eta **Patricia Andueza Martiarena**, Ezkurakoa eta Doneztebekoa, irailaren 1ean Donezteben.

Asier Mutuberria Mindegia eta **Elur Juanena Lakar**, Doneztebekoak, irailaren 1ean Donezteben.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Gexane Elizalde Elizetxe, Urdazubikoa, abuztuaren 25ean.

Enara Mariñelarena Irisarri, Legasakoa, uztailaren 21ean.

Irati Telletxea Iriarte, Berakoa, irailaren 5ean.

Irati Martinez Sagastibeltza, Leitakoa, ekainaren 19an.

Enara Mendiburu Galarregi, Etxalarakoa, abuztuaren 31n.

Nahikari Gonzalez Goikoetxea, Sunbillakoa, abuztuaren 30ean.

Marko Igoa Arretxea, Sunbillakoa, irailaren 2an.

Catalina Laura Bratan, Doneztebekoa, irailaren 6an.

Izar Bornard Indabere, Legasakoa, abuztuaren 19an.

Xabier Loitegi Zabaleta, Leitzakoa, irailaren 1ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Francisca Mariezkurrena Zozia, Doneztebekoa, abuztuaren 29an, 91 urte.
Jose Arzuaga Saldias, Urrozkoa, abuztuaren 30ean, 82 urte.

Anastasia Telletxea Mindegia, Alkaigakoa, abuztuaren 31n, 90 urte.

Pilar Matxin Iso, Elizondokoa, abuztuaren 31n, 89 urte.

Lorentxo Mortalena Oteiza, Elizondokoa, abuztuaren 31n, 47 urte.

Francisca Teodora Catalan Ruiz, Donezteben, abuztuaren 30ean, 93 urte.

Mercedes Argedas Ilintxeta, Elizondokoa, irailaren 1ean, 87 urte.

Francisco Olaetxea Odriozola, Lesakakoa, irailaren 1ean, 90 urte.

Mari Feli Salaberria Gaztañaga, Leitzakoa, irailaren 3an, 58 urte.

Nikolas Telletxea Arozena, Igantzín, irailaren 10ean, 89 urte.

Miguel Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, irailaren 8an, 84 urte.



HERRI KIROLAK → ZAZPI HERRIALDEEN TXAPELKETA

Aurten ere bigarren izan da Nafarroa Herrialdeen Txapelketan

Txokorretan lehenbiziko postua lortu du Fernando Etxegaraik

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezala, aurten ere bigarren sailkatu da Nafarroa Garaia XXIV. Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketan. Baina aldi honetan Bizkaia izan da nagusi, 2003az geroztik txapelketa irabazi gabe egon ondotik. Txapelketa Getxo-Algortan (Bizkaia) jokatu zen irailaren 8an. Bizkaiak 50 puntu eskuratu zituen, eta lau puntuko aldeak kendu zion Nafarroa Garaia, hamahirukoa Gipuzkoari eta hamabortzekoa Lapurdiri. Araba bosgarren sailkatu zen eta Nafarroa Beherea seigarren. Zuberok, aldiz, ez zuen parte hartu.

Bizkaia lau kiroletan nagusitu zen: ingudealtzatzen (Joxe Lapazaran) eta lasto-altzatzen (Jon Lapazaran), orga jokoan (Oskar Perez) eta aizkoran (Aitzol Atutxa). Nafarroako taldeari dagokionez, hiru kiroletan lortu zuen garaipena: **Fernando Etxegaraik** beratarrak txokorretan, **Unai Bertiz** berriozarko taldeak zaku-eramate lasterketan eta **Utzamako Iñaki** eta **Jose txo Urrutia** Barberena anaiek arpanean. Gipuzkoak txinga-eramaten eta harri-jasotzen irabazi zuen eta Lapurdik sokatiran.

Eskualdeko gainerako kirolari dagokienez,



ARGAZKIAK: KOLDO ALDUNTZIN

Goian, ezkerrean Fernando Etxegaraik txokorretan eta eskuinean Jose txo Urrutia ingudearekin; erdian, ezkerrean Unai Bertiz harriarekin eta eskuinean Karlos Sein lasto altzatzen; behean, ezkerrean sokatira taldea, tartean Amaiurkoak, eta eskuinean Lazaro Bujan orgarekin.

Amaiur, Berriozar eta Basaburua-Imotzeko sokatira taldea laugarren gelditu zen; **Jose txo Urrutia** leitzarria bigarren izan zen ingude altzatzen, **Karlos Sein** igantziarra hirugarren lasto-altzatzen, **Unai Bertiz** sunbildarra hiru-

garren harri-jasotzen eta **Lazaro Bujan** leitzarria bosgarren orga-jokoan. Txingak eramaten Arzuriko Francisco Etxeberria aritu zen Nafarroako taldean eta bigarren gelditu zen eta aizkoran Juanjo Lopez lezaundarra, eta hau ere

bigarren izan zen.

| SAILKAPENA | | |
|------------|------------|-------|
| 1 | Bizkaia | 50 p. |
| 2 | Nafarroa | 46 p. |
| 3 | Gipuzkoa | 37 p. |
| 4 | Lapurdi | 35 p. |
| 5 | Araba | 24 p. |
| 6 | N. Beherea | 13 p. |

FLASH

Herri kirol txapelketak

Herri kirola gustuko duenari ez zaio aukerarik faltako datozen egunetan. Igandean, irailak 23, **Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketa** kanporaketa jokatu da Uhartean, 17:30ean hasita. Han izanen dira Floren Nazabal, Donato Larretxea, Juan Jose Lopez, Jon Rekondo, Ander Erasun, Aitor Senosiain, Oihan Larretxea, Julen Kañamares eta Juan Jose Erdozia. Lehen borts sailkatuek finalerako txartela eskuratu dute eta finala urriaren 7an egingen da Etxarri Aranatzen. **Nafarroako Harri-Jasotze txapelketa** Ingantzi hartuko du, hila- ren 29an, 18:00etan. Unai Bertiz, Jose txo Urrutia eta Xabier Ariztegi ariko dira, eta le- rro hauek idaztera- koan konfirmatu ga- bea zuten Xabier Igoa eta Aitor Oiarbide ere bai beharbada.

Hauteskundeak Herri Kirol Federazioan

Nafarroako Herri Kirol Federazioko Batzarra eta Lehendakaria hautatzeko hauteskundeak aurten egingen dira. Hauteskunde prozesua irailaren 25ean hasiko da. Behin deialdia egin- da, urriaren 8tik 10era izanen da Batzar Nagu- sirako hautagaiak aur- kezteko aukera. Urria- ren 20an Federazioko Batzar Nagusiko ki- deak hautatzeko bozke- ta egingen da eta azaroa- ren 17an Batzar Nagu- sia eratzeko deialdia egin eta Federazioko burua hautatuko dira. Azaroaren 28an hartu- ko du kargua Federa- zioaren buruak.

Gutxi batzuk baino ez dira harriari tiraka edo emakume-probetan ibiltzen diren emakumeak. Baina aurten, beste talde bat sortu da Ergobin (Astigarraga, Gipuzkoa). Zortzi nes-

kako taldea osatu dute, eta tartean dabil Lurdes Legarreta (Arano, 1980). Aranoarra da sortzez, baina Ergobin bizi da eta hango taldearekin bi desafiotan parte hartu du,

lehen a zaldi baten kontra eta bigarrena lau mutilen kontra. Biak ere irabazi dituzte. Sobera hedatua ez den kirol honi buruz xehetasun gehiago eman dizkigu Legarretak.

Lurdes LEGARRETA | Emakume-probetan dabilen aranoarra

«Neskak mundu honetan gutxi sartuak gaude, baina edozeinek egin dezake»

G. PIKABEA | ARANO

Parrandan sortutako erronka bat tarteko hasia da Lurdes Legarreta harriari tiraka edo emakume-probetan. Aranoarra sortzez, Ergobin bizi da eta joan den urteko hango festetan abiatu zen dena: «iazko Ergobiko festetan, parrandan bertu eta bi mutil 900 kiloko harriarekin hasi ziren, eta Jai Batzordeko neskei haiek ez zutela mugituko desafioa botatzieten. Neskak bertu eta jendea behar zenez, ni ere tartean sartu ninduten. Ez genuela mugituko esaten ziguten, eta azkenean lortu genuen 900ekoa mugitzea, nahiz eta gero apustua ttikiagoarekin egin». Halaxe hasi zen Legarreta emakume-probetan.

Iaz erronka bota eta aurten egin dituzte apustuak, Ereñozun ekainean (Hernani, Gipuzkoa) eta Ergobin abuztuan. Ereñozun neska kuadrillak eta zaldi batek egin zuten apustua, 25 metroko plazan 20 minutuz zeinek gehiago egin, neskak 550 kiloko harriarekin eta zaldiak 900 kilokoarekin. Zaldiak nesken emaitza bikoiztezen kontua: «42 plaza egin eta irabazi egin genuen. Zaldiak indarra soberan bai, baina denboraren barne ezin izan zituen minutuko lau plaza egin», dio aranoarrak.

Eta Ergobin zortzi neska lau mutilen aurka aritu ziren, 550 kiloko harria-



UTZITAKO ARGAZKIA

Behoko lerroan, eskuinetik hasi eta bigarrena da Lurdes Legarreta aranoarra.

rekin 20 minutuz 22 metroko plazan zeinek gehiago egin: «katea hautsi zitzaigun eta bi minutu eta gehiago galdu genituen. Hala ere, 52 plaza egin eta gutxigatik izan arren, irabazi genien».

Lehendik herri kirole-tan «bateren» ibili gabe hasi da harriari tiraka Legarreta, eta esperientzia «polita» izan dela dio, baina aldi berean, «sufritua eta gogorra» dela: «20 minutuak oso luze egiten dira. Kanpotik begiratuta errezagoa dirudi, baina barnean zaudela, sufritu egiten da». Ez direla ezer ez egitetik hasi aitortu digu, baina «pixka bat gehiago eskatzen duela», uste du. Apustuaren aurretik, harriarekin astean bi

NESKA GUTXIKO KIROLA

«'Zuek al zarete atera behar duzuen neskak? Neska haundi batzuk izango zintela uste genuen', esan ziguten Ereñozun proba aurretik. Emakume-probetarako, nonbait, kaxkarrak ikusten gintuzten, eta apustuaren ondotik, denak isilik gelditu ziren. Neskak mundu honetan gutxi sartuak gaude, baina pixka bat prestatuz gero, edozeinek egingeko modukoa da. Esperientzia polita izan da, baina gogor xamarra iruditu zait».

aldiz aritu ziren entrenatzen, Lezoko Iratxe eta Urretxuko Egoitzen aholkuei segituz. Dena den, entrenamenduetan ez zituzten harriari tiraka 20 minutu egiten, «bost minutu tira, beste bost atsedena... Serie desberdinak egiten genituen», azaldu digu. Hortik aparte, korrika, mendian ibili... «hankak indartzeko».

Hiru lerrotan banatuta ibili diren nesken artean, atzeko postua tokatu zait aranoarrari eta hortaz, batez ere gerritik sufritu du: «lehen lerroan doazenek sorbaldan gehiago sufritzen dute, erdikoek bizkarraren erdi parean eta azkenekoek gerrian».

Fisikoki ongi egoteaz gain, psikologikoki gogo-

rra ote den ere jakin nahi izan dugu: «ez da hain hainbesterako—dio—, baina norbere buruari azkeneko aguantatu behar dela esan behar zaio». Horrekin batera, «denek batera pausua ematea garrantzitsua dela» kontatu digu: «pausua batera ez emanagatik 550 kiloko harria aise mugitzen genuen. Lau laguneren artean ere mugitu izan dugu. Baina pausua denek batera ematea garrantzitsua da. Harri haundia goekin indarra ere behar da, baina 550 kiloko harriarekin erresistentzia garrantzitsuagoa da».

Zortziko neska koadribitan atera da orain arte plazara eta bietan irabazi du. Gainera, aranoarrak bere burua «uste baino hobeto» ikusi duela esan digu: «eguna ailegatu arte 20 minutu segidan ez genituen sekula egin eta 20 minututara ailegatu ginen ala ez beldur ginen. Baina uste baino hobeto moldatu gara». Sasoi hori aprobetxatuz, akaso hurrengo desafioa ere irabaziko dute. Oriotik jaso dute deia, emakume-probetan dabilen hango neska taldearen kontra Orioko San Nikolasetan apustua jokatzeko. Aranon ere probatu ote lukeen galdetu diogu eta zera erantzun digu: «aldapa pixka bat bada, ez dago prestatua, baina hasiz gero, tokia bilatuko genuke».

HERRI KIROLAK → EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Maika Ariztegi 12. txapela jantzi du Euskal Herriko Txokor Biltze Txapelketan

Gainera, lau segundotan hobetu du marka

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko emakumezkoen eta gizonezkoen txokor biltze txapelketak jokatu ziren irailaren 1ean Donostian eta bietan aipagarria izan zen kirolariak egindako lana. Emakumezkoetan, Maika Ariztegi iturendarrak hamabigarrenez jantzi zuen txapela eta ondu egin zuen bere marka. Gizonezkoetan, Fernando Etxegarai beratarrak bigarren sailkatu zen eta Patxi Irazoki igantziarra laugarren.

EMAKUMEZKOAK

Sei kirolari aritu ziren le-



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Sasoi betean dago Maika Ariztegi iturendarra, 40 urterekin Euskal Herriko marka ondu du.

hian. Maikari (40 urte) txokorrek saskiratu ahal, garbi ikusi zitzaion Euskal Herriko marka ontzeko bidean zela, eta bi kale egin arren, txapela jantzi zuen hamabigarrenez eta lau segundotan hobetu zuen

berak lehendik egina zuen Euskal Herriko marka. 07:13ko denbora egin zuen; bigarren Josune Gorostidi sailkatu zen (Gipuzkoa, 44 urte; 07:34), hirugarren Naiara Ferran (Araba, 28 urte; 07:51), laugarren Nerea Arriza-

balaga (Gipuzkoa, 36 urte; 07:52), bosgarren Gazarri Arruti (Bizkaia, 26 urte; 08:01) eta seigarren Itxaso Hernandez (Araba, 34 urte; 08:37).

GIZONEZKOAK

Gizonezkoetan zazpi ki-

rolari aritu ziren lehen eta bizkorrena Eneko Garmendia izan zen (Gipuzkoa, 31 urte), 06:02ko denbora eginez. Fernando Etxegarai 40 urteko beratarrak bigarren gelditu zen (06:15), Gotzon Zulaika hirugarren (Gipuzkoa, 22 urte; 06:27), Patxi Irazoki 34 urteko igantziarra laugarren (06:31), Alfonso Alvarez bosgarren (Bizkaia, 41 urte; 06:40), Gorka Alegria seigarren (Araba, 33 urte; 06:47) eta Aritz Ruiz zazpigarren (Araba; 06:50).

Txapelkunak denbora ondu egin arren, oraindik Etxegarairena da marka. 2004an 05:57ko denbora egin zuen eta hori da oraingoz marka. Euskal Herriko Txokor Biltze Txapelketa zazpi aldiz irabazia du Etxegarai.

TXIRRINDULARITZA → EGUN BEREAN BI HITZORDU

Mendi bizikleta ibilaldiak eginen dira igandean Bidasoko bide berdean eta Beran

Bi kasuetan egun berean eman behar da izena

TTIPI-TTAPA

Mendi bizikleta gus-tuko dutenek horretarako aukera ederra dute aste hauetan. Joan den asteburuan, Lesakan Betti Gazte Elkarteak antolatuta eta Plazaolan hango Partzuergo Turistikoa-ren ekimenez, bi proba

egin ziren. Igande honetan ere izanen da aukera, eta egun berean bi hitzordu izanen dira: Bidasoko bide berdean eta Beran XX. BTT ibilaldian.

BIDE BERDEAN

Bertziko Partzuergo Turistikoa-ren ekimenez, bosgarren mendi bizikleta proba eginen da igandean, hilak 23, Bidasoko bide berdean barna. Honela antolatu dute egitaraua: 10:15ean helduen ibilbide garraioaren irtee-

ra eginen da Bertiztik, 10:30ean helduen izen-emateak Behobian, 11:15ean helduen ibilbidea hasiko da Behobiatik (42 km). 11:30ean hurren ibilbide garraioaren irteera Bertiztik, 11:30ean hurren izen-emateak Sunbillan, 12:30ean hurren ibilbidearen hasiera Sunbillatik (15 km), 13:30ean bi ibilbideen bukaera Bertizen. Ondotik opari banaketa eta jakitipikoaren dastaketa. 14:30ean bazkaria.

BERA

Gure Txokoa Elkarteak XX. BTT ibilaldia antolatu du Beran. Hiru ibilbide izanen dira aukerak: helduentzako bi eta haurrentzako berte bat.

Ibilbide luzea Matzadatik aterako da, handik Alkaiaga industrialdera joanen da, gero Sarraia, Elorlepo, Manttale, Ibardin, Usategieta, Landagaita, Gondendiaga, Lizuniaga, Idoiako lepoa eta Santa Barbaratik pasatu ondotik, Matzadan

bukatuko da. Ibilbide motza aukeratzen dutenek luzearen berdina egiten dute, baina Sarraiatik zuzenean Ibardinera joanen dira. Haurrena, aldiz, Postasetik aterako da eta Ibardinera joanen dira, gero Usategietara eta Zumalkotik Lizuniagako errepidea hartuta Matzadara jeitsiko dira.

Izen-ematea, Matzadan eginen da 08:00etatik 09:30era. Parte hartzaileen artean oparienez zozketa ere eginen da.

irailak 20 - urriak 4

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Lehiaketak



ELIZONDO | 2012.09.21/23

Piriniar arrazako behien lehiaketa-enkantea aurten ere

Kinkan egon bada ere, asteburuan egingen da piriniar arrazako behi-azienda lehiaketa-enkantearen 25. edizioa. Azienda bikainenak sarituko dituzte.

Kantaldiak



ELIZONDO | 2012.09.23

Xalbadorren bat-bateko mirakulua Amurizaren ahotik

Xalbador bat-bateko mirakulua kantaldia eskainiko du Xabier Amurizak igande honetan 19:00etatik aitzinera Arizkunenean.

Ospakizunak



ERRATZU | 2012.09.30

Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango eskolen besta

Ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuko dituen besta Erratzun egingen da aurten. Goiz eta arratsalderako ekitaldiak prestatu dituzte.

BERA

Bortzirietako Haurren Eguna

Irailaren 29an antolatuta du Labiaga ikastolak, egun osoko ekitaldiekin. Xehetasunak 16. or.

BERA

Dantzari Ttiki Eguna

Irailaren 29an antolatuta du Gure Txokoa Dantza Taldeak. Xehetasunak 16. orrian.

Bestak

IGANTZI

San Migel bestak

Irailaren 22 eta 23an eta irailaren 28tik urriaren 1era San Migel bestak. Xehetasunak 11. orrian.

URROZ

San Migel bestak

Irailaren 28tik urriaren 1era San Migel bestak. Xehetasunak 24. orrian.

SENERE

Ibarrungo bestak

Irailaren 28tik aitzine-rra auzoko bestak. Xehetasunak 573. alean.

DONEZTEBE

Besta ttikiak

Irailaren 21 eta 22an besta ttikiak. Xehetasunak 23. orrian.

AMAIUR

Errebestak

Irailaren 21 eta 22an errebestak. Xehetasunak 38. orrian.

ERRATZU

Errebestak

Irailaren 22an errebestak. Xehetasunak 38. orrian.

Zinema

IRURITA

'Gazta zati bat' dokumentala ikusgai

Irailaren 21ean

Erakusketak

URDAZUBI

Monasterioko kalostrean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monasterioko kalostrean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa.

OIEREGI

Diana Iniestaren lanak Bertizen ikusgai

Urriaren 31 arte Diana Iniestaren margo eta marrazki erakusketa Bertizko Parkean, *Principios* izenburupean. 10:30-13:30era eta 16:00-17:00.

Kontzertuak

ELIZONDO

Xalbador, bat-bateko mirakulua

Irailaren 23an *Xalbador, bat-bateko mirakulua* kantaldia eskainiko du Xabier Amurizak 19:00etan Arizkunenean. Baztango Euskara Batzordeak antolatuta.

Solasaldiak

ELIZONDO

'Euskaraz bizi nahi dut' Iñaki Lasaren eskutik

Irailaren 20an *Euska-*

raz bizi nahi dut hitzaldia eskainiko du Iñaki Lasa Kontseiluko kideak 19:00etan Arizkunenean. Baztango Euskara Batzordeak antolatuta du.

ELIZONDO

Javier Cigari buruzko liburaren aurkezpena

Irailaren 21ean *Javier Ciga: pintor de esencias y verdades* libururuaren aurkezpena egingen du Pello Fenandez Oyaregui egileak Baztan Etnografia Museoan 19:00etan.

LESAKA

Haur eramaileak eta haziera hizpide

Irailaren 22an haur eramileen eta hazierari buruz hitz egingen dute Meitai-maiteiekoek. 10:30etik 12:30era Dasya zentroan.

Ikastaroak

AMAIUR

Ogi tailerra

Irailaren 29 eta 30ean ogia egiteko ikastaroa euskaraz 09:30etik 13:00etara Otsondo elkarteak antolatuta.

AMAIUR

Oleoz margotzen ikasteko

Irailaren 21era arte izena ematen ahal da izena. Gazte zein helduei zuzendua, Diana Iniestarekin astelehenean (19:00-21:00).

Ospakizunak

ERRATZU

Herri Eskolen besta

Irailaren 30ean herri eskolen besta antolatuta dute Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolek.

PROPOSAMENA

IGANTZI-URROZ

San Migel bestetan murgilduko dira

Udazkenean sartu berri-ritan, San Migel bestetan murgilduko dira Igantzin eta Urrozen. Bietan bezperan, hila- ren 28an botako da txupinazoa, lau eguneko ospakizunei bide egine. Baina Igantziko kasuan, aitzineko aste- buruan ere hainbat eki- taldi izanen dira, tar- tean gazta lehiaketa eta aurten 33. edizioa beteko duen artzain zakur txapelketa.



Gazta zati bat dokumentala ikusteko aukera Damaso Zabalza Bilgunean, 20:00etan, Iruritako gazteek antolatuta.

Antzerkiak

AMAIUR

Txan magoaren magia ikuskizuna

Irailaren 21ean Txan magoaren ikuskizuna haurrendako, 17:00etan. Amaiurko Otsondo Barride Elkarteak antolatuta.

ELIZONDO

Kale antzerkia

Irailaren 22an kale antzerkia Elizondoko plazan, eguerdian. Baztango Kultura Batzordeak antolatuta.

Lehiaketak

ELIZONDO

Piriniar arrazako behien lehiaketa enkantea

Irailaren 21etik 23ra Piriniar arrazako behien lehiaketa lehiaketa/enkantea.

Mendi ateraldiak

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Irailaren 23an Aizkolegitik Etxalarrerat ateraldia.

SUNBILLA

Ulibeltzak mendi taldea

Irailaren 22-23an Tailonera ateraldia.

LEITZA

Mendibil mendi taldea

Irailaren 23an Azpeitia-Erlo-Zestoa ateraldia eginen dute. Izenematea irailaren 19a baino lehen.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Sacamantecas nuen aita

AITOR ARANA

Txalaparta, 2012

Juan Diaz de Garaio arabarrak sei emakume bortxatu eta erail zituen Gasteiz inguruan 1870 eta 1879 urte bitartean. Haietako batzuk era ikaragarrian mutilatu zituen eta urteotan haurrak izutze-ko erabili zen izengoitiarekin igaro da historiara: Sacamantecas. Aita garrotez hil eta hainbat urtera, Santa Klara komentuan moja den Diaz de Garaio-ren alabak eskuratuko dituen egunkari txataletatik abiatuta, Aitor Aranak Sacamantecas-en historia berreraikiko du. Hala, bada, kontakizunean, alaba baten umezaroko oroitzapen gozoezin nahastuko dira Euskal Herriko hiltzailerik ezagunenaren ibilera lazgarriak. «Sacamantecas-ek bi seme eta alaba bat zituen —azaldu du egileak—, baina semeak ez zitzaizkidan baliagarriak istorioa kontatzeko: batak Kubara egin zuen ihes; bertzeak, berriz, eskale ibili zen Gasteiz inguruan. Idazten zekien norbait behar nuen, eta ikusirik alabaren inguruko informazio aunitzirik ez zegoela, erabaki nuen moja sartzea, eta istorioa berak kontatzea».

Musika




Iglu bat basamortuan

LAUROBA

Elkar, 2012

Harrigarria izanen litzateke basamortuetako du-nen atzean, gamelu talde baten pasabidean, iglu bat ikustea. Edo Ipar poloko izotz iraunkorren artean, hondartzako hamaka eta eguzkitakoa aurkitzea. Baina bizitza, kontrakoen indarrean oinarritzen da, izate handiago baten bi alde balira bezala, osagarriak baina aurkakoak. Bizitza, azken batean, kontrakoen arteko borroka etengabea da. Gauda-eguna, maitasuna-gorrotoa, itsasoa-lehorra, zerua-lurra, hotza-beroa, negarra-barrea, bizitza-heriotza... Ederki daki hori guztia Laurobak, kontrasteen arteko orekan energia-sorburu amaigabea topatu duen taldeak. Iker eta Haritz Lauroba anaiek sortu zuten taldea 2004an, 2005ean maketa batekin aurkeztu zuten taldea, hurrengo urtean Donostiako Pop-Rock lehiaketa irabazi zuten eta, orain arte, bi disko argitaratu dituzte. *Iglu bat basamortuan* dugu euren azken lana, denen artean aurrerakoiena eta harridura gehien sortzen duena.

Internet



Twitter sare sozialaren interfazea euskaraz

WWW.LIBREZALE.ORG

Librezale euskara informatikaren munduan bul-tzatzea helburu duen lantalde irekia da. Edozeinek har dezake parte nahi duen modura eta nahi dion denbora eskainiz. Jatorri eta ikuskera aunitz-eko lagunak ari dira Librezalen, baina denak ere oinarritzeko printzipio batzuk segitzen dituzte. Hasteko, aplikazio informatikoak euskaraz edukitzeko lan egiten dute. Horretarako, euskarazko softwarea sortzen duen edo softwarea euskaratzen duen edonori bere laguntza eta esperientzia eskaintzen diote. Software librea lehenesten dute, askatasun gehien ematen duena delako. Beraien lanak ere lizentzia libreekin banatzen dituzte, egindako lana etorkizunerako ere baliagarria izatea nahi dutelako. Azken helburua (informatikan ere libre eta euskaraz aritzea) soilik beraiantzat lortzearekin ez dira konformatzen, «hori inguratzen gaituen gizarte-ari zabaldu nahi diogu».

Nire aukera



Urtzi LOIARTE
Igantzioko gaztea

«Realak etxean jokatzeko partida guztiak ikusten ditut»

Arriozko supermerkatuko lanaz gain, Igantzioko udal zinegotzi, Biltokiko juntakide eta herri kiroletako epaile da Urtzi Loiarde. Gauza bat dela, bertzea dela, ez du denbora libre gehiegirik, baina «possible dugunean lagunekin astean bi edo hiru aldiz frontenisean aritzeko astia hartzen dugu». Asteburuetan, berriz, larunbat eguerdira arte lan egiten du eta bi astetik behin «Realak etxean jokatzeko duen bakoitzean Donostiara hurbildu eta futbol partida ikustera joaten gara, sozioa naiz-eta». Gainerakoan, «lagunekin elkartu eta afaritxo bat egin, buelta bat eman, inguruko herriren batean besta egin...», gus-tatzen zaio. Bidaiatzeko zaletasun handirik ez du Urtzik, baina «lagunekin Tenerifera egindako bidaiak» gogoan du: «Egunerokotik deskonektatu, aste batez zure airera ibili eta giroz aldatzea ongi etortzen da». Urruti joan gabe, «Euskal Herria tikiak dela iruditzen zaigu, baina ezagutzen ez ditugun gauza aunitz» ba-daudela uste du.

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONOZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, mobleztaua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabek salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ZUGARRAMURDI.

Etxebizitza berria salgai. 160 m²ko etxea, sukaldia egongelarekin, hiru logela eta bi bainugela, garajea eta bi kotxerentzat. ☎619 461423-615 744433.



DONEZTEBE. 2 logelako bizitza berritua salgai. 15m²ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galtzen! ☎630 160353.

LESKA. 66 m²ko pisua salgai herri erdian. 2 trasteleku, garajea eta igogailuarekin. Berri-berria. Prezio negoziagarria. ☎657 708866.

LEITZA. Duplexa salgai Kale Nagusian, Etxe txu-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

riizeneko eraikinean. Prezioa adosteke. ☎676 954464.

LEITZA. Pisua salgai,




Landa-Goikoa 16 (lehen-go Renault gainean). Hirugarrena. Igogailua badi, bi komun, barne patioa estalia (arropa lehortzeko)... Urte batzuk badi pisuak baina ongi dago. Zenbatean?: 155.000 € (26 milioi azpitik). Interesatua bazaud, mintzatu garbi eta nik uste konponduko ginatekeela (espekulatzeko: ez). ☎619 530386 / antton.leitza@gmail.com.

UZTEGI etxea salgai 250.000 eurotan edo errentan hartzeko, erosteko aukerarekin. Betelutik 2 kilometrora eta Donostiatik 30 minutura. Etxeak lau solairu ditu, 90 m² solairu bakoitzean. Logela nagusiak 90m² ditu, 16 m²ko bainugela jacuzzi eta tximiniarekin. Beste hiru logela eta egongela tximiniarekin. 1.000 litroko gasolio depositua, erradiadoreak. Teilatuaren egoera ona. 15 minutura 5.000 m²ko herri-lurra, eta etxe ondoan 400 m²ko lur eremua errentan hartzeko aukera. ☎657 709722.

SUNBILLA. Pisu atikoa salgai. 2 logela, egongela tximinia itxiarekin, sukaldia hornitua, balkoia eta terraza. Trastelekua goiko solairuan, marra garajea, berogailu zentrala eta igogailua. Kalitateko eraikin berria eta inguru lasaian. Prezio onean. Errentan hartze-

ko aukera ere bai. ☎628 473539.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

IRUÑEA. San Juanen pisua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldia, dena berritua. 2 komun, trastelekua eta igogailua. Berokuntza zentrala eta argitsua. 750 euro negoziagarriak. ☎948 510664.

DONEZTEBE. Amezitia zeharkarrikan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berogailu zentrala eta eguzkitsua. Prezioa negoziagarria. ☎669 563188.

IRUÑEA. Mendebaldea auzoan pisua errentan emateko, hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela, terraza eta garajearekin. ☎628 581031/646 674406.

IRUÑEA. Arrosadian 2 logela errentan emateko. UPNAtik 5 minutura, Goroabe kalean. ☎620 209663.

BERA. Eztegara pasealekuan pisua errentan emateko. Mobleztaua eta berogailuarekin. ☎626 774582.

ITUREN. Etxebizitza errentan emateko, irailetik uztaileira. ☎661 006327.

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

BERA. Agerra auzoan, pisua errentan emateko; 3 logela, igogailua eta kalefakzioa. ☎659 963960.

LEGASA. Pisua errentan emateko edo salgai, berritua eta mobleztaua. ☎677 089046.

IRUÑEA. Donibane auzoan pisua errentan emateko. 3 logea, 2 komun, egongela, sukaldia, trasteleku ttikia, igogailua eta berogailu zentrala. Mobleztaua. 600 eurotan. ☎667 208082.

IRUÑEA. Taxoare kalean, unibertsitatetik arras hurbil, 5 minutura, bi logela errentan emateko. ☎658 998340.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abuztuaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 35,00 € (+1,00)

Zerri gizena
1,450 € kiloa. (+0,025)

Zerramak:
0,650€ Kg/bizirik. (+0,030)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,19 (=)

1.koa 3,89 (=)

2.koa 3,68 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,25 (=)

1.koa 3,97 (=)

2.koa 3,90 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 120,00 (=)
idixkoak 140,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,97/3,07

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,60/8,70

8-10 kilokoak: 6,60/7,00

UITZI. Pisua berria errentan emateko, lur eremu ttiki batekin. ☎ 696 269511/ 677 026614.

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

Lesakako bi ikasle 3. lagun baten bila gabiltza pisu bat konpartitzeko lruñean. UPNA ondo-ondoan (2-3 minutu). Prezio onean. ☎659 523481

IRUÑEA. Ikasleen pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎664 357554.

ZERBITZUAK
zurginak

ARANTZA
Zurgindegia
Klase guztiak
mirri, jarriak
Ekaitz burkuntza
komunikatzen gabe
Garaipen Jurgintza
Tel: 948 272011 (irratia)
Garaipen: 948 580975

ZERBITZUAK
denetarik

PSIKOANALISTA
Kontzultak eta irratia
☎ 948 272011 (irratia)
☎ 948 580975
Lanetan: 948 4020 - ELIZKONDO

LANA
eskariak

Informatikan ingeniaria den mutil gazte bat lan bila dabil. Hizkuntzetan abila: euskara eta gaztelania ama-hizkuntzak, ingelesa erdi mailakoa eta frantsesa eta alemana oinarritzko maila. ☎677 241571.

Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke Leitzañ irailetik aurrera. ☎667 518404.

Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke Leitzañ irailetik aurrera. ☎695 716894.

Baztango neska euskaldunak adineko jendea zaintzen lan eginen luke. Esperientziaduna. Interna moduan lan egiteko prest. ☎608 070853.

Emakume euskalduna lanean ariko litzateke. 20 urteko esperientzia gizonetzko nahiz emakumezkoak zaintzen, ostalaritzan, etxeak garbitzen... ☎678 074973.

Zonaldeko mutila pintatze lanetan, baserriko lanetan, mantenimendu lanetan (lore zaintza, erai-kuntza...), egurra egiten... ariko litzateke. Lanean berehala hasteko prest. ☎636 599336.

Gizonezkoa prest dago lorezaintzarako: belarra moztu, desbrozatu, mendia garbitu... Pertsona helduen zainketa: erosketak egin, konpainia eskaini... Abeltzaintza: ardiak, behiak... Garbiketala lanak: ostatuak, portalak, negozioak... ☎699 121936.

Berako mutil bat edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎657 409499.

Emakumezko bat Elizondo edo zonaldean garbiketala lanak egiten, plantxa lanetan, fregatzen, fregaderan egon edo pertsonak zaintzen ariko litzateke. ☎603 640776.

LANA
eskaintzak

BERA. Neska euskalduna behar da asteburu eta eskolako opor egunetan haurrak zaintzeko. ☎629 694443.

NAFARROAN, ordezkaritza independenteak behar dira: zure nagusia izan, etxetik lan egiteko, enpresa independente bat ezarri etxean. Aurreko esperientzia ez da beharrezkoa. ☎626 981768.

BERA. Asteburuetan lan egiteko kamarera bat behar da jatetxean. ☎607 827309.


ARIZKUN. Pertsona bat behar da bulego batean lan egiteko. Derrigorrezkoa frantsesez jakitea. Bidali curriculumak info@elbetepvcaluminio.com-era.

ANIMALIAK
salerosketak

Border Collie zakurkumeak salgai. Ama eta aita hagitz onak. Biak lanean erakutsi daitezke. ☎678 896909.



6 txerrikume salgai, 3 eme eta 3 aketzetarako. Txerrikumeak uztailaren 9an jaiotakoak dira. Nahi izanez gero, goizez deitu. ☎695 716894.



LESAKA. Bi euskal asto emari salgai. Prezio negoziagarria. ☎690 181644.

Ehizerako *grifon azul de gascuna* arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎639 518780.

Hiru asto eta bi astokume salgai. ☎680 201222 / 669 670130.

ANIMALIAK
oparitzeko

Hiru katukume oparitzeko. ☎948 580231.

Zakurkumeak oparitzeko. Euskal ardi zakurra eta Kaukasoko mastinaren arteko nahasketa dira. ☎633 356997.

MOTORRAK
salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005ekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. ☎628 572273.

Yamaha XT 350 moto-rra salgai, 1988koa, oso gutxi erabilia eta egoera

SANTESTEBAN Tailerrak

KILOMETRO 0 eta prezio ezin hobekak!!!!

MEGANE III EXPRESSION 1.9 DCI 95CV - 2007 urtekoa - 42.000€

LAGUNA 2.0 DCI 130CV - 2007 urtekoa - 17.000€

HYUNDAI GALLOPER 2.0 TD

ETA GAIHERRA:
Laguna II 1.9 DCI 130 CV - 2003 urtekoa
Mitsubishi L200 1.6 16CV - 66.000 km
Mitsubishi L200 1.6 16CV - 2002 urtekoa
Citroën C4 1.5 DCI 75 CV - 2001 urtekoa
Nissan J Dacia 1.5 DCI 105 CV - 2000 urtekoa
Nissan J Dacia 1.5 DCI 95 CV - 2000 urtekoa


CLIO DYNAMIQUE 1.5 DCI 90CV - 2012 urtekoa

DOLETTEREKO RENAULT eta CITROËN BERRITAN SAILKATU EKIAINTZAK

onean. Dokumentazioa ordenean. Prezio interesgarrian. ☎619 980909.



Fiat Bravo multijet 120 zaldi, 2007 urtekoa, 72.000 km, extra guztiekin, hagitz egoera onean. ☎607 890923.



Gas gas 250 cc moto-rra salgai, 2006koa. 300era altxatua eta extrekin. Hagitz egoera onean eta konfidantzakoa. 2.400 euro. Deitu ilunabarretan. ☎655 710948.



DENETARIK
salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / 699 461394.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Belarra mozteko dis-koa erosi nahi da. ☎679 092896.

Bigarren eskuko musi-ka-tresnak salgai: akordeoiaren teklak, gitarrak, teklatu elektrikoak. Prezio onean eta ederki funtzionatzen dute. ☎630 603130.

ARIZKUN. Egurrezko ar-mairua salgai, egoera arras onean. Neurriak: 3,80 x 2,20. ☎699 375558.



GANIX

7 948 68 06 69

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Alkaiagako **OIER GOIENETXE MARI-TXALAREK** irailaren 23an 5 urte beteko ditu. Zorionak anaia-arreba eta gurasoen partetik. Txoko-marrubizko 5 muxutxu.



NAHIA eta **ENAITZ PORTU ZELAIETA** sunbildarrek irailaren 11n eta 23an urtea eta 8 urte beteko dituzte. Muxu haundi bat familia osoaren partetik. Ongi pasa egunak!




Leitzako **EKAITZ GOMEZ ARIZTIMU-NOK** 2 urte beteko ditu irailaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat familia guztiaren partetik!



Lesakako **JARE UBIRIA IRIONDOK** irailaren 1ean 4 urte bete ditu. Zorionak! Eguna ongi pasatu duzulakoan muxu aunitz familia guztiaren partetik.



OIER AGIRRE ARRETXEKA sunbildarrek irailaren 16an urteak bete ditu. Zorionak Sunbilla, Lekunberr eta Gerendiango familien partetik. Nola ez, bereziki, aita, ama eta zure arreba Argiaren partetik. Zortzi mila muxu.



Berako **IKER** eta **SAIOA PETRARENA PIKABEAK** urteak beteko dituzte irailaren 6an eta 25ean. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa egunak.




BEÑAT eta **OIER ERRO MUJIKAK** irailaren 5ean 10 urte bete dituzte. Ongi pasa zuen urtebetetze eguna eta jarraitu hain maitagarriak eta jatorrak izaten. Muxu bana aita, ama eta familia guztiaren partetik.



AIORA APEZETXEKA ETXEBERRIA goizuetarrak 8 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu bat etxeko neskatilari atxa, ama eta Xaneten partetik.



Erratzuko **HARITZ ITURBURUA JAURENAK** irailaren 14an 7 urte bete dituelako zorionak familia eta bereziki bere anaia Iker eta bere bi lehengusu Naroa eta Enaitzen partetik. Muxuak.



ANER DEL POZO RIOPEDREK urtea bete du irailaren 11n. Zorionak gure **ANERTXO** bihurriari Lesakako familiaren partetik! Muxu erraldoi bat! Paaaa!



Arantzako **HARRIET ETXEPETELEKU ZABALETAK** urtea bete du irailaren 16an. Hagitz pozik gaude gure artera etorri zinenetik. Aunitz urtez eta mila muxu familiaren partetik.



OIER AGINAGALDE IPARRAGIRRE etxalartarrak 3 urte beteko ditu irailaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama, Aimar, amatxi eta Enaitzen partetik.



ENEKO ALMANDOZ URBISTONDO igantziarrak urtea beteko du urriaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Aunitz urtez **SONIA** Urrirun sartzearekin batera, gure ilehoriak urte bat gehiago eginen du. Muxu haundi-haundi bat!



Igantziko **UNAX URTEGI RODRIGO** etxeko pottokoak bere lehenbiziko urtea beteko du irailaren 29an. Zorionak eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik. Sanmigel Egunean zure etxera goaz bazkaltzera, prestatu bazkari eder bat!



ANARTZ LUJANBIO NARBARTE goizuetarrak 4 urte beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak torero! Eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta bereziki amatxoren partetik.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa**ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 36€
- Europa 56€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 32€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 56€
- Leitza 16€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

MERKATU TTIKIA

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Trikitixa bat errentan hartuko nuke ikasturte osorako. ☎666 663642/ 948 453460.

Enpakadorea salgai, New Holland markakoa. ☎660 251884.

Eusebio Arizaga markako **eskopeta** paralela raiatua eta motza salgai. Kanoiak 60 zentimetroko luzera, kanoi bat raiatua eta bertzea zilindrikoa. Kulata pistolet-erdia eta bi gatilo. Oilagorretarako aproposa, bai-

ta basurdean resakatzen ibiltzeko, raiatua ongi doa breneke balekin. ☎686 730516.



Bigarren eskuko **pianoa** salgai, egoera eta prezio onean. ☎618 962561.

ikasi
eta landu

euskara bizia



Eskolak



On line



Baretegiak



Mintza
praktika



Titulū
homologatuak



Normalizazio
planak

aek

Agencia Euzkoak
guztira erabiltzeko
erakunde publikoa

eman izena 948 452 471





TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



Etxeleku Baserria

GALIBANE 12 Rojo Occitan

les tuiles
SOLUTIONS

948 123 713

info@lestuiles.es

www.lestuiles.es

BERMEAK



Teilatua berria edo teilatua aldatzeko beharrean zaude?